


# Nokia 5800 XpressMusic-en

## Erabiltzailearen gidaliburua

NOKIA

Euskaltelek itzulitako eta
ekoiztutako eskuliburua

euskaltel

ADOSTASUN-DEKLARAZIOA

CE0434 Honen bidez, NOKIA CORPORATIONek adierazten du RM-356 produktuak 1999/5/EE direktibako oinarrizko baldintzak eta aplikatu edo eskatu beharreko gainerako xedapenak betetzen dituela. Adostasun-deklarazioaren kopia bat eskuragarri dago http://www.nokia.com/phones/declaration_of_conformity/ gunean.

Nokia, Nokia Connecting People, Nokia Care eta XpressMusic Nokia Corporation-en marka komertzialak edo erregistratuak dira. Nokia tune Nokia Corporation-ek erregistratutako doinua da. Hemen aipatzen diren gainerako produktuak eta enpresen izenak haien jabeen marka komertzialak edo erregistratuak izan daitezke.

Debekatuta dago dokumentu osoa edo zati bat inolako eratan erreproduzitzea, transferitzea, banatzea edo jasotzea, Nokiaren aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

symbian This product includes software licensed from Symbian Software Ltd ©1998-2008. Symbian and Symbian OS are trademarks of Symbian Ltd.

This software is based in part of the work of the FreeType Team. This product is covered by one or more of the following patents: United States Patent 5,155,805, United States Patent 5,325,479, United States Patent 5,159,668, United States Patent 2232861 and France Patent 9005712.

US Patent No 5818437 and other pending patents. T9 text input software Copyright® 1997-2008.Tegic Communications, Inc. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Java POWERED poweded java and all Java-based marks are trademarks or registered trademarks of Sun Microsystems, Inc.

Portions of the Nokia Maps software are © 1996-2008 The FreeType Project All rights reserved.

This product is licensed under the MPEG-4 Visual Patent Portfolio License *(i)* for personal and non encoded in compliance with the MPEG-4 visual Standard by a consumer engaged in a personal an video provided by a licensed video provider. No license is granted or shall be implied for any other use. Additional information, including that related to promotional, internal, and commerdal uses, may be obtained from MPEG LA, LLC. See http://www.mpegla.com.

Produktu honek Ikusizko MPEG-4 Patenteen Zorroaren Lizentzia izan behar du, *(i)* kontsumitzaile batek helburu ez-komertzialarekin eta pertsonalarekin Ikusizko MPEG-4 Estandarraren arabera kodetutako informazioarekin lotutako erabilera pertsonal eta ez-komertzialerako, *(ii)* bideo-irtenbideen hornitzaile baimendu batek eskainitako MPEG-4 bideoarekin lotutako erabilera bateraturako.Ez da barne hartzen ez eta inplizituki hartzen ere beste zerbaiterako erabiltzeko lizentziarik. Erabilera komertzialari, sustatzaileari eta MPEG LA, LLC-ri buruzko informazio gehiago eska dezakezu. See http://www.mpegla.com.

Nokiak etengabe garatzeko politikarekin lan egiten du, eta eskubidea dauka dokumentu honetan deskribatutako produktuetan aldaketak eta hobekuntzak egiteko aurrez ohartarazi gabe.

APLIKATU BEHARREKO LEGEEK ONARTZEN DUTEN NEURRIAN, NOKIAK EZ DITU BERE GAIN HARTZEN DATUEN EDO SARREREN GALERAK, EZ ETA INOLAKO KALTE BEREZIAK ERE, ISTRIPUEN ONDORIO DIRENAK, ZUZENEKOAK EDO ZEHARKAKOAK, ARRAZOIA EDOZEIN DELA ERE.

DOKUMENTU HONEN EDUKIA BERE HORRETAN EMATEN DA. DOKUMENTU HONEN ZEHAZTASUNAK, FIDAGARRITASUNAK ETA EDUKIAK EZ DUTE BERMERIK IZANGO, EZ ESPLIZITURIK, EZ INPLIZITURIK, INDARREAN DAGOEN LEGEAK HORI ADIERAZI EZEAN, EZ ETA, BESTEAK BESTE, HELBURU JAKIN BATERAKO MERKATURATZE-BERMERIK ETA EGOKI IZATEAREN ONDORIOZKO BERMERIK ERE. NOKIAK ESKUBIDEA DU EDOZEIN UNETAN, AURREZ JAKINARAZI GABE, DOKUMENTU HAU BERRIKUSI EDO BALIOGABETZEKO.

Debekatuta dago Nokiaren gailuen softwareetan atzeranzko ingeniaritza egitea, aplika daitekeen legediaren arabera. Erabiltzailearen eskuliburu honek muga guztiak ditu, bai Nokiaren irudiei, bermeei, kalteei eta ardurei dagokienez, bai Nokiari lizentzia uzten dieten enpresen irudiei, bermeei, kalteei eta ardurei dagokienez.

Gailuarekin emandako hirugarrenen aplikazioak Nokiarekin elkartuta edo harremanetan ez dauden pertsonek edo erakundeek sortutakoak edo haienak izan daitezke. Nokiak ez du hirugarrenen aplikazioen gaineko copyright-ik, ez eta jabego intelektualaren eskubiderik ere. Beraz, Nokia ez da aplikazio horien euskarrien funtzioen eta azken erabiltzaileentzako euskarrien arduradun, ez eta aplikazioetako edo materialetako informazioaren arduradun ere. Nokiak ez du bermerik eskaintzen hirugarrenen aplikazioen kasuan. APLIKAZIOAK ERABILTZEAN, ONARTZEN DUZU APLIKAZIO HORIEK BAKARRIK EMATEN DIRELA, BERME ESPLIZITURIK EDO INPLIZITURIK GABE, ETA APLIKATU BEHARREKO LEGEAK ONARTZEN DUENERA ARTE. HALABER, ONARTZEN DU EZ NOKIAK EZ HAREN FILIALEK EZ DUTELA BERMERIK ESKAINTZEN, EZ ESPLIZITURIK, EZ INPLIZITURIK, EZTA JABETZAREN, KOMERTZIALIZATZEAREN EDO HELBURU JAKIN BATERAKO EGOKITZEAREN BERMEAK EDOTA APLIKAZIOEK PATENTE, COPYRIGHT, MARKA KOMERTZIAL EDO HIRUGARRENEN BESTE ZENBAIT ESKUBIDE BETETZEKO BERMEAK ERE.

Aplikazio, produktu eta zerbitzu jakin batzuk eskura egotea desberdina izan daiteke eskualde batetik bestera. Jarri harremanetan Nokiaren banatzailearekin, xehetasun gehiagori eta aukeran dauden hizkuntzei buruzko informazioa izateko.

Esportazioa kontrolatzea

Produktu honek AEBko eta beste herrialde batzuetako araudien eta legearen araberako osagaiak, teknologia edo softwarea izan ditzake. Debekatuta dago legeak urratzea.

FCC / INDUSTRY CANADA-REN OHARRA

FCCk edo Industry Xanadak telefonoa gehiago ez erabiltzeko eska diezazukete, interferentzia horiek ezaba ezin badaitezke. Laguntza behar izanez gero, jarri harremanetan banatzailearekin. Este dispositivo cumple el apartado 15 de las normas de la FCC. Funtzionamenduak bi baldintza hauek bete behar ditu: (1) gailu honek ez du interferentzia kaltegarririk sortu behar eta (2) jasotzen duen edozein interferentzia onartu behar du, nahi ez den funtzionamendua eragin dezaketenak barne. Nokiaren baimenik gabe gailuan aldaketak eginez gero, ekipoa erabiltzeko baimena ken dakioke erabiltzaileari.

Modeloaren zenbakia: 5800d-l

/Edición 2 ES

# Aurkibidea

**Segurtasuna ... 10**
Zure gailuari buruz ... 10
Sare-zerbitzuak ... 11

**1. Oinarrizko kontzeptuak ... 12**
Teklak eta piezak ... 12
SIM txartela sartzea ... 13
Bateria sartzea ... 13
Bateria kargatzea ... 14
Gailua piztea ... 15
Arkatza ... 15
Teklak eta ukipen-pantaila blokeatzea ... 15
Hasierako pantaila ... 15
Menura sartzea ... 16
Ukipen-pantailako ekintzak ... 16
Multimedia-tekla ... 18
Dei-seinalea aldatzea ... 18
Nokiaren laguntza ... 18

**2. Laguntza bilatzea ... 18**
Gailuko laguntza ... 18
Erabiltzailearen eskuliburu osoa ... 19
Softwarea eguneratzea ... 19
Ezarpenak ... 20
Sarbide kodeak ... 20
Bateriaren iraupena luzatzea ... 20
Memoria askatzea ... 21

**3. Zure gailua**
Ongietorria ... 22
Edukia transferitzea ... 22
Pantailako adierazleak ... 23
Memoria-txartela ... 24
Memoria-txartela sartzea ... 24
Memoria-txartela ateratzea ... 25
Bolumenaren eta bozgorailuaren kontrola ... 25
Lasterbideak ... 26
Antenen kokapenak ... 26
Kontaktuen barra ... 26
Lineatik kanpo modua ... 27
Sentsorearen eta pantaila-biraren sentsoreak ... 27
Esku libreko kit eramangarria ... 28
SIM txartela ateratzea ... 28
Eskumuturrerako uhala gehitzea ... 29
Urrutiko blokeoa ... 29

**4. Deitzea ... 29**
Hurbiltasun-sentsorea ... 29
Ahots bidezko deiak ... 29
Hitz egiten ari zarela ... 30
Ahots-postontzia ... 30
Deiak erantzutea edo ez onartzea ... 30
Multikonferentzia-dei bat egitea ... 31
Markaketa bizkorreko zenbakiak ... 31
Deia zain ... 32
Ahots bidezko markaketa ... 32
Bideo-dei bat egitea ... 33
Bideo-dei bat egitean ... 33
Bideo-deiak erantzutea edo ez onartzea ... 34
Bideoa partekatzea ... 34

Bideoa partekatzeko betebeharrak ..... 34
Ezarpenak ..... 35
Zuzeneko bideoen eta bideoklipen erabilera partekatua ..... 35
Gonbidapen bat onartzea ..... 36
Erregistroa ..... 37
Azken deiak ..... 37
Azken deien barra ..... 37
Deien iraupena ..... 37
Datu-paketeak ..... 37
Komunikazio-ekitaldi guztiak gainbegiratzea ..... 37

**5. Testua idaztea ..... 38**
Pantailako teklatua ..... 38
Idaztea ..... 39
Teklatu alfanumerikoa ..... 40
Ikonoak eta funtzioak ..... 40
Ohiko bidea erabilita testua idaztea ..... 41
Testu prediktiboarekin idaztea ..... 41
Testu-modu batetik bestera aldatzea ..... 41
Ukipen bidez idazteko doikuntzak ..... 42

**6. Kontaktuak (telefono-aurkibidea) ..... 42**
Izenak eta zenbakiak gorde eta editatzea ..... 42
Kontaktuen tresna-barra ..... 42
Izenak eta zenbakiak kudeatzea ..... 43
Aurrez zehaztutako zenbakiak eta helbideak ..... 43
Kontaktuen deietarako seinaleak, irudiak eta testuak ..... 43
Kontaktuak kopiatzea ..... 44
SIM zerbitzuak ..... 44
SIM txarteleko kontaktuak ..... 44
Markaketa finkoa ..... 44

**7. Mezuak ..... 45**
Mezularitzaren ikuspegi nagusia ..... 45
Mezuak idatzi eta bidaltzea ..... 45
Mezuen sarrerako postontzia ..... 46
Mezuak jasotzea ..... 46
Multimedia-mezuak ..... 47
Web-zerbitzuen datuak, doikuntzak eta mezuak ..... 47
Postontzia ..... 47
Posta elektronikoaren doikuntzak definitzea ..... 47
Postontzia irekitzea ..... 48
Mezu elektronikoak berreskuratzea ..... 48
Posta elektronikoko mezuak ezabatzea ..... 48
Postontzitik deskonektatzea ..... 49
Mezuak SIM txartel batean ikustea ..... 49
Sare zelularreko informazio-mezuak ..... 49
Zerbitzu-komandoak ..... 49
Mezuen konfigurazioa ..... 50
Testu-mezuen doikuntzak ..... 50
Multimedia-mezuen ezarpenak ..... 50
Posta elektronikoaren ezarpenak ..... 51
Postontziak kudeatzea ..... 51
Berehalako mezularitza ..... 51

**8. Gailua pertsonalizatzea ..... 51**
Gailuaren itxura aldatzea ..... 52
Profilak ..... 52

**9. Musika karpeta ........ 52**
Musika-erreproduzitzailea ........ 53
Abesti bat edo podcast bat erreproduzitzea ........ 53
Zerrendak ........ 54
Podcast-ak: ........ 55
Ordenagailu batetik musika transferitzea ........ 55
Nokia musika-denda ........ 55
Nokia Podcasting ........ 55
Podcast-en doikuntzak ........ 56
Deskargak ........ 56
Irratia ........ 57
Irratia entzutea ........ 57
Irrati-kateak kudeatzea ........ 57

**10. Galeria ........ 57**
Fitxategiak ikustea eta antolatzea ........ 58
Argazkiak eta bideoak ikustea ........ 58
Irudiak eta bideoklipak antolatzea ........ 59
Telebistaren irteera-modua ........ 59

**11. Kamera ........ 60**
Kamera aktibatzea ........ 60
Argazkiak ateratzea ........ 60
Irudi finkoak ateratzeko pantailako adierazleak eta kontrolak 60
Argazkiak ateratzeko eta grabazioko ezarpenak ........ 61
Argazkiak ateratzea ........ 62
Argazki bat egin ondoren ........ 62
Flasha eta bideoaren argiztapena ........ 63
Eszenak ........ 63
Kokapenaren informazioa ........ 63
Argazkiak automatikoki ateratzea: tenporizadorea ........ 64
Sekuentzia batean argazkiak ateratzea ........ 64
Bideoa grabatzea ........ 65
Bideoak grabatzea ........ 65
Bideoa grabatzeko pantailako adierazleak eta kontrolak ........ 65
Bideoklip bat grabatu ondoren ........ 65

**12. Kokapena (GPS) ........ 66**
GPSri buruz ........ 66
Lagundutako GPSa (A-GPS) ........ 66
Gailua ondo ipintzea ........ 67
GPS konexio bat sortzeko iradokizunak ........ 67
Kokapen-eskaerak ........ 68
Markak ........ 68
GPS datuak ........ 69
Posizionamendu-doikuntzak ........ 69

**13. Mapak ........ 69**
Mapak ........ 69
Sare-kokapena ........ 70
Mapa batean mugitzea ........ 70
Pantailako adierazleak ........ 71
Kokapenak bilatzea ........ 71
Ibilbideak planifikatzea ........ 72
Guardar y enviar ........ 72
Gordetako elementuak ikustea ........ 72
Helbururaino nabigatzea ........ 73
Mapak eguneratzea ........ 73
Nokia Map Loader ........ 73

**14. Konektagarritasuna ........ 74**
Datu-konexioak eta sarbide-puntuak ........ 74
Sareko doikuntzak ........ 74
Haririk gabeko sare lokala ........ 75
WLANi buruz ........ 75
WLAN konexioak ........ 75
WLANen laguntzailea ........ 76
Interneteko sarbide-puntuak (WLAN) ........ 76
Funtzionatzeko moduak ........ 76
Haririk gabeko sare lokala ........ 77
Sarbide-puntuak ........ 77
Sarbide-puntua berri bat sortzea ........ 77
Sarbide-puntuen taldeak sortzea ........ 78
Datu-paketeen sarbide-puntuak ........ 78
Interneteko sarbide-puntuak (WLAN) ........ 79
Datu-konexio aktiboak ........ 80
Sinkronizazioa ........ 81
Bluetooth konektagarritasuna ........ 81
Bluetooth konexioari buruz ........ 81
Ezarpenak ........ 82
Segurtasun-aholkuak ........ 82
Bluetooth konexioarekin datuak bidaltzea ........ 82
Gailuen arteko loturak ezartzea ........ 83
Bluetooth konexioarekin datuak jasotzea ........ 84
Gailuak blokeatzea ........ 84
Urruneko SIM modua ........ 84
USB ........ 85
PCarekin konektatzea ........ 85
Doikuntza administratiboak ........ 85
SIP doikuntzak ........ 85
Sarbide-puntuko izenen kontrola ........ 86
Datu-paketeen doikuntzak ........ 86

**15. Linean partekatzea ........ 86**
Linean partekatzea ........ 86
Zerbitzuetan izena ematea ........ 87
Kontuak kudeatzea ........ 87
Artikulu bat sortzea ........ 87
Galeriako fitxategiak argitaratzea ........ 88

**15. Nokia bideo-zentroa ........ 88**
Bideoklipak ikustea eta deskargatzea ........ 88
Bideo-iturriak ........ 89
Nire bideoak ........ 90
PCtik bideoak transferitzea ........ 90
Bideo-zentroaren doikuntzak ........ 90

**17. Web-nabigatzailea ........ 91**
Webgunean nabigatzea ........ 91
Nabigatzailearen tresna-barra ........ 92
Orrialdeetan nabigatzea ........ 93
Web informazio-zerbitzariak eta blogak ........ 93
Widget-ak ........ 93
Edukia bilatzea ........ 93
Edukiak deskargatzea eta eskuratzea ........ 94
Gogokoenak ........ 94
Cachea hustea ........ 95
Konexio-segurtasuna ........ 95

**18. Bilatzea ........ 95**
Bilatu funtzioari buruz ........ 95
Bilaketa bat hastea ........ 96

**19. Deskargatu ........ 96**

Deskargaturi buruz ....... 96
elementuak eskuratzea eta deskargatzea ....... 97

**20. Beste zenbait aplikazio ....... 97**
Erlojua ....... 97
Iratzargailua ....... 97
Munduko erlojua ....... 97
Kontaktuak ....... 98
Kontaktuen ikuspegiak ....... 98
Kontaktuen tresna-barra ....... 98
Fitxategien kudeatzailea ....... 98
Fitxategien kudeatzaileari buruz ....... 98
Fitxategiak bilatzea eta antolatzea ....... 98
Memoria-txartela editatzea ....... 98
Memoria-txartel baten fitxategien segurtasun-kopia ....... 99
Aplikazioen kudeatzailea ....... 99
Aplikazioak instalatzea ....... 99
Aplikazioak kentzea ....... 100
Aplikazioen kudeatzailearen doikuntzak ....... 101
Aplikazioak eguneratzea ....... 101
RealPlayer ....... 101
RealPlayer-en tresna-barra ....... 101
Bideoklipak erreproduzitzea ....... 102
Edukia aire bidez transmititzea ....... 102
Grabagailua ....... 102
Oharrak idaztea ....... 102
Kalkulagailua ....... 103
Bihurtzailea ....... 103
Hiztegia ....... 103

**21. Ezarpenak ....... 103**
Telefonoaren ezarpenak ....... 103
Dataren eta orduaren ezarpenak ....... 103
Hizkuntza ezarpenak ....... 104
Ikuspenaren doikuntzak ....... 104
Ahots-komandoak ....... 104
Osagarrien doikuntzak ....... 105
Aplikazioen doikuntzak ....... 106
Gailuaren eguneraketak ....... 106
Segurtasuna ....... 106
Telefonoa eta SIM ....... 106
Ziurtagiriak kudeatzea ....... 107
Segurtasun-modulua ....... 108
Jarri berriro jatorrizko ezarpenak ....... 108
Eduki babestua ....... 109
Jakinarazpen-argia ....... 109
Deiaren ezarpenak ....... 109
Deien doikuntzak ....... 109
Deiak desbideratzea ....... 110
Deiak murriztea ....... 110

**22. Arazoak konpontzea ....... 111**

**Beste zenbait aplikazio ....... 114**

**Bateria ....... 114**
Bateriari eta kargagailuari buruzko informazioa ....... 114
Nokia bateriak autentifikatzeko arauak ....... 115
Hologramaren egiazkotasuna ....... 116
Zer gertatzen da bateria benetakoa ez bada? ....... 116

**Zainketa eta mantentze-lana ........ 116**
Birziklatzea ........ 117

**Segurtasunari buruzko informazio gehiago ........ 117**
Haurrak ........ 118
Ingurune operatiboa ........ 118
Aparatu medikoak ........ 118
Gorputzean ezarritako gailu medikoak ........ 118
Entzuteko gailuak ........ 119
Ibilgailuak ........ 119
Lehergaiak egon daitezkeen inguruak ........ 119
Larrialdi-deiak ........ 120
Absortzio espezifikoaren tasaren ziurtagiriari buruzko informazioa *(SAR)* ........ 120

**Aurkibide alfabetikoa ........ 122**

# Segurtasuna

Irakurri jarraibide erraz hauek. Arauak ez errespetatzea arriskutsua edo legez kontrakoa izan daiteke. Irakurri erabiltzailearen eskuliburu osoa informazio gehiago izateko.

**PIZTU GAILUA ARRISKURIK GABE**
Ez piztu gailua mugikorrak erabiltzea debekatuta dagoen lekuetan edo interferentziak sor ditzakeen edo arriskuren bat ekar dezakeen lekuetan.

**ERREPIDEAN ERNE IBILTZEA FUNTSEZKOA DA**
Errespetatu tokian tokiko legedia. Gidatzen duzun bitartean, eskuak libre izan beti autoarekin maniobrak egin ahal izateko. Gogoratu errepidean gidatzeko lehen araua arretaz ibiltzea dela.

**INTERFERENTZIAK**
Gailu mugikor guztiek jaso ditzakete haien errendimenduari eragin diezaioketen interferentziak.

**LEKU MUGATUETAN ITZALTZEA**
Errespetatu murrizketa guztiak. Itzali gailua hegazkinetan eta ekipo medikoetatik, erregaietatik, produktu kimikoetatik eta leherketak egiten diren tokietatik hurbil dauden lekuetan.

**ZERBITZU TEKNIKO GAITUA**
Zerbitzu teknikoetako langile gaituek soilik instala edo konpon dezakete produktua.

**OSAGARRIAK ETA BATERIAK**
Fabrikatzaileak onartutako osagarriak eta bateriak bakarrik erabili. Ez konektatu bateraezinak diren produktuak.

**URAREKIKO ERRESISTENTZIA**
Zure gailuak ezin du ura jasan. Ez ezazu busti.

# Zure gailuari buruz

Gidaliburu honetan deskribatutako gailu mugikorraren erabilera sare hauek onartzen dute: GSM 850,900,1800, 1900 eta UMTS 900,2100. Sareei buruz informazio gehiago izateko, jarri zure zerbitzu-hornitzailearekin harremanetan.

Gailu honetako funtzioak erabiltzean, errespetatu legeak eta gainerako pertsonen pribatutasuna eta legezko eskubideak, copyrightak barne, baita tokiko ohiturak ere.

Copyrighten babesak direla eta, agian, irudi, musika eta beste eduki batzuk ezingo dituzu kopiatu, aldatu edo transferitu.

Zure gailuak konektatzeko metodo bat baino gehiago onartzen ditu. Ordenagailuetan bezala, zure gailuan, birusak eta beste hainbat eduki kaltegarri jaso ditzakezu. Kontuz ibili mezuekin, konexio-eskaerekin, nabigazioarekin eta deskargekin.

Konfiantzako iturrietako zerbitzuak eta softwareak bakarrik erabili eta instalatu, software kaltegarriaren aurkako segurtasuna eta babesa eskaintzen dutenak; adibidez, Symbian Signed diren edo Java VerifiedTM probak gainditu dituzten aplikazioak. Antibirus edo segurtasun-software bat instala dezakezu gailuan eta konektatutako edozein ordenagailutan.

Aurrez instalatutako gogokoak edo estekak izan ditzake gailuak, hirugarrenen Interneteko guneetara sartzeko. Halaber, hirugarrenen guneetara sar zaitezke gailuaren bidez. Hirugarrenen guneak ez daude Nokiarekin lotuta, eta Nokiak ez ditu horiek babesten, ez eta horien gaineko erantzukizunik bere gain hartzen ere. Gune horietara sartzen bazara, ardura berak hartu beharko dituzu segurtasunari eta edukiari dagokionez.

**Oharra:** gailu honen funtzioak –erlojuaren alarma salbu– erabiltzeko, piztuta egon behar du. Ez piztu haririk gabeko gailua interferentziak sor ditzakeen edo arriskuren bat ekar dezakeen lekuetan.

Gogoratu telefonoan gordetzen duzun informazio garrantzitsu guztiaren segurtasun-kopiak egitea edo idatziz erregistratzea.

Beste gailu batekin konektatu nahi baduzu, lehenik irakurri dagokion erabiltzailearen gidaliburua, segurtasun-jarraibideak zein diren ongi jakiteko. Ez konektatu bateraezinak diren produktuak.

Baliteke eskuliburu honetan agertzen diren irudiak eta gailuaren pantailakoak berdinak ez izatea.

Ikus erabiltzailearen gidaliburua gailuari buruzko informazio garrantzitsu gehiago izateko.

# Sare-zerbitzuak

Gailua erabiltzeko, haririk gabeko zerbitzuen hornitzaile baten zerbitzuak kontratatu behar dituzu. Prestazio askok sare-funtzio bereziak behar dituzte. Funtzio horiek ez daude erabilgarri sare guztietan. Litekeena da, sare batzuetan, zerbitzu-hornitzailearekin hitzarmen bat sinatu behar izatea sare-zerbitzua erabili ahal izateko. Sare-zerbitzu batzuk erabiltzean datu-transmisioa gertatzen da. Galdetu zerbitzu-hornitzaileari tarifa arruntak eta desplazamendu-zerbitzuenak. Zure zerbitzu-hornitzaileak emango dizkizu jarraibideak, eta jakinaraziko dizu zenbat kobratuko dizuten. Litekeena da sare batzuek zenbait muga izatea eta horiek sare-zerbitzuak erabiltzeko moduan eragitea. Adibidez, baliteke sare batzuek ez onartzea hizkuntzaren menpe dauden zenbait karaktere eta zerbitzu,

eta litekeena da zerbitzu-hornitzaileak eskatu izana funtzio batzuk gailuan erabilgarri edo aktibatuta ez egotea. Hala bada, funtzio horiek ez dira agertuko zure telefonoaren menuan. Zure gailuak konfigurazio bereziak izan ditzake; esate baterako, aldaketak menuen izen eta ordenetan eta menuetan. Informazio gehiago nahi baduzu, jarri zerbitzu-hornitzailearekin harremanetan.

Telefono honek WAP 2.0 (HTTP eta SSL) protokoloak onartzen ditu, eta horiek TCP/IP protokoloekin exekutatzen dira. Gailu honetako funtzio batzuek (adibidez, posta elektronikoa, nabigatzailea eta MMS multimedia-mezuak) teknologia horietako sare-euskarria behar dute.

# 1. Oinarrizko kontzeptuak

## Teklak eta piezak




1 – Micro USB konektorea, ordenagailu bateragarri batera konektatzeko

2 – Nokiaren AV konektorea (3,5 mm) bateragarriak diren EL eramangarrientzat, entzungailuentzat eta Tbren irteerako konektoreentzat

3 – Kargagailuaren konektorea

4 – Pizteko tekla

5 – Entzungailua

6 – Argi-sentsorea

7 – Hurbiltasun-sentsorea

8 – Ukipen-pantaila

9 – Bigarren kamera

10 – Zoomaren eta bolumenaren tekla

11 – Multimedia-tekla

12 – Teklak eta pantaila blokeatzeko etengailua

13 – Argazkiak ateratzeko tekla

14 – Esekitzeko tekla

15 – Menu tekla ...

16 –Deitzeko tekla




17 – Arkatza

18 – Kameraren lentea

19 – Kameraren flasha

20 – Bozgorailuak

21 – SIM txartelaren zirrikituaren tapa

22 – Memoria-txartelaren zirrikituaren tapa

23 – Uhalarentzako irekidura

24 – Mikrofonoa.

Eragiketa luze batean –hala nola bideo-dei aktibo batean edo abiadura handiko datu-konexio batean–, litekeena da gailua berotzea. Gehienetan, normala da hori. Gailuren bat behar bezala ez badabil, eraman hurbilen duzun baimendutako banatzaileari.

## SIM txartela sartzea

**Garrantzitsua:** SIM txartelari kalterik ez eragiteko, atera beti bateria txartela sartu edo atera aurretik.

Litekeena da dagoeneko SIM txartel bat sartuta izatea gailuan. Hala ez bada, eman pauso hauek:

1. Ireki SIM txartelaren zirrikituaren tapa.




2. Sartu SIM txartela zirrikituan. Egiaztatu txartelaren kontaktu-eremua gora begira dagoela eta aldakatutako angelua gailuaren aldera begira dagoela. Bultza txartela barrurantz.




3. Itxi SIM txartelaren zirrikituaren tapa. Ziurtatu tapa ondo itxita dagoela.




SIM txartela ondo jarrita ez badago, lineatik kanpoko profilean soilik erabil daiteke gailua.

## Bateria sartzea

Bateria atera aurretik, telefonoa itzali beti eta deskonektatu kargagailua.

1. Atera goiko karkasa. Horretarako, jaso gailuaren beheko aldetik eutsita.



2. Sartu bateria.
3. Tapa berriro jartzeko, lehenengo goiko traba dagokion zirrikitura begira jarri, eta lerratu bere tokian geratu arte.







## Bateria kargatzea

1. Konektatu kargagailu bateragarri bat paretako korronte-hartune batera.
2. Konektatu elikadura-kablea gailura. Bateria erabat agortu bada, baliteke hainbat minutu pasatzea kargaren adierazlea azaldu aurretik.



3. Bateria erabat kargatuta dagoenean, adierazlea gelditu egiten da. Kargagailua deskonektatu, lehenengo gailutik eta, gero, korronte-hartunetik.

**Iradokizuna:** kargagailua erabiltzen ez duzunean, deskonektatu paretako korronte-hartunetik. Paterako korronte-hartune batera konektatuta dagoen kargagailuak energia kontsumitzen du, baita gailura konektatuta ez badago ere.

## Gailua piztea

1. Luze sakatu pizteko tekla.
2. Gailuak blokeatzeko kodea edo PIN kodea eskatzen badu, sartu eta sakatu **Ados**. Zenbaki bat ezabatzeko, hautatu ←. Hasieran, blokeatze-kodea hau da: **12345.**
3. Hautatu zure kokapena. Nahi gabe kokapena gaizki hautatu baduzu, hautatu **Atzera.**
4. Idatzi data eta ordua. 12 orduko formatua erabiltzen baduzu, jarri a.m. edo p.m., eta hautatu edozein zenbaki.



## Arkatza

Funtzio batzuk –idazkera ezagutzea, adibidez– arkatz batekin erabiltzeko diseinatuak dira. Gailuaren atzeko karkasan dago arkatza.



**Garrantzitsua:** Nokiak gailu honetarako onartutako arkatzak bakarrik erabili. Beste edozein arkatz erabiltzeak gailuaren bermea baliogabetu dezake eta ukipen-pantailari kalteak eragin diezazkioke. Saiatu ukipen-pantaila ez markatzen. Ez erabili lumarik, arkatzik edo punta zorrotza duen objekturik ukipen-pantailan idazteko.

## Teklak eta ukipen-pantaila blokeatzea

Ukipen-pantaila eta teklak blokeatzeko edo desblokeatzeko, mugitu gailuaren albo batean dagoen blokeo-etengailua.

Ukipen-pantaila eta teklak blokeatuta daudenean, ukipen-pantaila itzali egiten da, eta teklak inaktibo gelditzen dira.

Pantaila eta teklak automatikoki blokea daitezke pixka batean erabili gabe egon ondoren. Pantailaren eta teklen blokeo automatikoaren doikuntzak aldatzeko, hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Telef. kudeaketa** > **Tekla-babeslea** > **teklat. autom. blok. epea**

## Hasierako pantaila

Hasierako pantaila abiapuntua da. Hortik, kontaktu garrantzitsu guztiak ikus ditzakezu, eta aplikazioetarako lasterbideak dituzu.

## Pantailako elementu interaktiboak

Erlojuaren aplikazioa irekitzeko, arin ukitu erlojua *(1)*.




Egutegia irekitzeko edo hasierako pantailan profilak aldatzeko, ukitu data edo profilaren izena *(2)*.

Konektagarritasuneko doikuntzak ikusteko edo aldatzeko (⇌), WLAN gaituta badago haririk gabeko sare lokalak ikusteko edo galdutako ekitaldiak ikusteko, ukitu eskuineko goiko ertza *(3)*.

Telefono-dei bat egiteko, hautatu () *(4)*.

Kontaktuak irekitzeko, hautatu () *(5)*.

Menu nagusia irekitzeko, sakatu menuaren tekla *(6)*.

### Kontaktuen barra erabiltzen hastea

Kontaktuen barra erabiltzen hasteko eta hasierako pantailan kontaktuak gehitzeko, hasierako pantailan, hautatu > **Gehitu kontkt. Has. Pantailara** eta jarraitu pausoei.

## Hasierako pantailaren gaia aldatzea

Hasierako pantailaren gaia edo lasterbideak aldatzeko, hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Pertsonala** > **Hasierako pant.**

# Menura sartzea

Menura sartzeko, sakatu menuaren tekla.

Menuaren aplikazio bat edo karpeta bat irekitzeko, arin ukitu.

# Ukipen-pantailaren ekintzak

### Ukitzea eta bi aldiz ukitzea

Ukipen-pantailan aplikazio bat edo beste elementu bat irekitzeko, atzamarrarekin edo arkatzarekin ukitu behar da, normalean. Elementu hauek irekitzeko, ordea, bi aldiz ukitu behar duzu.

- Aplikazio baten elementu guztien zerrenda bistaratzen du, adibidez, Mezularitzako karpeta zerrendan, Zirriborroak.

  **Iradokizuna***:* Zerrendaren ikuspegi bat irekitzean, lehen elementua nabarmenduta dago. Nabarmendutako elementua irekitzeko, ukitu.

- Menuaren aplikazioak eta karpetak, zerrendako ikuspegia erabiltzean
- Fitxategi-zerrenda bateko fitxategiak, adibidez, irudi bat, Galeriako irudien eta bideoen ikuspegian.

Fitxategi bat edo antzeko elementu bat behin ukitzen baduzu, ez da irekitzen, nabarmendu egiten da. Eskuragarri dauden elementuaren aukerak ikusteko, hautatu **Aukerak**, edo, eskuragarri badago, hautatu tresna-barra bateko ikono bat.

## Hautatu

Dokumentu honetan, “hautatzea” deitzen zaio behin edo bitan ukituta aplikazioak edo elementuak irekitzeari. Elementu bat baino gehiago jarraian hautatu behar badituzu, testuak geziekin banatuta agertzen dira pantailan, hautatzeko.

**Adibidez:** **Aukerak** > **Laguntza** hautatzeko, ukitu **Aukerak**, eta, ondoren, ukitu **Laguntza.**

## Arrastatzea

Arrastatzeko, jarri atzamarra edo arkatza pantaila gainean, eta lerratu pantailan.

**Adibidez:** Webgune bat gora edo behera eramateko, arrastatu orria atzamarrarekin edo arkatzarekin.

## Lerratzea

Elementu bat mugitzeko, lerratu azkar atzamarra pantailan, ezkerrera edo eskuinera.

**Adibidez:** Irudi bat ikusten ari zarela, hurrengo edo aurreko irudia ikusi nahi baduzu, mugitu ezkerrera edo eskuinera, hurrenez hurren.



## Desplazatzea

Desplazamendu-barra duten zerrendetan gora edo behera mugitzeko, arrastatu desplazamendu-barraren kontrol lerratzailea.

Zerrenda-ikuspegi batzuetan, atzamarra edo behatza zerrendako elementu baten gainean jarri eta gora edo behera arrastatuta desplazatu zaitezke.

**Adibidez:** Kontaktuetan desplazatzeko, jarri atzamarra edo arkatza kontaktu baten gainean, eta arrastatu gora edo behera.

**Iradokizuna:** Ikonoen eta botoien deskribapen labur bat ikusteko, jarri atzamarra edo arkatza gainean.

Ez dago deskribapenik eskuragarri ikono eta botoi guztietarako.

## Ukipen-pantailako argia

Ukipen-pantailaren argia desaktibatu egiten da denbora jakin batean jarduerarik gabe egon ondoren. Pantailaren argia aktibatzeko, ukitu.

Ukipen-pantaila eta teklak blokeatuta badaude, pantaila ukitzean argia ez da aktibatuko. Pantaila eta teklak desblokeatzeko, lerratu blokeatzeko etengailua.

## Multimedia-tekla



Zenbait aplikaziotara sartzeko, adibidez, musika-erreproduzitzailea edo nabigatzailea, ukitu multimedia-tekla (). Hala, multimedia-barra irekiko da; ondoren, hautatu aplikazioa.

**Iradokizuna:** Eduki atzamarra edo arkatza ikonoaren gainean aplikazioaren izena ikusteko.

## Dei-seinalea aldatzea

Aukeratu Menua > Ezarpenak eta Pertsonala > Profilak.

Profilak (moduak ere deitzen zaie) erabil ditzakezu dei-seinaleak, mezuez ohartarazteko tonuak eta beste ekitaldiak, inguruak edo dei-egileen taldeak definitzeko eta pertsonalizatzeko. Profil bat pertsonalizatzeko, joan hara eta hautatu **Aukerak** > **Pertsonalizatu**.

## Nokiaren laguntza

Eskuliburu honen azken bertsioa eskuratzeko, informazio osagarria irakurtzeko, deskargak egiteko eta Nokiaren produktuekin lotutako zerbitzuak zein diren jakiteko, ikus www.nokia.com/support edo zure herrialdeko Nokiaren webgunea.

### Konfigurazioa doitzeko zerbitzua

Modelo honetarako konfigurazioko ezarpenak (MMS, GPRS, posta elektronikoa edo beste zerbitzu batzuek) doan deskatgatzeko, ikus www.nokia.com/support gunea.

### Nokia Care zerbitzuak

Nokia Care zerbitzuekin harremanetan jarri nahi izanez gero, kontsultatu Nokiaren harremanetarako zentroen zerrenda www.nokia.com/customerservice gunean.

### Mantentze-lanak

Mantentze-lanetako zerbitzuei dagokienez, ikus Nokia Care-ren zerbitzu-zentrorik hurbilena zein den, www.nokia.com/repair helbidean.

# 2. Laguntza bilatzea

## Laguntza telefonoan

Aplikazioak erabiltzen lagunduko dizuten jarraibideak ditu gailuak.

Menu nagusian laguntza-testuak irekitzeko, hautatu **Menua** > **Laguntza** eta zer aplikaziotan irakurri nahi dituzun jarraibideak.

Aplikazio bat irekita dagoenean, hautatu **Aukerak** > **Laguntza**, ikuspegi horretako laguntza-testura sartzeko.

Jarraibideak irakurtzen ari zarela, laguntza-testuaren neurria aldatu nahi baduzu, hautatu **Aukerak** > **Txikitu letra-tamaina** edo **Handitu letra-tamaina**.

Laguntza-testuaren amaieran, horri lotutako gaien loturak aurki ditzakezu. Azpimarratutako hitz bat hautatzen baduzu, azalpen labur bat agertuko da. Laguntza-testuek adierazle hauek erabiltzen dituzte: ⇥ ikonoa agertzen da lotutako laguntza-gairen baterako lotura badago; ❐ agertzen da aurretik aipatutako aplikazioren baterako lotura bat badago

Jarraibideak irakurtzen ari zarela, laguntza-testuetatik bigarren planoan irekita dagoen aplikaziora joan zaitezke. Horretarako, luze sakatu menuaren tekla, eta hautatu aukera bat irekitako aplikazioen zerrendatik.

## Erabiltzailearen eskuliburu osoa

Erabiltzailearen eskuliburu honen bertsio luzea eskuragarri dago produktuaren laguntza-orrietan, Nokiaren webgunean. Aplikazio edo funtzio batzuk erabiltzailearen eskuliburu osoan soilik azaltzen dira.

## Softwarea eguneratzea

Nokiak softwarea egunera dezake, ezaugarri berriak, funtzio hobeak eta errendimendu hobea izateko. Eguneratze horiek PCrako Nokia Software Updater-erako aplikazioaren bidez eska ditzakezu.

Baliteke softwarearen eguneraketak eskuragarri ez egotea produktu edo aldaera guztietarako. Operadore guztiek ez dituzte onartzen softwarearen azken bertsioak.

Gailuaren softwarea eguneratzeko, nahitaezkoa da Nokia Software Updater aplikazioa eta Microsoft Windows 2000, XP edo Vistarekin bateragarria den PC bat edukitzea, baita banda zabaleko Interneterako sarbidea eta gailua PCra konektatzeko datu-kable bateragarria izatea ere.

**Oharra:** Softwarea eguneratzekoa instalatzen duzunean, ezingo duzu gailua erabili (larrialdi-deiak egiteko ere ez), eguneratzea amaitu eta gailua berrabiarazi arte. Ahaztu gabe, egin datuen segurtasun-kopiak eguneratu aurretik.

Informazio gehiago izateko eta Nokia Software Updater aplikazioa deskargatzeko, ikus www.nokia.com/softwareupdate edo Nokiaren tokiko webgunea.

Zure sareak softwarea aire bidez eguneratzea onartzen badu, telefonoz eskatu ahal izango dituzu eguneratzeak.

Softwarea eguneratzeko deskargan datu-bolumen handia transmiti daiteke zerbitzu-hornitzailearen sarearen bidez. Datu-transmisioen karguei buruzko informazioa izateko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

Egiaztatu gailuko bateria kargatuta dagoela. Bestela, konektatu kargagailua eguneratzen hasi aurretik.

**Iradokizuna:** Zure gailuak zer software-bertsio duen jakiteko, hautatu **Menua** > **Ezarpenak y Telefonoa** > **Telef. kudeaketa** > **Gailu egunerak..**

## Ezarpenak

Normalean, sare-zerbitzuen hornitzailearen informazioaren arabera, gailuek automatikoki konfiguratuak izaten dituzte MMS, GPRS, streaming eta mugikorrerako Interneten doikuntzen funtzioak. Baliteke gailuan doikuntza batzuk zerbitzu-hornitzaileak instalatuak izatea, edo baliteke mezu berezi baten bidez jasotzea edo eskatu behar izatea zerbitzu-hornitzaileari.

## Sarbide-kodeak

Kode horietakoren bat ahaztu bazaizu, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

- PIN kodea (identifikazio-zenbaki pertsonala) – Kode horrek zure SIM txartela babesten du, inork baimenik gabe erabili ez dezan. PIN kodea (4-8 digitu) SIM txartelarekin batera ematen dizute, normalean. Hiru aldiz jarraian PIN kode okerra sartuz gero, kodea blokeatzen da. PUK kodea behar da desblokeatzeko.
- UPIN kodea – Kode hori USIM txartelarekin batera dator. USIM txartela SIM txartelaren bertsio hobetua da. Bateragarria da UMTS telefono mugikorrekin.
- PIN2 kodea – kode hau (4-8 digitukoa) SIM txartel batzuekin ematen dute; gailuaren funtzio batzuk erabiltzeko behar da.
- Blokeatzeko kodea (segurtasun-kodea ere deitua) – Blokeatzeko kodearekin, zure gailua babesten duzu baimenik gabe erabili ez dezaten. Aurrez ezarritako kodea 12345 da. Kodea sortu eta alda dezakezu, eta gailua konfigura dezakezu kodea eska dezan. Gorde kode berria leku sekretu eta seguruan, gailutik urrun. Kodea ahaztu baduzu eta gailua blokeatuta badago, gailuak laguntza beharko du, eta baliteke tarifa gehigarriak ordaindu behar izatea. Jarri harremanetan Nokia Care puntu batekin edo gailuaren banatzailearekin.
- PUK (desblokeatzeko kode pertsonala) eta PUK2 kodeak – kode horiek (8 digitukoak) beharrezkoak dira, hurrenez hurren, PIN edo PIN2 kode blokeatuak aldatzeko. Kodeak SIM txartelarekin eman ez badizkizute, jarri harremanetan SIM txartela eman zizun operadorearekin, kodeak lortzeko.
- UPUK kodea– Kode hau (8 digitukoa) UPIN kode blokeatua aldatzeko behar da. USIM txartelarekin koderik eman ez badizute, jarri harremanetan USIM txartela eman zizun operadorearekin.

## Bateriaren iraupena luzatzea

Gailuaren funtzio askok areagotu egiten dute bateria-kontsumoa, eta, beraz, denbora gutxiago irauten du.

Bateriaren energia aurrezteko, kontuan izan:

- Bluetooth teknologia erabiltzen duten funtzioak edo beste funtzio batzuk erabiltzen diren bitartean bigarren mailan teknologia horiek aktibatzen direnean, bateria gehiago behar izaten da. Desaktibatu Bluetooth teknologia behar ez duzunean.
- Haririk gabeko sare lokala (WLAN) erabiltzen duten funtzioak edo beste funtzio batzuk erabiltzen diren bitartean bigarren mailan teknologia horiek aktibatzen direnean, bateria gehiago behar izaten da. Zure Nokia gailuko WLAN desaktibatu egiten da konektatzen saiatzen ari ez bazara, beste sarbide-puntu batera konektatuta ez bazaude edo sare baten bila bazabiltza. Energia gutxiago kontsumitzeko, gailua konfigura dezakezu bigarren mailako sareak ez bilatzeko edo maiztasun gutxiagorekin bilatzeko.
- Konexio-doikuntzetan **Eskuragarri badago** aukeran **Datu-paketeen konexioa** konfiguratu baduzu eta datu-paketeen estaldurarik (GPRS) ez badago, datu-paketeen konexio bat egiten saiatuko da gailua aldian-aldian. Gailuaren funtzionamendu-denbora luzatzeko, hautatu **Datu-paketeen konexioa** > **Beharrezkoa bada.**
- Mapak aplikazioak mapa berri batzuen informazioa deskartzen du maparen eremu berrietan mugitzean; horrek bateria gehiago eskatzen du. Ezin da galarazi automatikoki mapa berriak deskargatzea.
- Zure inguruan sare zelularraren seinalea oso aldakorra bada, gailuak eskuragarri dagoen sarea bilatu beharko du behin eta berriz. Horrek ere bateria gehiago eskatzen du.

  Sare-doikuntzetan dual gisa jarrita badago sare-modua, gailuak UMTS sarea bilatzen du. Gailua konfigura dezakezu GSM sarea soilik erabiltzeko. GSM sarea soilik erabiltzeko, hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Konektagarritas.** > **Sarea** > **Sare modua** > **GSM.**
- Pantailaren atzeko argia k bateria gehiago eskatzen du. Pantailaren doikuntzetan, atzeko argia itzali aurretik itxaron beharreko denbora alda dezakezu, argiztapen-kondizioak detektatzen dituen argi-sentsorea doitu, eta pantailaren distira ezarri. Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Pantaila** > **Argiaren iraupena** o **Argi-sentsorea.**
- Bigarren planoan dauden aplikazioek ere bateria gehiago eskatzen dute. Erabiltzen ari ez zaren aplikazioak ixteko, luze sakatu Menua tekla, hautatu **Irekitako aplikazioak** eta joan aplikaziora Menua teklarekin. Luze sakatu Menua tekla, eta hautatu **Utzi.**

# Memorian lekua egitea

Datu-motaren arabera zer espazio erabilgarri dagoen ikusteko, hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Fitxat. -kud.**

Beharrezkoak ez diren datuak ezabatzeko, erabili fitxategi-kudeatzailea edo joan dagokion aplikaziora. Hauek ezaba ditzakezu:

- **Mezularitza** ataleko karpetetako mezuak eta postontzitik berreskuratutako mezu elektronikoak

- Gordetako web-orriak
- Kontaktuen informazioa
- Agendako datuak
- Fitxat.-kud. atalean agertzen diren eta dagoeneko behar ez diren aplikazioak
- Instalatu dituzun aplikazioen instalatze-fitxategiak (.sis o .sisx). transferitu instalatze-fitxategiak bateragarria den PC batera.
- **Galeria**-ko irudiak eta bideoklipak. Egin fitxategien segurtasun-kopia bat bateragarria den PC batean, Nokia PC Suite erabilita.

# 3. Zure gailua

## Ongietorria

Gailua lehen aldiz pizten duzunean, ongietorriko aplikazioa irekitzen da.

Geroago ongietorriko aplikaziora sartzeko, hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Ongi etorri.**

Hauta ezazu aukera hauetako bat:

- **Ezarpen lag.** – gailuaren doikuntza bat baino gehiago konfiguratzeko.
- **Transferen.** – Nokia gailu bateragarri batetik edukiak (hala nola kontaktuak eta telefono-aurkibideko sarrerak) transferitzeko.
- **Posta el. konfig.** – posta elektronikoaren doikuntzak konfiguratzeko.

## Edukia transferitzea

Transferentzia-aplikazioa erabil dezakezu aurreko Nokia gailutik oraingora telefono-zenbakiak, helbideak, egutegiko elementuak eta irudiak transferitzeko.

Edukia transferitzeko erabili nahi duzun gailuaren modeloaren araberakoa da transferi daitekeen eduki-mota. Gailua sinkronizazioarekin bateragarria bada, bi gailuen informazioa sinkroniza dezakezu. Gailuak jakinarazi egingo dizu beste gailua bateragarria ez bada.

Beste gailua ezin bada piztu SIM txartelik gabe, zure SIM txartela sar dezakezu. Telefonoa SIM txartelik gabe piztean, automatikoki aktibatzen da lineatik kanpoko modua, eta transferentzia egin daiteke.

### Edukia lehen aldiz transferitzea

1. Gailuaren datuak lehen aldiz berreskuratzeko, hautatu **Transferen.** ongietorriko aplikazioan, edo hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Transferen..**

2. Hautatu zer konexio-mota erabili nahi duzun datuak transferitzeko. Bi gailuek hautatutako konexio-motarekin bateragarriak izan behar dute.
3. Konexio-mota gisa Bluetooth konektagarritasuna hautatzen baduzu, konektatu bi gailuak. Gailuak Bluetooth konexioa duten gailuak bila ditzan, hautatu **Jarraitu**. Hautatu zer gailutatik transferitu nahi duzun edukia. Gailuan kodea sartzeko eskatuko dizu. Idatzi kode bat (1-16 digitu) eta hautatu **Ados**. Idatzi kode berbera beste gailuan eta hautatu **Ados**. Gailuak lotuta daude.

   Baliteke lehenagoko Nokia gailu batzuk ez izatea aldatzeko aplikaziorik. Hala bada, aldatzeko aplikazioa beste gailura bidaltzen da mezu gisa. Beste gailuan aplikazio hori instalatzeko, ireki mezua eta jarraitu pantailako jarraibideei.
4. Gailuan, hautatu beste gailutik transferitu nahi duzun edukia.

   Transferentzia hasi ondoren, ezeztatu eta geroago jarraitu dezakezu.

Edukia beste gailuaren memoriatik transferitzen da, gailuan dagokion kokalekura. Transferitu nahi den datu-kopuruaren araberakoa da transferentziaren iraupena.

# Pantailako adierazleak

Gailua GMS sare batean erabiltzen ari zara (sare-zerbitzua).

3G Gailua UMTS sare batean erabiltzen ari zara (sare-zerbitzua).

Irakurri gabeko mezu bat edo gehiago dituzu **Mezularitza** ataleko **Sarr. erretilua** karpetan.

Urruneko postontzian mezu berri bat jaso duzu.

Mezuak bidaltzeko zain dituzu **Irte. erretilua** karpetan.

Galdutako deiak dituzu.

Dei-tonua isilik moduan dago, eta mezuen abisu-tonuak eta mezu elektronikoen tonuak desaktibatuta daude.

Profil tenporizatu bat aktibatuta dago.

Ukipen-pantaila eta teklak blokeatuta daude.

Alarma bat aktibatuta dago.

2 Bigarren telefono-linea erabiltzen ari da (sare-zerbitzua).

Gailuan jasotako dei guztiak beste zenbaki batera desbideratuko dira (sare-zerbitzua). Bi telefono-linea baldin badituzu, linea aktiboa zein den adierazten du zenbaki batek.

EL eramangarri eta bateragarri bat dago gailura konektatuta.

Telebistako irteera-kable bateragarri bat dago gailura konektatuta.

Testu-telefono bateragarria dago gailura konektatuta.

Datu-dei bat dago aktibatuta (sare-zerbitzua).

Datu-paketeen konexioa (GPRS) aktibatuta dago (sare-zerbitzua). ikurrak konexioa atxikita dagoela esan nahi du eta ikurrak, berriz, konexioa erabil daitekeela.

Datu-paketeen konexio bat aktibatuta dago EGPRS onartzen duen sarearen zati batean (sare-zerbitzua). ikurrak konexioa atxikita dagoela esan nahi du eta ikurrak, berriz, konexioa erabil daitekeela. Ikonoek EGPRS sarean erabilgarri dagoela adierazten dute, baina gailuak ez du zertan EGPRS konexioa erabili datu-transferentzian.

Datu-paketeen konexioa (UMTS) aktibatuta dago (sare-zerbitzua). ikurrak konexioa atxikita dagoela esan nahi du eta ikurrak, berriz, konexioa erabil daitekeela.

HSDPA (High-speed downlink packet access) bateragarria da eta aktibatuta dago (sare-zerbitzua). ikurrak konexioa atxikita dagoela esan nahi du eta ikurrak, berriz, konexioa erabil daitekeela.

Gailua haririk gabeko sare lokala bila dezan konfiguratu duzu, eta haririk gabeko sare lokal bat dago erabilgarri (sare-zerbitzua).

Haririk gabeko sare lokalera konexioa aktibatuta dago enkriptatzea duen sare batean.

Haririk gabeko sare lokalera konexioa aktibatuta dago enkriptatu gabeko sarean.

Bluetooth konexioa aktibatuta dago.

Bluetooth konexioaren bidez datuak transferitzen ari dira. Adierazlea keinuka hasten denean, gailua beste gailu batera konektatzen saiatzen ari dela esan nahi du.

USB konexioa aktibo dago.

Sinkronizatzen ari da.

# Memoria-txartela

Erabili Nokiak gailu honetarako onartutako microSD eta microSDHC txartelak bakarrik. Memoria-txarteletarako sektorean onartutako estandarrak erabiltzen ditu Nokiak; dena den, baliteke marka batzuk gailu honekin erabat bateragarriak ez izatea. Txartel bateraezinek kalte egin diezaiekete txartelari berari edo gailuari, eta horietan gordetako datuak honda ditzakete.

## Memoria-txartela sartzea

Litekeena da dagoeneko memoria-txartel bat sartuta izatea gailuan. Hala ez bada, eman pauso hauek:

1. Ireki memoria-txartelaren zirrikituko tapa.



2. Sartu memoria-txartel bateragarri bat zirrikituan. Ziurtatu kontaktu-eremua gora begira dagoela. Bultza txartela barrurantz. Klik bat entzungo duzu txartela bere tokian sartzen denean.
3. Itxi memoria-txartelaren zirrikituko tapa. Ziurtatu tapa ondo itxita dagoela.







## Memoria-txartela ateratzea

**Garrantzitsua:** Ez atera memoria-txartela hura erabiltzen duen ekintzaren bat egiten ari bazara. Martxan dagoen bitartean txartela ateratzen bada, memoria-txartela, gailua eta txartelean gordetako datuak honda daitezke.

1. Gailua piztuta badago, txartela atera aurretik, pizteko tekla sakatu, eta hautatu **Atera memoria-txartela.**
2. **Memoria-txartela ateratzen baduzu, irekita dauden aplikazio guztiak itxi egingo dira. Kendu?** agertzen denean, sakatu **Bai.** Aplikazio guztiak itxi egingo dira.
3. **Atera memoria-txartela eta sakatu Ados** agertzen denean, ireki memoria-txartelaren zirrikituko tapa.
4. Sakatu memoria-txartela, zirrikitutik askatzeko.
5. Atera memoria-txartela: Gailua piztuta baldin badago, hautatu **Onartu.**

# Bolumenaren eta bozgorailuaren kontrola

**Oharra:** neurrizko bolumenean entzun musika. Irratia etengabe oso ozen izateak entzumena kaltetu dezake. Bozgorailua erabiltzen duzunean, ez jarri telefonoa belarri ondoan, bolumena altuegia izan liteke eta.

Dei bat aktibo duzunean edo soinu bat entzuten ari zarenean bolumena doitzeko, erabili bolumen-tekla.



Bozgorailuarekin distantzia laburretik hitz egin eta entzuteko aukera dago; ez dago gailua belarri ondoan izan beharrik.

Dei batean bozgorailua aktibatzeko, hautatu **Aktibatu bozgor.**.

Bozgorailua desaktibatzeko, hautatu **Aktibatu telefonoa.**

# Laster teklak

Irekita dagoen beste aplikazio batera joateko, luze sakatu menuaren tekla. Aplikazioak exekutatzen ari badira bigarren mailan, bateria gehiago behar izaten da eta iraupena txikitu egiten da.

Web-eko konexio bat abiarazteko (sare-zerbitzua), markatzailean, luze ukitu **0**.

Multimedia-barran eskuragarri dauden aplikazioetara sartzeko (adibidez, musika-erreproduzitzailea edo web-nabigatzailea), sakatu multimedia-tekla edozein ikuspegitan.

Profila aldatzeko, sakatu pizteko tekla eta hautatu profil bat.

Ahots-postontzira deitzeko (sare-zerbitzua), markatzailean, luze sakatu **1**.

Azkena markatutako zenbakien zerrenda irekitzeko, hasierako pantailan, sakatu deitzeko tekla.

Hasierako pantailan ahots-komandoak erabiltzeko, luze sakatu deitzeko tekla.

# Antenen kokalekuak

Litekeena da zure gailuak barneko eta kanpoko antenak edukitzea. Irrati-uhin bidezko beste transmisio-gailu batzuekin gertatzen den bezala, antena seinalea igortzen edo jasotzen ari den bitartean, ez ukitu antena beharrezkoa ez bada. Antena hori ukitzeak komunikazioaren kalitateari eragiten dio; horregatik, litekeena da gailuak behar baino potentzia gehiagorekin funtzionatu behar izatea eta bateriaren iraupena laburtzea.

| | | |
|---|---|---|
|  |  |  |
| Antena zelularra | Bluetooth antena eta haririk gabeko sare lokala | GPS antena |

# Kontaktuen barra

## Kontaktuen barra erabiltzen hastea

Kontaktuen barra erabiltzen hasteko eta hasierako pantailan kontaktuak gehitzeko, hasierako pantailan, hautatu > **Gehitu kontkt. Has. Pantailara** eta jarraitu pausoei.

Hasierako pantailan kontaktuen barraren moduari kontaktu bat gehitzeko, hautatu eta hautatu lehendik dituzun kontaktuetako bat, edo sortu berri bat. Gehitu argazki bat kontaktu-informazioari.

Kontaktuarekin harremanetan jartzeko, hautatu, eta, gero, hautatu aukera hauetako bat:

- – Telefono-dei bat egitea
- – Mezu bat bidaltzea.

- — Kontaktuari dagokion informazioa aldatzea.
- — Kontaktuaren web-informazioak eguneratzea.

Kontaktu batekin izandako komunikazioak ikusteko, hautatu kontaktu bat. Hautatu komunikazio-elementu bat xehetasunak ikusteko.

Ikuspegia ixteko, hautatu ✕.

## Saretik kanpo modua

Lineatik kanpo modua aktibatzeko, labur sakatu pizteko tekla eta hautatu **Lineaz kanpo**.

**Lineaz kanpo** moduarekin gailua erabil daiteke haririk gabeko sarera konektatu gabe. **Lineaz kanpo** modua aktibatzen denean, haririk gabeko sarea desaktibatu egiten da, eta ✕ ikonoa azaltzen da seinalearen intentsitate-adierazlearen eremuan. Gailutik datozen eta gailura iristen diren IM seinale guztiak eragozten dira. Mezuak bidaltzen saiatuz gero, irteerako postontzian geratzen dira, geroago bidaltzeko.

**Lineaz kanpo** modua aktibatuta badago, SIM-txartelik gabe erabil daiteke gailua.

SIM txartela ondo jarrita ez badago, lineatik kanpoko profilean abiatzen da gailua.

**Garrantzitsua:** gailua lineatik kanpo dagoenean, ezin da deirik egin ez jaso, ez sare-estaldura izan behar duten funtzioak erabili ere. Nolanahi ere, larrialdiko deiak egiteko zenbaki ofizialera deitu daiteke. Deiak egiteko, lehenbizi gailuaren funtzioa aktibatu behar duzu, eta, horretarako, profilak aldatu behar dituzu.

Gailua blokeatuta badago, markatu blokeatze-kodea.

**Lineaz kanpo** modua aktibatzen baduzu, haririk gabeko sare lokala erabiltzen segi dezakezu, adibidez, posta elektronikoa irakurtzeko edo Interneten nabigatzeko. Ez ahaztu beharrezkoa dela segurtasun-baldintzak betetzea haririk gabeko sare lokalera konektatzeko eta sarea erabiltzeko. Bestalde, Bluetooth konexioa erabil daiteke **Lineaz kanpo** moduan.

Beste profil batera aldatzeko, sakatu pizteko tekla eta hautatu profil bat. Gailuak haririk gabeko transmisioak aktibatzen ditu (seinalearen intentsitatea nahikoa denean).

## Sentsorearen doikuntzak, eta pantaila biratzea

Gailuaren sentsoreak aktibatzean, zenbait funtzio kontrola ditzakezu gailua biratuta.

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Sentsore-ezarp.**.

Hauta ezazu aukera hauetako bat:

- **Sentsoreak** — Sentsoreak aktibatzeko.
- **Biratze-kontrola** — Hautatu **Deiak isilarazi** eta **Alarma errepikariak** deiak isiltzeko eta alarmak atzeratzeko gailua biratuta, pantaila behera begira dela. Hautatu **Birat. Pantaila autom.** pantailaren edukia automatikoki biratzeko gailua posizio bertikalean duzunean ezkerrean edo eskuinean. Baliteke aplikazio eta funtzio batzuk ez izatea bateragarriak pantailaren edukia biratzearekin.

# Esku libreko kit eramangarria

Esku libreko kit eramangarri bat edo entzungailu bateragarri batzuk konekta daitezke gailura. Litekeena da kablearen modua hautatu behar izatea.

EL eramangarri batzuek bi zati, urrutiko aginteko unitate bat eta entzungailuak dituzte. Urrutiko kontroleko unitateak mikrofono bat eta teklak ditu telefono-deiak erantzuteko, bolumena doitzeko eta musika- edo bideo-fitxategiak erreproduzitzeko. Entzungailuak urrutiko aginteko unitate batekin erabiltzeko, konektatu unitatea Nokiaren AV konektorera, eta, ondoren, konektatu entzungailuak unitatean.

**Oharra:** entzungailuak erabiltzen badituzu, baliteke kanpoko soinuak ongi ez entzutea. Ez erabili entzungailuak arriskutsua den egoeratan.



Ez konektatu irteerako seinalea sortzen duten produktuak, gailuari kalte egin diezaiokete eta. Ez konektatu tentsio-iturririk Nokia AV konektorera.

AV Nokia konektoreari Nokiak onartutakoak ez diren kanpoko gailu bat edo esku libreko kit bat konektatzean, arreta berezia jarri.

# SIM txartela ateratzea




1. Atera goiko karkasa. Horretarako, jaso gailuaren beheko aldetik eutsita.
2. Atera bateria.
3. Ireki SIM txartelaren zirrikituaren tapa. Jarri arkatzaren punta bateriaren azpiko zirrikituan, eta bultzatu SIM txartela alde batera, zirrikitutik kanpora lerratzeko. Atera SIM txartela.
4. Jarri berriro bateria eta atzeko karkasa.



## Eskumuturreko uhala gehitzea

**Iradokizuna:** Elkartu plektro-arkatza gailuarekin, eskumuturreko uhala balitz bezala.



## Urruneko blokeoa

Gailua baimenik gabe ez erabiltzeko, gailua eta memoria-txartela urrutitik blokea ditzakezu, testu-mezu baten bidez.

Definitu testu-mezua. Gailua blokeatzeko, bidali mezu hori gailura. Desblokeatzeko, blokeatzeko kodea behar duzu.

Urrutiko blokeoa gaitzeko eta testu-mezuaren edukia definitzeko, hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Telef. kudeaketa** > **Segurtasuna** > **Telefonoa eta SIM txart.** > **Urruneko tel.-blokeoa** > **Gaituta.** Mezua idazteko (5 eta 20 karaktere artekoa izan behar du), ukitu mezua idazteko eremua, hautatu ✓, eta egiaztatu mezua. Idatzi blokeatzeko kodea.

# 4. Deiak egitea

## Hurbiltasun-sentsorea

Nahi gabe ezer ez hautatzeko, ukipen-pantaila automatikoki desaktibatzen da deietan gailua belarri ondoan jartzen baduzu.

## Ahots-deiak

1. Hasierako pantailan, hautatu ⠿ markatzailea irekitzeko, eta idatzi telefono-zenbakia, eskualdeko kodea barne. Zenbaki bat ezabatzeko, hautatu **C**.

   Nazioarteko deiak egiteko, hautatu * bi aldiz + karakterea markatzeko (nazioarteko sarbide-kodea ordezten du) eta, ondoren, markatu herrialdearen kodea, aurrezenbakia (hasierako zeroa kenduta, dagokionean) eta telefono-zenbakia.
2. Deia egiteko, sakatu deitzeko tekla.
3. Deia amaitzeko (edo dei-saiakera bertan behera uzteko), sakatu amaitzeko tekla.

   Amaitzeko tekla sakatzean, deia amaitu egiten da beti, beste aplikazioren bat aktibo egonda ere.

Kontaktu-zerrendatik dei bat egiteko, hautatu **Menua** > **Kontaktuak**. Joan zaitez nahi duzun izeneraino. Bestela, ukitu bilaketa-eremua izenaren lehen letrak idazteko, eta joan kontaktura. Kontaktuari deitzeko, sakatu deitzeko tekla. Kontaktu baten zenbaki bat baino gehiago gorde badituzu, hautatu nahi duzun zenbakia zerrendatik, eta sakatu deitzeko tekla.

## Hitz egiten ari zaren bitartean

Mikrofonoa aktibatzeko edo desaktibatzeko, hautatu edo.

Deia zain jartzeko edo berriro aktibatzeko, hautatu edo .

Bozgorailua erabiltzen duzunean, ez jarri telefonoa belarri ondoan, bolumena altuegia izan liteke eta. Bozgorailua aktibatzeko, hautatu . Bluetooth konektagarritasunarekin bateragarria den EL eramangarri bat erantsi baduzu soinua EL eramangarrian erreproduzitzeko, hautatu **Aukerak** > **Aktibatu esku libreko BT**.

Telefonora itzultzeko, hautatu . Deia geldiarazteko, hautatu .

Aktibo dauden deietatik zain daudenetara eta alderantziz joateko, hautatu .

**Iradokizuna:** ahots-dei bat bakarrik badago aktibo, hura atxikitzeko, sakatu deitzeko tekla. Deia aktibatzeko, sakatu berriro deitzeko tekla.

DTMF seinale-kateak bidaltzeko (adibidez, pasahitz bat), hautatu **Aukerak** > **Bidali DTMFa**. Sartu DTMF katea edo bilatu kontaktu-zerrendan. Itxaroteko karaktere bat (w) edo etenaldikoa (p) sartzeko, sakatu * behin eta berriro. Seinalea bidaltzeko, aukeratu **Ados**. DTMF seinaleak gehitu ditzakezu telefono-zenbakira edo kontaktu-informazioaren DTMF eremura.

Dei aktibo bat amaitzeko eta zain dagoenari erantzuteko, hautatu **Aukerak** > **Ordezkatu**.

Dei guztiak amaitzeko, hautatu .

Ahots-dei batean erabiltzen dituzun aukeretako asko sare-zerbitzuak dira.

## Ahots-postontzia

Ahots-postontzira deitzeko (sare-zerbitzua), hasierako pantailan, hautatu markatzailea irekitzeko, eta luze sakatu 1 tekla.

1. Ahots- edo bideo-postontziko zenbakia aldatzeko, hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Deitzen** > **Jo postontzira**, postontzi bat eta **Aukerak** > **Aldatu zenbakia**.
2. Idatzi zenbakia (zerbitzu-hornitzaileak emana) eta hautatu **Ados**.

## Deiei erantzutea edo ez onartzea

Dei bati erantzuteko, sakatu deitzeko tekla.

Dei bat jasotzean seinalea isilarazteko, hautatu .

Testu-mezu bat bidal dezakezu deia errefusatu gabe, deitzen ari den pertsonari jakinarazita ezin diozula erantzun. Mezua bidaltzeko, hautatu **Bidali mez.,** editatu mezuaren testua, eta sakatu deitzeko tekla.

Dei bati erantzun nahi ez badiozu, sakatu amaitzeko tekla. **Deien desbid.** > **Ahots-deiak** > **Okupatua badago** funtzioa aktibatzen baduzu telefonoaren doikuntzetan deiak desbideratzeko, sarrerako dei bat errefusatzean ere desbideratu egingo da.

Testu-mezu bat bidal dezakezu deia errefusatu gabe, deitzen ari den pertsonari jakinarazita ezin diozula erantzun. Testu-mezuaren aukera aktibatzeko eta erantzun-mezu estandar bat idazteko, hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Deitzen** > **Deia** > **Ukatu mezudun deiak** eta **Mezuaren testua.**

# Multikonferentzia-dei bat egitea

Gailuak sei solaskideren (zu barne) multikonferentzia-deiak egiteko aukera ematen du.

1. Deitu lehenengo solaskidearen zenbakira.
2. Beste parte-hartzaile bati deitzeko, hautatu **Aukerak** > **Dei berria**. Lehen deia atxikiko da.
3. Dei berriari erantzutean, multikonferentzian lehenbiziko solaskidea sartzeko, hautatu .

   Deiari beste parte-hartzaile bat gehitzeko, deitu beste parte-hartzaile bati, eta gehitu berri hori multikonferentziara.

   Solaskideetako batekin elkarrizketa pribatua izateko, hautatu .

   Joan kontaktura, eta hautatu . Multikonferentzia-deia atxikita geratzen da gailuan. Gainerako solaskideek beren artean hitz egiten segi dezakete.

   Multikonferentziara itzultzeko, hautatu .

   Parte-hartzaile bat kentzeko, hautatu , joan parte-hartzaile horretara, eta hautatu .
4. Multikonferentzia-dei aktiboa amaitzeko, sakatu amaitzeko tekla.

# Markaketa bizkorreko zenbakiak

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Deitzen.**

Funtzioa aktibatzeko, hautatu **Deia** > **Markatze bizkorra.**

1. Zenbaki-tekla bati telefono-zenbaki bat esleitzeko ,hautatu **Markatze bizkorra.**
2. Joan telefono-zenbakia esleitu nahi diozun teklara eta hautatu **Aukerak** > **Esleitu.**

   Ahots-postontziarentzat gordetzen da 1 tekla.

Hasierako pantailatik deitzeko, hautatu  markatzailea irekitzeko, hautatu dagokion tekla, eta sakatu deitzeko tekla.

Markaketa bizkorra aktibatuta dagoela hasierako pantailatik deitzeko, hautatu markatzailea irekitzeko, eta luze sakatu esleitutako zenbaki-tekla.

# Deia zain

Dei bat erantzun dezakezu beste dei bat aktibo izanda ere.

Deia zain funtzioa aktibatzeko (sare-zerbitzua), hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Deitzen** > **Deia** > **Deia zain.**

1. Zain dagoen dei bati erantzuteko, sakatu deitzeko tekla. Lehen deia atxikiko da.
2. Dei batetik bestera joateko, hautatu **Aukerak** > **Aldatu.**
3. Sarrerako dei bat edo zain dagoen dei bat dei aktibo batekin konektatzeko eta bi deietatik deskonektatzeko, hautatu **Aukerak** >**Transferentzia**.
4. Aktibo dagoen deia amaitzeko, sakatu deia amaitzeko tekla.
5. Bi deiak amaitzeko, hautatu **Aukerak** > **Bukatu dei guztiak.**

# Ahots bidezko markaketa

Gailuak ahots-komando hobetuak onartzen ditu. Ahots-komando hobetuak ez dira hitz egiten den pertsonaren ahotsaren araberakoak, alegia, erabiltzaileak ez du grabaziorik egin behar aurrez. Gailuak ahots-grabazio bat sortzen du kontaktuen sarreretarako, eta grabazio bakoitza sarrerarekin konparatzen du. Gailuak ahotsa ezagutzeko duen sistema erabiltzaile nagusiaren ahotsari egokitzen zaio, ahots-komandoak hobeto ezagutzeko.

Kontaktu baten grabazioa kontaktuaren txartelean gordetako izena edo ezizena da. Grabazio artifiziala entzuteko, ireki kontaktu-txartel bat eta hautatu **Aukerak** > **Ahots-etiketaren xehet.**. Joan kontaktuaren informaziora eta hautatu **Aukerak** > **Erreprod. Ahots-etiketa.**

## Dei bat grabazio bidez egitea

**Oharra:** Ahots-identifikatzaileak erabiltzea zaila suerta daiteke inguru zaratatsuetan edo larrialdiko egoera batean. Horregatik, ez fidatu ahots bidezko markaketaz bakarrik kasu guztietarako.

Ahots bidezko markaketa erabiltzean, bozgorailua erabiltzen ari da. Ipini gailua zugandik hurbil, grabatu beharrekoa esatean.

1. Hasierako pantailan ahots bidezko markaketa hasteko, luze sakatu deitzeko tekla. Esku librekoaren tekla duen esku libreko kit eramangarri bateragarria erabiltzen baduzu, luze sakatu tekla hori ahots bidezko markaketari ekiteko.
2. Soinu labur bat erreproduzitzen da eta **Hitz egin orain** oharra agertzen da. Esan argi kontaktuarentzat gordetako izena.
3. Gailuak erreproduzitu egiten du kontaktu ezagunaren grabazio artifiziala, hautatutako gailuaren hizkuntzan, eta izena eta zenbakia bistaratzen ditu. Ahots bidezko markaketa ezeztatzeko, hautatu **Irten.**

Izen bakarrarentzat zenbaki bat baino gehiago gordeta badaude, zenbaki-mota ere esan dezakezu, adibidez, “mugikorra” edo “finkoa”.

# Bideo-dei bat egitea

Bideo-deietan (sare-zerbitzua) bi noranzkoko bideo bat bistaratzen da, denbora errealean, deiaren egilearen eta hartzailearen artean. Bideo-deiaren hartzaileak bideoko zuzeneko irudia edo zure kamerak egindako irudia bistaratzen du.

Bideo-deiak egin ahal izateko, USIM txartela behar da eta UMTS sare baten estaldura-eremuan egon behar da. Eskuragarritasunari, tarifei eta bideo-zerbitzuetako izen-emateei buruzko informazioa eskuratzeko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

Bi alderen artean soilik egin daitezke bideo-deiak, betiere gailu mugikor bateragarriak edo RDSI sareetako bezeroak badira. Bideo-deirik ezin da egin datu-, bideo- edo ahots-deiren bat aktibo badago.

## Ikonoak

Ez da bideoa jasotzen ari (hartzailea ez da ari bideoa bidaltzen edo sarea ez da ari transmititzen).

Ez du onartu gailuak bideoa bidaltzea. Horren ordez irudi finko bat bidaltzeko, hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Deitzen** > **Deia** > **Irudia bideo-deian.**

Bideo-dei batean bideoa bidaltzea onartu ez baduzu ere, bideo-dei gisa fakturatuko da deia. Galdetu tarifen berri zerbitzu-hornitzaileari.

1. Hasierako pantailan, aukeratu markatzailea irekitzeko, eta idatzi telefono-zenbakia.
2. Hautatu **Aukerak** > **Deitu** > **Bideo-deia.**

Bigarren kamera aurreko aldean dago, eta bideo-deietan lehenetsi gisa erabiltzen da. Bideo-dei bat hasteko denbora behar izaten da. Deirik egin ezin baduzu (adibidez, sareak ez duelako onartzen bideo-deirik edo hargailua bateragarria ez delako), galdetuko dizu horren ordez dei normal bat egin nahi duzun edo mezuren bat bidali nahi duzun.

Bideo-deia aktibatuta dagoenean, bi bideo-irudi ikusten dira eta bozgorailutik soinua entzuten da. Baliteke deiaren hartzaileak ez onartzea bideoa bidaltzea ( ikonoarekin adierazten da). Hala bada, hartzailearen ahotsa soilik entzungo duzu, eta irudi finko bat edo pantaila grisa ikusiko duzu.

3. Bideo-deia amaitzeko, sakatu deia amaitzeko tekla.

# Bideo-dei bat egitean

Bideoa bistaratzetik soinua soilik entzutera edo alderantziz aldatzeko, hautatu edo .

Mikrofonoa aktibatzeko edo desaktibatzeko, hautatu edo .

Bozgorailua erabiltzen duzunean, ez jarri telefonoa belarri ondoan, bolumena altuegia izan liteke eta. Bozgorailua aktibatzeko, hautatu . Bluetooth konektagarritasunarekin bateragarria den EL eramangarri bat erantsi baduzu soinua EL eramangarrian erreproduzitzeko, hautatu **Aukerak** > **Aktibatu BT esku librekoa.**

Telefonora itzultzeko, hautatu .

Gailuaren atzeko kamera bideoa bidaltzeko erabiltzeko, hautatu **Aukerak** > **Erabili atzeko kamera.** Gailuaren aurreko kamerara itzultzeko, hautatu **Aukerak** > **Erabili kamera nagusia.**

Bidaltzen ari den bideoaren argazki bat ateratzeko, hautatu **Aukerak** > **Bidali argazkia.** Bideo-bidalketa gelditu egiten da, eta hartzailearen argazkia bistaratzen da. Argazkia ez da gordetzen.

Irudia hurbiltzeko edo urruntzeko, hautatu **Aukerak** > **Zooma.**

Bideoaren kalitatea aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Bide-lehentasuna** > **Kalitate normala, Xehetasun gehiago** edo **Mugimendu arinagoa.**

# Bideo-deiei erantzutea edo ez onartzea

Bideo-dei bat sartzean,  ikonoa agertzen da.

1. Bideo-deiari erantzuteko, sakatu deitzeko tekla.
2. Bideoko irudiak zuzenean bidaltzen hasteko, sakatu **Bai.**

Bideo-deiak aktibatuta ez badituk, hartzailearen ahotsa soilik jasoko duzu. Bideoaren irudiaren ordez pantaila grisa agertzen da. Pantaila grisaren ordez gailuaren kamerarekin ateratako irudi finko bat jartzeko, hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Deitzen** > **Deia** > **Irudia bideo-deian.**

# Bideoak partekatzea

Erabili **Bideoa partekatu** aplikazioa (sare-zerbitzua) zuzeneko bideoa edo bideoklipa bidaltzeko gailu mugikorretik beste gailu bateragarri batera, ahots-dei batean.

Bideoaren erabilera partekatuan, bozgorailua aktibatuta egoten da. Bideoa partekatzen duzun bitartean ahots-deiaren bozgorailua erabili nahi ez baduzu, esku libreko eramangarri bat ere erabil dezakezu.

**Oharra:** neurrizko bolumenean entzun musika. Irratia etengabe oso ozen izateak entzumena kaltetu dezake.

## Bideoa partekatzeko eskakizunak

**Bideoa partekatu** funtzioa erabiltzeko UMTS konexioa behar da. UMTS sarearen eskuragarritasunaren araberakoa da bideoaren erabilera partekatuaren gaitasuna. Jarri zure zerbitzu-hornitzailearekin harremanetan, zerbitzuei, sare-erabilgarritasunari eta aplikazio horren tarifei buruzko informazioa lortzeko.

Bideoaren erabilera partekaturako, egiaztatu hauek:

- Gailua konfiguratuta dago pertsonatik pertsonarako konexioetarako.
- UMTS konexio bat aktibo eta UMTS sare baten estaldurapean duzu. Bideoaren erabilera partekatua erabiltzean UMTS saretik irteten bazara, saioa amaitu egiten da, eta ahots-deiak bere horretan irauten du.

- Bai deitzailea bai hartzailea UMTS sare batean erregistratuta daude. Norbait bideoaren erabilera partekatuko saio batera gonbidatzen baduzu eta hartzailearen gailua UMTS sarearen estalduratik kanpo badago, erabilera partekatuko zerbitzua instalatua ez badu edo pertsonatik pertsonarako konexioak konfiguratuak ez baditu, hartzaileak ez du gonbidapenik jasoko. Errore-mezu bat jasoko duzu adierazteko hartzaileak ezin duela gonbidapena onartu.

## Ezarpenak

Bideoaren erabilera partekatua konfiguratzeko, pertsonatik pertsonarako konexio bat eta UMTS konexioaren konfigurazioa behar dira.

### Pertsonatik pertsonarako konexio-doikuntzak

Pertsonatik pertsonarako konexioei SIP konexioak ere deitzen zaie (Session Initiation Protocol, saio-hasierako protokoloa). SIP moduaren doikuntzak konfiguratu behar dituzu gailuan, bideoaren erabilera partekatua erabiltzeko. Eskatu zure zerbitzu-hornitzaileari SIP moduaren doikuntzak, eta gorde gailuan. Zerbitzu-hornitzaileak doikuntzak edo behar dituzun doikuntzen zerrenda bat bidal diezazuke.

Kontaktu bati SIP helbide bat eransteko:

1. Hautatu **Menua** > **Kontaktuak.**
2. Ireki kontaktua edo sortu berri bat.
3. Hautatu **Aukerak** > **Editatu**.
4. Hautatu **Aukerak** > **Gehitu xehetasuna** > **Partekatu.**
5. Idatzi zure SIP helbidea. Itxura hau eduki behar du: erabiltzailea@domeinua (domeinuaren izena erabili beharrean, IP helbidea erabil dezakezu).

   Kontaktuaren SIP helbidea zein den ez badakizu, hartzailearen telefono-zenbakia erabil dezakezu bideoa partekatzeko (haririk gabeko zerbitzuaren hornitzaileak horretarako aukera ematen badu).

### UTMS konexioaren doikuntzak

UMTS konexio bat konfiguratzeko:

- Jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin, UMTS sarearen erabilera-akordio bat ezartzeko.
- Egiaztatu gailuaren UMTS sarbide-puntuaren konexio-doikuntzak zuzenak direla. Doikuntza-aukerei buruz informazio gehiago lortzeko, galdetu zerbitzu-hornitzaileari.

## Zuzeneko bideoak eta bideoklipak partekatzea

Ahots-dei bat aktibo dagoela, hautatu **Aukerak** > **Partekatu bideoa.**

1. Dei bat egitean zuzenean bideoa partekatzeko, hautatu **Bideoa zuzenean.**

   Bideoklip bat partekatzeko, hautatu **Bideoklipa** eta partekatu nahi duzun bideoklipa.

   Litekeena da bideoklipa beste formatu batera bihurtu behar izatea, partekatu ahal izateko.

Gailuak jakinarazten badizu bideoklipa aldatu egin behar dela, hautatu **Ados.** Bihurketa ondo egiteko, gailuak bideo-editorea eduki behar du.

2. Hartzaileak SIP helbide bat baino gehiago edo herrialdearen kodea duten telefono-zenbaki bat baino baditu Kontaktuetan, hautatu nahi duzun helbidea edo telefonoa. SIP helbidea edo hartzailearen telefono-zenbakia erabilgarri ez badaude, sartu helbidea edo hartzailearen telefono-zenbakia herrialdearen kodearekin, eta hautatu **Ados** informazioa bidaltzeko. SIP helbidera bidaltzen du gonbidapena gailuak.

   Saioa automatikoki hasiko da, hartzaileak gonbita onartzen duenean.

   ### Bideoaren erabilera partekatuaren aukerak

   edo mikrofonoaren soinua aktibatzeko edo desaktibatzeko

   edo , bozgorailua aktibatzeko edo desaktibatzeko

   edo , bideoaren erabilera partekatua gelditzeko eta berriro hasteko

   , pantaila osoko modura itzultzeko (dei-egileak soilik egi dezake)

3. Saio partekatua amaitzeko, hautatu **Gelditu**. Ahots-deia amaitzeko, sakatu deia amaitzeko tekla. Deia amaitzean, bideoaren erabilera partekatua ere amaitu egiten da.

Partekatutako zuzeneko bideoa gordetzeko, hautatu **Bai** hori galdetzean. Gailuak adieraziko dizu bideoa non gorde den.

Bideoklip bat partekatzen ari zarela beste aplikazio batera sartzen bazara, saio partekatua eten egingo da. Bideoa partekatzeko aukerara joan eta partekatzen segitzeko, hasierako pantailan, hautatu **Aukerak** > **Jarraitu.**

## Gonbidapena onartzea

Bideoak partekatzeko gonbidapena bidaltzen dizutenean, gonbidapen-mezua bistaratuko da, eta, horretan, hartzailearen SIP helbidea edo izena ikusiko da. Gailuan **Isilik** aukera hautatu ez baduzu, gailuak jo egingo du gonbidapena jasotzean.

UMTS sarearen estalduraren barruan ez zaudela norbaitek erabilera partekatuko gonbidapen bat bidaltzen badizu, ez duzu jasoko gonbidapen hori.

Gonbidapen bat jasotzean, hautatu aukera hauetako bat:

- **Bai** – gonbidapena onartzeko eta erabilera partekatuko saioa aktibatzeko.
- **Ez** – gonbidapena ez onartzeko. Bidaltzaileak mezu bat jasoko du gonbidapena ez duzula onartu adieraziz. Amaitzeko tekla ere sakatu dezakezu gonbidapena ez onartzeko eta ahots-deia amaitzeko.

Hautatu **Aukerak** eta aukera hauetako bat:

- **Gelditu** – erreproduzitzen ari den bideoklip bat gelditzeko.
- **Jarraitu** – bideokliparen erreprodukzioarekin segitzeko.
- **Isildu** – bideokliparen soinua desaktibatzeko.

Saio partekatua amaitzeko, hautatu **Gelditu**. Ahots-deia amaitzeko, sakatu deia amaitzeko tekla. Deia amaitzean, bideoaren erabilera partekatua ere amaitu egiten da.

## Erregistroa

Erregistroa aplikazioan gordetzen da gailuaren komunikazioen historiaren informazioa. Gailuak dei galduak eta jasoak erregistratzen ditu sareak funtzio horiek onartzen baditu, gailua piztuta badago eta sare-zerbitzuaren eremu barruan badago.

Registro aplikazioa irekitzeko, hautatu **Menua** > **Erregistroa.**

### Azken deiak

Galdutako, jasotako eta markatutako azken ahots-deiak ikusteko, hautatu **Azken deiak**.

Azken deien zerrenda garbitzeko, hautatu **Aukerak** > **Garbitu azken deiak**.

Dei-erregistroetako bat ezabatzeko, ireki ezabatu nahi duzun erregistroa eta hautatu **Aukerak** > **Garbitu zerrenda.**

Ekitaldi bat ezabatzeko, ireki erregistroa, joan ekitaldi horretara, eta hautatu **Aukerak** > **Ezabatu.**

### Azken deien barra

Hautatu **Galdutako deiak, Jasotako deiak** edo **Markatutako zk..**

Tresna-barra aktiboan, hautatu aukera hauetako bat:

- **Deitu —**nahi duzun kontaktuari deitzeko.
- **Sortu mezua** —nahi duzun kontaktuari mezu bat bidaltzeko.
- **Ireki Kontaktuak** — kontaktuen zerrenda irekitzeko.

### Deien iraupena

Jasotako eta bidalitako deien gutxi gorabeherako iraupena ikusteko, hautatu **Deien iraupena.**

**Oharra:** Zerbitzu-hornitzailearen deien eta zerbitzuen benetako faktura aldatu egin daiteke sarearen ezaugarrien, fakturazioen biribiltzeen, zergen eta abarren ondorioz.

### Datu-paketeak

Baliteke datu-paketeen konexioetarako tarifak aplikatzea bidalitako eta jasotako datu-kantitatearen arabera. Datu-paketeen konexioetan bidalitako eta jasotako datu-kantitatea ikusteko, hautatu **Pakete-datuak.**

### Komunikazio-gertakizun guztiak gainbegiratzea

Erregistro orokorra ireki eta gailuan erregistratzen diren ahots-deiak, datu-konexioak edo haririk gabeko sare lokalak gainbegiratzeko, ireki erregistro orokorraren fitxa.

Bigarren mailako gertaerak (adibidez, hainbat zatitan bidalitako testu-mezu bat eta datu-paketeen konexioak) komunikazio-gertaera gisa erregistratzen dira. Postontziko, multimedia-mezuen zentroko edo web-orrietako konexioak datu-paketeen konexio gisa azaltzen dira.

Kontaktuei erregistroko telefono-zenbaki ezezagun bat eransteko, hautatu **Aukerak** > **Kontaktuetan gorde.**

Erregistroko telefono-zenbaki bat arbelean kopiatu eta testu-mezu batean itsasteko, adibidez, hautatu **Aukerak** > **Zenbakia erabili** > **Kopiatu.**

Transferitu diren datuen kantitatea eta pakete jakin batzuen datu-konexioaren iraupena ikusteko, joan sarrerako edo irteerako gertaera batera (**GPRS.** bidez adierazia), eta hautatu **Aukerak** > **Ikusi.**

Erregistroa iragazteko, hautatu **Aukerak** > **Iragazi** eta iragazki bat.

Kontaktuen zerrenda irekitzeko, hautatu **Aukerak** > **Ireki Kontaktuak.**

Erregistroaren iraupena ezartzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Erregistroaren iraupena. Ez dago erregistrorik** hautatzen baduzu, erregistroan ez da gordeko komunikazioen informaziorik.

# 5. Testua idaztea

Hainbat modutara sar ditzakezu letrak, zenbakiak eta karaktere bereziak. Pantailako teklatuekin, atzamarrekin edo arkatzarekin ukituta sar ditzakezu karaktereak. Idazkera ezagutzeko funtzioarekin, karaktereak zuzenean idatz ditzakezu pantailan, arkatza bolaluma gisa erabilita.

Ukitu testua idazteko edozein eremu letrak, zenbakiak eta karaktere bereziak idazteko.

Gailuak hitzak amai ditzake testua sartzeko hautatutako hizkuntzaren hiztegia erabilita. Zuk egindako sarrerekin, hitz berriak ere ikasten ditu gailuak.

## Pantailako teklatua

Teklatua modu bertikalean aktibatzeko, hautatu ▦ eta **QWERTY teklatu txikia.**

Teklatua modu horizontalean aktibatzeko, hautatu ▦ eta **Pantaila osoko QWERTYa.**

Teklatua pantailan modu bertikalean erabiltzen ari zarela, ukitu teklatuaren teklak arkatzarekin. Pantailako teklatua modu horizontalean eta pantaila osoan erabiltzen ari zarela, atzamarrekin uki ditzakezu teklak.

Tekla bakoitzari eta haren funtzioei buruzko azalpena ikusteko, ikus hurrengo irudia.




1 — Itxi: pantailako teklatuaren ikuspegia ixten du.

2 — Idazteko menua: ireki idazteko aukeren menua; komandoen artean, **Idazteko hizkuntza** agertzen da, adibidez.

3 —Pantailako teklatua

4 — Maiuskulen tekla eta maiuskulak blokeatzekoa: pantailako teklatuarekin minuskulaz idazten ari zarela karaktere bat maiuskulaz idazteko aukera ematen du. Idazkera ezagutzeko moduan tekla hori ukitzen baduzu, minuskulaz dagoen azken karakterea maiuskula bihurtzen da, eta alderantziz. Maiuskulak blokeatzea aktibatzeko, ukitu tekla bi aldiz. Tekla azpimarratua agertuko da.

5 — Zenbakiak eta sinboloak: pantailaren teklatuan zenbakiak, karaktere berezi erabilienak eta karaktere alfabetikoak jartzeko.

6 — Azentu-markak: leiho bat bistaratzen da, hizkuntzaren azentu-markak hauta ditzazun.

7 — Zuriune-barra: zuriune bat egiten du.

8 — Intro: mugitu kurtsorea hurrengo lerrora edo testua idazteko eremura. Funtzio gehigarriak testuinguruan oinarritzen dira (adibidez, web-nabigatzailearen helbidearen eremuak Joan botoiaren funtzio bera du).

9 — Mugitu: ukipen bidezko sarreraren leihoa mugitzen du. Arrastatu tekla ukipen bidezko sarreraren leihoa pantailan mugitzeko.

10 — Atzera: azkena sartutako karakterea ezabatzen du.

11 —Testua idazteko modua: leiho bat irekitzen da, testua idazteko moduetako bat hauta dezazun. Elementu bat ukitzen baduzu, testua idazteko uneko modua itxi egiten da, eta hautatutako metodoaren ikuspegia ireki.

## Idaztea

Idazteko modua aktibatzeko, ukitu eta **Eskuizkribua.**

Arkatza bolaluma gisa erabil dezakezu, eta paperean ari bazina bezala idatzi. Idatzi testua irakurtzeko moduan, karaktere argiekin, testua idazteko eremuan, eta utzi tartea karaktereen artean.

Gailuari zure idazteko modua erakusteko, ukitu eta **Eskuzko idazketa.**

Letrak eta zenbakiak sartzeko (modu estandarra) idatzi hitzak normalean idatziko zenituzkeen bezala. Zenbaki-modua hautatzeko, ukitu idazteko eremuaren eskuineko panelean. Latindarrak ez diren karaktereak sartzeko, ukitu dagokion ikonoa, eskuragarri badago.




Karaktere bereziak idazteko, idatzi normalean egingo zenukeen bezala. ere uki dezakezu idazteko eremuaren eskuineko panelean, eta, gero, bistaratutako taulan hautatu nahi duzun karakterea.

Karaktereak ezabatzeko edo kurtsorea atzerantz mugitzeko, lerratu atzerantz (ikus 1. irudia). Zuriune bat uzteko, lerratu aurrerantz (ikus 2. irudia).




# Teklatu alfanumerikoa

## Ikonoak eta funtzioak

Erabili pantailako teklatua **(Teklatu alfanumerikoa)** edo sartu karaktereak tekletan zenbakiak dituen betiko telefono-teklatu batekin egingo zenukeen moduan. Ikono bakoitzari eta haren funtzioei buruzko azalpena ikusteko, ikus hurrengo irudia.




1 – Itxi: itxi pantailako teklatua **(Teklatu alfanumerikoa)**.

2 – Idazteko menua: ireki ukipen bidez idazteko menua; **Idazteko hizkuntza** eta **Testu iragarlea** komandoak ditu, besteak beste.

3 – Testua idazteko aukeraren adierazlea: leiho bat irekitzen da, testu prediktiboak idazteko moduak aktiba eta desaktiba ditzazun, maiuskuletatik minuskuletara eta alderantziz joan zaitezen, eta zenbakien eta letren moduen artean alda dezazun.

4 –Testua idazteko modua: leiho bat irekitzen da, testua idazteko moduetako bat hauta dezazun.

Elementu bat ukitzen baduzu, testua idazteko uneko modua itxi egiten da, eta hautatutako metodoaren ikuspegia ireki.

5 — Gezi-teklak: kurtsorea ezkerrera edo eskuinera mugitzeko.

6 — Atzera: azkena sartutako karakterea ezabatzen du.

7 — Zenbaki-teklak: idatzi nahi dituzun zenbakiak edo karaktereak hautatutako sarrera-moduaren arabera eta maiuskulaz edo minuskulaz, hautatu duzunaren arabera.

8 — Izartxoa: karaktere berezien taula irekitzen du.

9 — Maius: maiuskuletatik minuskuletara igarotzen da, testua idazteko modu prediktiboak aktibatzen edo desaktibatzen ditu, eta zenbaki-modutik letrenera eta alderantziz joaten da.

## Ohiko testu-sarrera

Sakatu zenbaki-tekla bat (1-9) behin eta berriro, nahi dugun karakterea agertu arte. Agertzen direnak baino karaktere gehiago daude eskuragarri zenbaki-tekla bakoitzean.

Hurrengo letra tekla bertan badago; itxaron kurtsorea agertu arte (edo mugitu kurtsorea aurrera itxaroteko denbora amaitzeko) eta idatzi letra.

Tarte bat sartzeko, sakatu **0**. Kurtsorea hurrengo lerrora mugitzeko, sakatu **0** hiru aldiz.

## Testu prediktiboarekin idaztea

Testu prediktiboa erabilita, letra bat sar dezakezu, tekla bakarra behin ukituta. Testu prediktiboa idazteko sistema gailuak duen hiztegi batean oinarrituta dago, eta hiztegi horretara hitz gehiago sar daitezke.

1. Gailuaren editore guztietan testu prediktiboa aktibatzeko, ukitu eta hautatu **Aktibatu aurresatea** edo arin ukitu # bi aldiz. Bestela, ukitu eta **Iragarpen testua aktib.** hauta dezakezu.
2. Hitza idazteko, ukitu 2 - 9 teklak. Behin bakarrik ukitu tekla bakoitza letra bakoitzerako. Adibidez, ingeles-hiztegia aktibatuta dugula 'Nokia' idazteko, sakatu **6** 'N' idazteko, **6** 'o' idazteko, **5** 'k' idazteko, **4** 'i' idazteko, eta **2** 'a' idazteko.

   Tekla bat ukitzean, proposatutako hitza aldatu egiten da.
3. Hitza zuzen dagoenean, mugitu kurtsorea eskuinera baieztatzeko, edo ukitu **0** zuriune bat gehitzeko.

   Hitza zuzena ez bada, sakatu * behin baino gehiagotan, sartutakoarekin bat egiten duten hiztegiko hitzak banan-banan ikusteko.

   Hitzaren ondoren ? zeinua agertzen bada, idatzitako hitza ez dago hiztegian. Hitz hori hiztegian sartzeko, sakatu **Idatzi**, idatzi hitza (testua idazteko ohiko modua erabilita) eta sakatu **Ados**. Hitz hori hiztegian gehituko da. Hiztegia beteta dagoenean, hitz berria zaharrenaren ordez sartuko da.
4. Hasi hurrengo hitza idazten.

## Testu-modu batetik bestera joatea

Gailuaren editore guztietan testu prediktiboa desaktibatzeko, ukitu eta hautatu **Desaktibatu aurresatea** edo arin ukitu # bi aldiz.

Bestela, ☰ ukitu eta **Testu iragarlea** > **Desaktibatu** hauta dezakezu.

## Ukipen bidez idazteko doikuntzak

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Ukipen-sarrera.**

Ukipen-pantailan testua idazteko doikuntzak konfiguratzeko, hautatu aukera hauetako bat:

- **Eskuizkribu-prestakuntza** – Eskuizkribu-prestakuntza aplikazioa irekitzeko. Praktikatu gailuarekin zure idazkera hobeto ezagut dezan. Aukera hori ez dago erabilgarri hizkuntza guztietan.
- **Idazteko hizkuntza**– Zure idazkeraren hizkuntzaren karaktere zehatzak eta teklatuaren pantailako diseinua definitzeko.
- **Idazte-abiadura** – Idazkera ezagutzeko abiadura doitzeko.
- **Gidalerroa**– Idazteko eremuan erreferentzia-lerroa bistaratzeko edo ezkutatzeko. Erreferentzia-lerroak zuzen idazten laguntzen dizu. Gailuari idazkera ezagutzen ere laguntzen dio.
- **Arkatz-lorratz. zabalera**– Arkatzez idatzitako testuaren lodiera aldatzeko.
- **Idazteko kolorea**– Arkatzez idatzitako testuaren kolorea aldatzeko.

# 6. Kontaktuak (telefono-aurkibidea)

Zure kontaktuen informazioa –hala nola telefono-zenbakiak, helbide postalak edo helbide elektronikoak– gorde eta egunera ditzakezu. Horrez gain, dei-seinale pertsonalak eta irudi txikiak eslei diezazkiekezu kontaktuei, edo kontaktu-taldeak sor ditzakezu, testu-mezuak edo mezu elektronikoak bidaltzeko hartzaile bati baino gehiagori aldi berean.

Hasierako pantailan kontaktu-zerrenda irekitzeko, hautatu .

## Izenak eta zenbakiak gorde eta editatzea

1. Kontaktu-zerrendari kontaktu bat gehitzeko, hautatu **Aukerak** > **Kontaktu berria.**
2. Ukitu eremu bat dagokion informazioa sartzeko. Testu-sarrera ixteko, hautatu ✓. Bete nahi dituzun eremuak, eta sakatu **Eginda**.

Kontaktuak editatzeko, hautatu bat, eta **Aukerak** > **Editatu.**

## Kontaktuen tresna-barra

Kontaktu-zerrendaren tresna-barran, hautatu aukera hauetako bat:

- **Deitu** –nahi duzun kontaktuari deitzeko.
- **Sortu mezua** –nahi duzun kontaktuari mezu bat bidaltzeko.

- **Kontaktu berria** – kontaktu berri bat sortzeko.

## Izenak eta zenbakiak kudeatzea

Kontaktu bat kopiatzeko edo ezabatzeko edo kontaktu bat bisita-txartel gisa beste gailu batera bidaltzeko, luze sakatu kontaktua, eta hautatu **Kopiatu, Ezabatu** edo **Bidali bisita-txart..**

Kontaktu bat baino gehiago aldi berean ezabatzeko, hautatu **Aukerak** > **Markatu/Kendu marka**, markatu nahi dituzun kontaktuak, eta hautatu **Aukerak** > **Ezabatu.**

Kontaktu bati esleitutako grabazioa entzuteko, hautatu kontaktua eta **Aukerak** > **Ahots-etiketaren xehet.** > **Aukerak** > **Erreprod. ahots-etiketa.**

## Aurrez zehaztutako zenbakiak eta helbideak

Aurrez zehaztutako zenbakiak edo helbideak eslei diezazkiokezu kontaktu bati. Kontaktu batek zenbaki edo helbide bat baino gehiago baditu, erraza da zenbaki edo helbide jakin batera deitzea edo mezuak bidaltzea. Ahots-komandoetan ere erabiltzen da aurrez zehaztutako zenbakia.

1. Kontaktu-zerrendan, hautatu kontaktua.
2. Hautatu **Aukerak** > **Lehenetsiak.**
3. Aukeratu zenbakiari edo helbideari esleitu nahi diozun balio lehenetsia eta sakatu **Esleitu.**
4. Hautatu balio lehenetsi gisa konfiguratu nahi duzun zenbakia edo helbidea.

Zenbaki edo helbide lehenetsiak azpimarratuta azaltzen dira kontaktuaren ikuspegian.

## Kontaktuen deietarako seinaleak, irudiak eta testuak

Dei-tonu bat, irudi bat edo dei-testu bat defini dezakezu kontaktu edo talde batentzat. Kontaktuak deitzen dizunean, gailuak hautatutako tonua erreproduzitzen du, eta testua edo irudia bistaratzen du (baldin eta dei-egilearen telefono-zenbakia deiarekin batera bidaltzen bada eta gailuak ezagutzen badu).

Kontaktu bati dei-seinale bat definitzeko, hautatu kontaktua eta **Aukerak** > **Dei tonua.** eta aukeratu nahi den dei-seinalea.

Talde bati dei-seinale bat definitzeko, hautatu kontaktua eta **Aukerak** > **Dei tonua**, eta aukeratu nahi den dei-seinalea.

Kontaktu bati dei-testua definitzeko, hautatu kontaktua, eta, ondoren, **Aukera** > **Gehitu testua dei-tonuari.** Ukitu testuaren idazteko eremua, eta hautatu ✓.

Gailuaren memorian gordetako kontaktu bati irudi bat gehitzeko, hautatu kontaktua, **Aukerak** > **Gehitu irudia** eta Galeriako irudi bat.

Dei-seinalea ezabatzeko, hautatu **Lehenetsitako tonua** dei-seinaleen zerrendan.

Irudi baten irudia ikusteko, aldatzeko edo kentzeko, hautatu kontaktua eta **Aukerak** > **Irudia** > **Ikusi, Aldatu** edo **Ezabatu.**

# Kontaktuak kopiatzea

Lehen aldiz kontaktuen zerrenda irekitzean, SIM txarteleko izenak eta zenbakiak gailura kopiatu nahi dituzun galdetuko dizu gailuak.

Kopia egiten hasteko, hautatu **Ados.**

SIM txartelaren kontaktuak gailuan kopiatu nahi ez badituzu, hautatu **Utzi.** SIM txarteleko kontaktuak kontaktu-direktorioan ikusi nahi dituzun galdetuko dizu gailuak. Kontaktuak ikusteko, hautatu **Ados.** Kontaktu-zerrenda irekitzen da, eta SIM txartelaren kontaktuak  ikonoarekin adierazten dira.

# SIM zerbitzuak

SIM txartelaren zerbitzuen erabilgarritasunari eta informazioari buruzko zehaztasun gehiago izateko, jarri harremanetan zure SIM txartelaren banatzailearekin. Zerbitzu-hornitzailea edo beste banatzaileren bat izan daiteke.

## SIM txarteleko kontaktuak

Kontaktu-zerrendan agertuko diren SIM txarteleko izenak eta zenbakiak definitzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Erakutsiko diren kontak.** > **SIM memoria.** SIM txartelaren kontaktuak gehitu edo aldatu edo deiak egin ditzakezu.

Kontaktu-zerrendan gordetze dituzun zenbakiak ez dira automatikoki gordetzen SIM txartelean. SIM txartelean zenbakiak gordetzeko, hautatu kontaktu bat eta **Aukerak** > **Kopiatu** > **SIM memoria.**

Kontaktu berriak gailuan edo SIM txartelean gorde nahi dituzun hautatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Lehenetsitako memoria** > **Telefonoaren memo.** edo **SIM memoria.**

## Markaketa finkoa

Telefono-zenbaki jakin batzuetarako deiak murritz ditzakezu. Markaketa finkoko zenbakien zerrenda irekitzeko, hautatu **Aukerak** > **SIM zenbakiak** > **Markatz. fink. kontak.**. Zure SIM txartelarekin bateragarria bada soilik agertzen da aukera hori. PIN2 kodea behar duzu, zenbakien markaketa finkoa aktibatzeko eta desaktibatzeko edo markaketa finkoko kontaktuak editatzeko.

Markaketa bizkorra aktibatuta egon arren, deitu daiteke telefonoan programatutako larrialdi-zenbaki ofizialera.

Markaketa finkoa aktibatzeko edo desaktibatzeko, hautatu **Aukerak** > **Aktibatu markatze finkoa** edo **Desaktibatu markatze finkoa** eta idatzi PIN2 kodea.

Markaketa finkoko zerrendan zenbaki berriak gehitzeko, hautatu **Aukerak** > **SIMeko kontaktu berria** edo **Aukerak** > **Gehitu kontaktuetatik.**

**Markatze finkoa** aukera erabiltzen duzunean, ezin dira datu-paketeen konexioak egin, testu-mezuak datu-paketeen konexio bidez bidaltzeko izan ezik.

Horretarako, mezuaren zenbaki nagusia eta hartzailearen telefono-zenbakia sartu behar dituzu markaketa finkoko zerrendan.

# 7. Mezuak

Funtzio bateragarriak dituzten gailuek bakarrik jaso eta bistara ditzakete multimedia-mezuak. Mezuek itxura desberdina izaten dute hartzailearen gailuaren arabera.

## Mezularitzaren ikuspegi nagusia

Hautatu **Menua** > **Mezularitza** *(*sare-zerbitzua*)*. Mezu bat sortzeko, hautatu **Mezu berria**.

**Iradokizuna***:* Sarri bidaltzen dituzun mezuak berriro idazten ibili beharrik ez izateko, erabili **Nire karpetak**-eko **Txantiloiak** karpetako testuak. Txantiloiak sortu eta gorde ditzakezu.

**Mezularitza** aukerak karpeta hauek ditu*:*

- **Sarr. erretilua** – jasotako mezuak gordetzen dira, mezu elektronikoak eta sare zelularrari buruzko informazioa dutenak izan ezik.
- **Nire karpetak** – mezuak karpetetan antolatzeko.
- **Postontzia** – aukerarekin urruneko postontzira konekta zaitezke postako mezu berriak berreskuratzeko edo aurreko aldietan berreskuratutakoak ikusteko, konexiorik gabe zauden bitartean.
- **Zirriborroak** – karpeta honetan oraindik bidali ez diren mezuen zirriborroak gordetzen dira.
- **Bidalitakoak** – Hemen gordetzen dira azkena bidalitako mezuak, Bluetooth konektagarritasunarekin erabili direnak izan ezik. Karpeta horretan gordetzen den mezu-kopurua alda dezakezu.
- **Irte. erretilua** – Bidaltzeko zain dauden mezuak irteerako postontzian biltegiratzen dira aldi baterako, adibidez, gailua sare-estalduratik kanpo badago.
- **Hartu-agiriak** – bidalitako testu-mezuak eta multimedia-mezuak entregatu izanaren txostena bidaltzeko eska diezaiokezu sareari *(*sare zerbitzua*)*.

## Mezuak idatzi eta bidaltzea

Hautatu **Menua** > **Mezularitza**.

**Garrantzitsua***:* Kontuz ireki mezuak. Mezuek software maltzurrak izan ditzakete edo telefonoa edo PCa honda dezakete.

Multimedia-mezu bat sortu edo mezu elektroniko bat idatzi ahal izateko, konexio-doikuntza zuzenak izan behar dira definituta.

Haririk gabeko sareak MMSen mezuen tamaina muga dezake. Sartutako irudiak muga gainditzen badu, litekeena da gailuak haren tamaina txikitzea, MMS bidez bidali ahal izateko.

Galdetu zure zerbitzu-hornitzaileari mezu elektronikoek zer neurri-muga duten. Posta-zerbitzariaren muga gainditzen duen mezu elektroniko bat bidaltzen saiatzen bazara, mezua irteerako postontzian gelditzen da, eta gailua noizean behin bidaltzen saiatzen da. Mezu elektronikoak bidaltzeko datu-konexioa behar da; beraz, behin eta berriz mezua bidaltzen saiatuz gero, zerbitzu-hornitzaileak fakturatu egin dezake. Irte. erretilua karpetan, mezua ezabatu edo Zirriborroak karpetara eraman dezakezu.

1. Mezua bidaltzeko, aukeratu **Mezu berria**.

Soinu-mezu bat edo mezu elektroniko bat bidaltzeko, hautatu **Aukerak** > **Sortu mezua** eta aukera egokia.

2. Kontaktu-zerrendatik hartzaileak edo taldeak aukeratzeko, hautatu **Para.** Zenbakia edo helbidea eskuz sartzeko, ukitu **Nori** eremua.
3. **Gaia** eremuan, sartu mezu elektronikoaren gaia. Ikus daitezkeen eremuak aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Mezuaren goiburuak.**
4. Mezua idazteko, ukitu mezuaren eremua.
5. Mezu bati objektu bat gehitzeko, hautatu 📎+ eta eduki-mota egokia.

   Mezu-mota aldatu egin daiteke, eta multimedia-mezu bihurtu, sartutako edukiaren arabera.
6. Multimedia-mezu baterako argazki bat ateratzean edo bideo bat edo soinu-klip bat grabatzean, hautatu **Aukerak** > **Sartu edukia** eta **Irudi berria, Bideoklip berria** edo **Soinu-klip berria.**
7. Fitxategi bat mezu elektroniko batean eransteko, hautatu **Aukerak** > **Txertatu** eta erantsi nahi duzun fitxategia. Postan erantsitako fitxategien adierazlea 📎 da.
8. Mezua bidaltzeko, hautatu ✉ edo sakatu deitzeko tekla.

Zure telefonoak karaktere-kopuruaren muga gainditzen duten testu-mezuak bidaltzeko aukera ematen du. Mezu luzeagoak bi mezutan edo gehiagotan bidaltzen dira. Kasu horietan, zerbitzu-hornitzailearen araberakoa da ordainketa. Azentua duten karaktereek, zeinu batzuek edo hizkuntza batzuetako karaktereek leku gehiago okupatzen dute, eta, beraz, mezu bakar batean bidal daitekeen karaktere-kopurua mugatu egiten dute.

Ezin dituzu bideoklipak bidali baldin eta MP4 fitxategi-formatuan gordeta badaude edo haririk gabeko sareak multimedia-mezuetarako onartzen duen gehienezko neurria gainditzen badute.

# Mezuen sarrerako postontzia

## Mezuak jasotzea

Hautatu **Menua** > **Mezularitza** eta **Sarr. erretilua.**

Sarr. erretilua karpetan, ✉ ikurrak adierazten du testu-mezu bat irakurri gabe dagoela; ✉ ikurrak, berriz, multimedia-mezu bat irakurri gabe dagoela; ✉ ikurrak, audio-mezu bat irakurri gabe dagoela; ⓑ ikurrak, Bluetooth konexio baten bidez jasotako datuak daudela.

Mezu bat jasotzean, eta **1 mezu berri** agertzen dira hasierako pantailan. Mezua irekitzeko, sakatu **Erakutsi**. Sarrerako erretiluko mezu bat irekitzeko, hautatu mezua. Berreskuratutako mezuari erantzuteko, hautatu **Aukerak** > **Erantzun.**

## Multimedia-mezuak

**Garrantzitsua:** kontuz ireki mezuak. Mezuek software maltzurrak izan ditzakete edo telefonoa edo PCa honda dezakete.

Baliteke jasotzea multimedia-mezu bat jaso duzula eta multimedia-mezuen zentroan zain dagoela jakinarazten dizun oharra. Datu-paketeen konexio bat hasieratzeko eta mezua gailura ekartzeko, hautatu **Aukerak** > **Berreskuratu.**

Multimedia-mezu bat irekitzean ( ), baliteke irudi bat eta mezu bat ikustea. ikonoa bistaratzen da mezuak soinua badu, eta bideoa badu. Soinua edo bideoa erreproduzitzeko, hautatu dagokion adierazlea.

Mezuko multimedia-objektuak ikusteko, hautatu **Aukerak** > **Objektuak.**

Mezuan multimedia-mezua badago, ikonoa bistaratzen da. Aurkezpena erreproduzitzeko, hautatu adierazlea.

## Web-zerbitzuen datuak, doikuntzak eta mezuak

Gailuan datuak dituzten mezu-mota ugari jaso daitezke, adibidez, bisita-txartelak, dei-seinaleak, operadorearen logotipoak, egutegiko sarrerak eta posta elektronikoaren jakinarazpenak. Baliteke doikuntzak zerbitzu-hornitzaileak bidaltzea konfigurazio-mezu gisa.

Mezuaren datuak gordetzeko, hautatu **Aukerak** eta dagokion aukera.

Web-zerbitzuen mezuak jakinarazpenak dira (esate baterako, berri-tituluak), eta testu-mezu bat edo esteka bat izan ditzakete. Erabilgarritasunari eta harpidetzari buruzko informaziorik nahi baduzu, jar zaitez harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

# Postontzia

## Posta elektronikoaren doikuntzak definitzea

Hautatu **Menua** > **Mezularitza** > **Postontzia.**

Posta elektronikoa erabiltzeko, Interneteko sarbide (IAP) baliozko bat izan behar duzu, eta postako doikuntzak behar bezala definitu behar dituzu.

Postako kontu bat izan behar duzu. Bete urruneko postontziak eta Interneteko zerbitzu-hornitzaileak (ISP) emandako jarraibideak.

**Mezularitza** > **Postontzia** hautatu baduzu eta posta elektronikoko kontua konfiguratu gabe baduzu, konfiguratzeko eskatuko dizu. Postontziko gidarekin posta elektronikoko doikuntzak sortzeko, hautatu **Hasi.**

Postako postontzi berri bat sortzen baduzu, hari esleitzen diozun izenak **Postontzia** ordezkatuko du automatikoki **Mezularitza** ikuspegi nagusian. Sei ontzi izan ditzakezu.

## Postontzia irekitzea

Hautatu **Menua** > **Mezularitza** eta postontzi bat.

Postontzia irekitzean, konektatu nahi duzun galdetuko dizu gailuak.

Postontzia konektatzeko eta mezuen goiburukoak berreskuratzeko, hautatu **Bai.** Mezuak linean ikustean, urrutiko postontzi batera konektatua zaude datu-konexio baten bidez.

Konektatu gabe berreskuratu diren mezuak ikusteko, hautatu **Ez**.

Mezu elektroniko berri bat sortzeko, hautatu **Aukerak** > **Sortu mezua** > **Mezu elektronikoa.**

## Mezu elektronikoak berreskuratzea

Hautatu **Menua** > **Mezularitza** eta postontzi bat.

Konektatu gabe bazaude, hautatu **Aukerak** > **Konektatu** urruneko postontziarekin konektatzen hasteko.

**Garrantzitsua:** kontuz ireki mezuak. Mezuek software maltzurrak izan ditzakete edo telefonoa edo PCa honda dezakete.

1. Urrutiko postontzi batekin konexioa irekita baduzu, hautatu **Aukerak** > **Berreskuratu posta** > **Berriak** mezu berri guztiak berreskuratzeko, **Hautatuak** hautatutako mezuak soilik berreskuratzeko, edo Guztiak postontziko mezu guztiak berreskuratzeko.

   Mezuak berreskuratzeko prozesua geldiarazteko, hautatu **Utzi.**
2. Konexioa amaitzeko eta mezuak orria lineaz kanpo ikusteko, hautatu **Aukerak** > **Deskonektatu**.
3. Mezu elektroniko bat irekitzeko, hautatu mezua. Berreskuratu ez bada ez konektatu gabe bazaude, mezua postontzitik berreskuratu nahi duzun galdetuko dizu.

Postako fitxategi erantsiak ikusteko, ireki mezua eta hautatu fitxategi erantsiaren eremua, ikurrarekin adierazia. Atxikitako fitxategia gailuan berreskuratu ez bada; hautatu **Aukerak** > **Berreskuratu**.

Mezuak automatikoki berreskuratzeko, hautatu **Aukerak** > **Postaren ezarpenak** > **Berreskuratze auto.**

Gailua mezu elektronikoak automatikoki berreskuratzeko konfiguratzen baduzu, baliteke datu-bolumen handiak transmititzea zerbitzu-hornitzailearen sarearen bidez. Datu-transmisioen karguei buruzko informazioa izateko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

## Posta elektronikoko mezuak ezabatzea

Hautatu **Menua** > **Mezularitza** eta postontzi bat.

Mezu elektroniko baten edukia gailutik ezabatzeko baina urruneko postontzian gordeta izateko, hautatu **Aukerak** > **Ezabatu** > **Telefonoa soilik**

Urrutiko postontziaren mezu elektronikoen goiburukoak bistaratzen ditu gailuak. Mezu baten edukia ezabatu arren, goiburukoa gailuan gelditzen da. Goiburukoa ere ezabatu nahi baduzu, mezua gailutik eta urrutiko postontzitik ezabatzean, zerbitzarira konektatua egon behar duzu. Bestela, gailua egoera eguneratzeko postontzira konektatzean ezabatuko da goiburukoa.

Mezu elektronikoak gailutik eta urruneko zerbitzaritik ezabatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezabatu** > **Telefonoa eta zerbitzaria.**

Hurrengo konexioan gailutik eta zerbitzaritik ezabatzeko markatu den mezu bat ez ezabatzeko (), hautatu **Aukerak** > **Berrezarri.**

### Postontzitik deskonektatzea

Urruneko postontziarekin datu-konexioa amaitzeko, hautatu **Aukerak** > **Deskonektatu**.

## Mezuak SIM txartel batean ikustea

Hautatu **Menua** > **Mezularitza** eta **Aukerak** > **SIM mezuak**.

SIM mezuak ikusteko, gailuko karpeta batean kopiatu behar dituzu.

1. Mezuak markatzeko, hautatu **Aukerak** > **Markatu / Kendu marka** > **Markatu** edo **Markatu guztiak.**
2. Hautatu **Aukerak** > **Kopiatu.** Karpeta-zerrenda bat irekitzen da.
3. Kopia egiten hasteko, hautatu karpeta bat. Mezuak ikusteko, ireki karpeta bat.

## Sare zelularrari buruzko informazio-mezuak

Hautatu **Menua** > **Mezularitza** eta **Aukerak** > **Informazio-zerbitzua.**

Sare zelularrari buruzko informazioarekin (sare-zerbitzua) hainbat gairi buruzko mezuak jaso ditzakezu zerbitzu-hornitzailetik, hala nola eguraldiari edo zirkulazioari buruzko informazioa. Eskuragarri dauden gaiei buruz informazio gehiago lortzeko, galdetu zerbitzu-hornitzaileari.

Sare zelularrari buruzko informazioa ezin da idatzi UMTS sareetan. Datu-paketeen konexioek zelularen informazio-mezuak jasotzea eragotz diezazukete.

## Zerbitzu-komandoak

Hautatu **Menua** > **Mezularitza** eta **Aukerak** > **Zerbitzu-komandoak**.

Zerbitzu-komandoekin (sare-zerbitzua), zerbitzu-eskaerak sartu eta bidal ditzakezu (USSD komandoak ere deitzen zaie), adibidez, sare-zerbitzuak aktibatzeko komandoak, zerbitzu-hornitzailera.

# Mezuen konfigurazioa

Baliteke doikuntzak konfiguratuak egotea gailuan, edo mezu bidez jasotzea. Doikuntzak eskuz sartzean, bete **Nahitaez zehaztu** edo izartxoa duten eremu guztiak.

Litekeena da zerbitzu-hornitzaileak mezu-zentro edo gailuko sarbide-puntu batzuk edo guztiak aurrez definitzea, eta, agian, zuk ezin dituzu aldatu, sortu, editatu edo ezabatu.

## Testu-mezuen doikuntzak

Hautatu **Menua** > **Mezularitza** eta **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Testu mezua.**

Hauta ezazu aukera hauetako bat:

- **Mezu zentroak** — definitutako testu-mezuen zentro guztien zerrenda ikusteko.
- **Erabil. ari den mezu zent.** — hautatu mezu-zentro bat testu-mezuak entregatzeko.
- **Karaktere kodeketa** — karaktereak beste kodetze-sistema batera bihurtzeko, erabilgarri badago, hautatu **Euskarri mugatua.**
- **Txostena jaso** — hautatu sareak mezuak entregatu izanaren txostenak bidaltzea nahi duzun (sare-zerbitzua).
- **Mezuaren balioduntasuna** — hautatu zenbat denborara bidali behar duen berriro mezua mezu-zentroak, lehen saiakeran ongi bidali ez bada (sare-zerbitzua). Balio-epean mezua bidali ezin bada, mezu-zentrotik ezabatu egingo da.
- **Mez. Formatu hon. bidalia** — Mezu-zentroak testu-mezuak beste formatu batzuetara bihurtu ditzakeen jakiteko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.
- **Konexiorik gogokoena** — hautatu erabili nahi duzun konexioa.
- **Erantzun zentro beretik** — Hautatu erantzuteko mezua testu-mezuen zentroaren zenbaki berbera erabiliz bidaltzea nahi duzun (sare-zerbitzua).

## Multimedia-mezuen doikuntzak

Hautatu **Menua** > **Mezularitza** eta **Aukerak** > **Aukerak** > **Multimedia mezua.**

Hauta ezazu aukera hauetako bat:

- **Irudiaren neurria** — multimedia-mezuetako irudi-tamaina definitzeko.
- **MMS sortze-modua** — **Gidatua** aukera hautatzen baduzu, gailuak jakinarazi egingo dizu gailu hartzailearekin bateragarria den mezuren bat bidaltzen saiatzen bazara. **Murriztua** aukera hautatzen baduzu, gailuak ez dizu utziko onartzen ez diren mezuak bidaltzen. Jakinarazpenik gabeko mezuetako edukia sartzeko, hautatu **Librea.**
- **Punto de acceso en uso** — konexio gogokoen gisa zer sarbide erabili hautatzeko.
- **Multimedia berreskuratz.** — Adierazi mezuak nola jaso nahi dituzun. Sare propioan mezuak automatikoki jasotzeko, hautatu **Autom. etxeko sarean.**

Sare propiotik kanpo, mezu bat jaso duzula eta multimedia-mezuen zentrotik berreskura dezakezula jakinarazten dizun oharra jasoko duzu. **Automatikoa beti** hautatzen baduzu, datu-paketeen konexio bat egingo du gailuak, mezua sare lokalean zein sare propiotik kanpo berreskuratzeko.

- **Onartu izengab. mezuak** – Igorle ezezagunen mezuak jaso nahi dituzun hautatzeko.
- **Publizitatea jaso** – Publizitateko multimedia-mezuak jaso nahi dituzun hautatzeko.
- **Jaso txostenak** – bidalitako mezuaren egoera erregistroan bistaratzea nahi duzun hautatzeko (sare-zerbitzua).
- **Ukatu txosten-bidalketa** – zure gailuak jasotako mezuen har-agiriak bidaltzerik nahi ez duzula adierazteko.
- **Mezuaren balioduntasuna** –hautatu zenbat denborara bidali behar duen berriro mezua mezu-zentroak, lehen saiakeran ongi bidali ez bada (sare-zerbitzua). Denbora-tarte horretan mezua bidali ezin bada, mezu-zentrotik ezabatu egingo da.

## Posta elektronikoaren ezarpenak

### Postontziak kudeatzea

Hautatu **Menua** > **Mezularitza** eta **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Mezu elektronikoa.**

Mezu elektronikoak bidaltzeko eta jasotzeko erabili nahi duzun postontzia hautatzeko, hautatu **Erabilitako postontzia** eta postontzi bat.

Postontzi bat eta gailuan dauden postontzi horretako mezuak ezabatzeko, hautatu **Postontziak,** ukitu ezabatu nahi duzun postontzia (hautatu gabe badago), eta hautatu **Aukerak** > **Ezabatu.**

Postontzi bat sortzeko, hautatu **Postontziak** > **Aukerak** > **Postontzi berria.** Postontzi berriaren izena jarriko da Postontziaren ordez, **Mezularitza** aukeraren ikuspegi nagusian. Sei ontzi izan ditzakezu.

Hautatu **Postontzia** eta postontzi bat konexio-doikuntzak, erabiltzaile-doikuntzak, berreskuratze-doikuntzak eta berreskuratze automatikoko doikuntzak aldatzeko.

## Berehalako mezularitza

Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **IM.**

Berehalako mezularitzarekin (BM) (sare-zerbitzua) berehalako mezuak erabiltzen dituzten beste pertsonekin gai jakinei buruz hitz egiteko eta elkarrizketa-foroetara sartzeko aukera dago. Hainbat zerbitzu-hornitzailek dituzte BM zerbitzari bateragarriak; BM zerbitzu batean erregistratu ondoren, saioa hasi dezakezu zerbitzu horietan. Baliteke funtzioekin duen bateragarritasuna aldatzea zerbitzu-hornitzailearen arabera.

Berehalako mezularitza erabili aurretik, konfigurazioa gorde behar duzu erabili nahi duzun zerbitzura sartzerako. Konfigurazioa aurrez konfiguratua egon daiteke gailuan, edo BM zerbitzua eskaintzen duen zerbitzu-hornitzailearen konfigurazio-mezu gisa jaso dezakezu. Doikuntzak eskuz ere sar ditzakezu.

# 8. Gailua pertsonalizatzea

Gailua pertsonalizatzeko, aldatu hasierako pantaila, tonuak edo gaiak.

## Gailuaren itxura aldatzea

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Pertsonala** > **Gaiak**.

Gaiak erabil ditzakezu pantailaren itxura aldatzeko, adibidez, menu nagusiaren atzealdearen diseinua aldatzeko.

Gailuaren aplikazio guztietarako erabilitako gaia aldatzeko, hautatu **Orokorra.** Aktibatu aurretik gai baten aurrebista ikusteko, joan gai horretara eta itxaron segundo batzuez. Gaia aktibatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarri.** Gai aktiboak ✓ ikurra du.

Menu nagusiaren antolamendua aldatzeko, hautatu **Menua.**

Hasierako pantailaren itxura aldatzeko, hautatu **Hasierako pant. gaia.**

Hasierako pantailaren atzealdean horma-papera edo etengabe aldatzen diren irudien diapositiba-aurkezpen bat edukitzeko, hautatu **Horma-papera** > **Irudia** edo **Diapositiba aurkezp.**

Dei bat jasotzean hasierako pantailan bistaratzen den irudia aldatzeko, hautatu **Dei-irudia.**

## Profilak

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Pertsonala** > **Profilak**.

Profilak (moduak ere deitzen zaie) erabil ditzakezu dei-seinaleak, mezuez ohartarazteko tonuak eta beste ekitaldiak, inguruak edo dei-egileen taldeak definitzeko eta pertsonalizatzeko. Hautatutako profilaren izena hasierako pantailaren goialdean bistaratzen da. Orokorra profila erabiliz gero, data soilik bistaratzen da.

Profil bat aldatzeko, joan hara eta hautatu **Aukerak** > **Aktibatu.**

Profil bat pertsonalizatzeko, joan hara eta hautatu **Aukerak** > **Pertsonalizatu.** Hautatu zein doikuntza aldatu nahi duzun.

Hurrengo 24 orduetan denbora-tarte jakin batean profil bat aktibo egon dadin, joan profil horretara, hautatu **Aukerak** > **Tenporizatua** eta definitu denbora. Ezarritako denbora igarotzean, aurretik aktibo zegoen konfiguraziora itzultzen da profila. Profilak tenporizadorea badu, 🕒 agertzen da hasierako pantailan. Lineatik kanpoko profilari ezin zaio tenporizadorea jarri.

Profil berri bat sortzeko, hautatu **Aukerak** > **Sortu berria.**

# 9. Musika karpeta

## Musika-erreproduzitzailea

**Oharra:** neurrizko bolumenean entzun musika. Irratia etengabe oso ozen izateak entzumena kaltetu dezake. Bozgorailua erabiltzen duzunean, ez jarri telefonoa belarri ondoan, bolumena altuegia izan liteke eta.

Musika-erreproduzitzaileak AAC, AAC+, eAAC+, MP3 eta WMA fitxategi-formatuak onartzen ditu. Musika-erreproduzitzaileak ez ditu nahitaez fitxategi-formatuen ezaugarri guztiak edo aldaera guztiak onartu behar.

Podcast-atalak entzuteko ere erabil dezakezu musika-erreproduzitzailea. Podcastak RSS edo Atom teknologien bidez soinu- edo bideo-edukia Internet bidez banatzeko metodoak dira, gero mugikorretan eta ordenagailuetan erreproduzitzeko.

Beste gailu bateragarri batzuetatik musika transferi dezakezu zure gailura.

## Abesti bat edo podcast bat erreproduzitzea

Musika-erreproduzitzailea irekitzeko, hautatu **Menua** > **Musika** > **Mus.-jogail.**.

Baliteke musika- eta podcast-liburutegia eguneratu behar izatea gailuan abestiak eta podcastak eguneratu ahal izateko. Eskuragarri dauden elementu guztiak liburutegira gehitzeko, hautatu **Aukerak** > **Freskatu liburutegia**.

Abesti bat edo podcast bat erreproduzitzeko:

1. Hautatu entzun nahi duzun abestian edo podcastean nabigatzeko kategoriak.
2. Elementu bat erreproduzitzeko, hautatu zerrendatik.

Erreprodukzioa eteteko, ukitu eta, ondoren, sakatu berriro.

Azkar aurrera egiteko edo atzera egiteko, luze ukitu edo .




Hurrengo elementura joateko, ukitu . Elementuaren hasierara itzultzeko, ukitu . Aurreko elementura jauzi egiteko, ukitu 2 segundoz, abestia edo podcasta hasten denetik.

Ausazko ordenan erreproduzitzeko aukera aktibatzeko edo desaktibatzeko ( ), hautatu **Aukerak** > **Ausazko erreprodukzioa**.

Entzuten ari zaren abestia berriro entzuteko ( ) edo elementu guztiak berriro entzuteko ( ), edo errepikatzeko aukera desaktibatzeko, hautatu **Aukerak** > **Errepikatu**.

Podcastak erreproduzitzen ari bazara, ausazko eta errepikatzeko moduak automatikoki desaktibatuko dira.

Bolumena doitzeko, sakatu bolumen-tekla.

Musika erreproduzitzeko tonua aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ekualizadorea.**

Balantze eta irudi estereoa aldatzeko edo grabeak sendotzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak.**

Hasierako pantailara itzultzeko eta erreproduzitzailea bigarren mailan uzteko, sakatu amaitzeko tekla.

Erreproduzitzailea ixteko, hautatu **Aukerak** > **Irten.**

# ZERRENDAK

Hautatu **Menua** > **Musika** > **Mus.-jogail.** eta **Erreprod.-zerrendak**.

Erreprodukzio-zerrenden xehetasunak ikusteko, hautatu **Aukerak** > **Zerrendaren xehetasuna.**

## Erreprodukzio-zerrenda bat sortzea

1. Hautatu **Aukerak** > **Errepr.-zerr. berria.**
2. Idatzi erreprodukzio-zerrendarentzako izen bat, eta sakatu **Ados**.
3. Abestiak unean bertan gehitzeko, hautatu **Bai**, geroago gehitzeko, hautatu **Ez**.
4. **Bai** hautatuz gero, hautatu abeslariak erreprodukzio-zerrendan sartu nahi dituzun abestiak hautatzeko. Hautatu **Gehitu** elementuak gehitzeko.

   Artista baten izenburuaren azpian abesti-zerrenda bistaratzeko, hautatu **Hedatu.** Abesti-zerrenda ezkutatzeko, hautatu **Konpr.**
5. Zure abestiak hautatu dituzunean, sakatu **Eginda.**

   Memoria-txartel bateragarri bat sartuta badago, erreprodukzio-zerrenda txartel horretan gordetzen da.

Erreprodukzio-zerrenda irekita dagoela, beste une batean abesti gehiago sartzeko, hautatu **Aukerak** > **Gehitu abestiak.**

Musika menuaren ikuspegi desberdinetatik, abestiak, bildumak, abeslariak, generoak edo konpositoreak erreprodukzio-zerrenda batean sartzeko, hautatu elementuak eta **Aukerak** > **Gehitu erreprod. zerrendari**> **Gordetako erreprod. zerrenda** edo **Erreprod. zerrenda berria.**

Erreprodukzio-zerrenda batetik abesti bat ezabatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezabatu.** Abestia zerrendatik ezabatzeak ez du esan nahi gailutik ere ezabatu denik, erreprodukzio-zerrendatik bakarrik kentzen da.

Erreprodukzio-zerrenda bateko abestiak berriro antolatzeko, joan mugitu nahi duzun abestira, eta hautatu **Aukerak** > **Berrantolatu errepr. zerr..** Abesti bat “hartu” eta beste leku batean askatzeko, hautatu nahi duzun abestia, eta ukitu **Kokatu.** Erreprodukzio-zerrenda berriro antolatzen amaitzeko, hautatu **Eginda.**

## Podcast-ak

Hautatu **Menua** > **Musika** > **Mus.-jogail.** eta **Podcastak.**

Podcasten menuan agertzen dira gailuan eskuragarri dauden podcastak.

Podcast-eko atalek hiru egoera dituzte: inoiz erreproduzitu ez dena, zati bat erreproduzitu dena eta osorik erreproduzitu dena. Zati baten zati bat erreproduzitu bada, hurrengo erreprodukzioan gelditutako leku berean hasten da. Zati bat inoiz erreproduzitu ez bada, edo osorik erreproduzitu bada, hasieratik hasten da.

## Ordenagailu batetik musika transferitzea

Musika transferitzeko, metodo hauek erabil ditzakezu:

- Zure gailua mota guztietako datu-fitxategiak transferi ditzakeen memoria masiboko gailu gisa ikusteko PC batean

  konekta ezazu USB kable bateragarri batekin edo erabili Bluetooth konexioa. USB kablea erabili behar baduzu, hautatu **Almacenam. masivo** konexio-modu gisa. Gailuarekin bateragarria den memoria-txartel bat sartu bat da.
- Windows Media-ren erreproduzitzailearekin musika sinkronizatzeko, konektatu USB datu-kable bateragarria eta hautatu **Multimedia transfer.** konexio-modu gisa. Gailuarekin bateragarria den memoria-txartel bat sartu bat da.

USBra konektatzeko modu lehenetsia aldatzeko, hautatu **Menua** > **Ezarpenak,** eta **Konektagarritas.** > **USB** > **USB konexio-modua.**

# Nokia musika-denda

Hautatu **Menua** > **Musika** > **Mus. denda.**

Nokia musika-dendan (sare-zerbitzua), musika bila, azter eta eros dezakezu, gailuan deskargatzeko. Musika erosteko, lehenik zerbitzuan erregistratu behar duzu.

Gailuan Interneterako baliozko sarbide bat eduki behar duzu Nokiaren musika-dendara sartzeko.

Nokiaren musika-denda ez dago eskuragarri herrialde edo eskualde guztietan.

## Nokiaren musika-dendaren doikuntzak

Nokiaren musika-dendako doikuntzen erabilgarritasuna eta itxura aldatu egin daitezke. Litekeena da doikuntzak lehenetsita edukitzea edo aldatzeko aukerarik ez izatea. Baliteke Nokiaren musika-dendarekin konektatzeko erabiliko duzun sarbide-puntua hautatu behar izatea. Hautatu **Lehenetsitako sarbidea.**

Nokiaren musika-dendaren doikuntzak editatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak.**

# Nokia Podcasting

Nokia Podcasting aplikazioarekin (sare-zerbitzua), podcast-ak aire bidez bilatu, aurkitu, harpidetu eta deskargatu ditzakezu eta zure gailuarekin audio-podcast-ak erreproduzitu eta kudeatu eta partekatu ditzakezu.

# Podcast-en doikuntzak

Nokia Podcasting irekitzeko, hautatu **Menua** > **Musika** > **Podcasting.**

Nokia Podcasting erabiltzeko, konexio- eta descarga-ezarpenak konfiguratu behar dira.

WLAN konexio-metodoa gomendatzen da. Galdetu zerbitzu-hornitzaileari zerbitzuaren kondizioei eta tarifei buruz beste konexio-metodoren bat erabili aurretik. Adibidez, tarifa finkoko datu-plan batekin, datu-transferentzia handiak egin daitezke hilean tarifa bat ordainduta.

## Konexioaren doikuntzak

Konexio-doikuntzak editatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Konexioa** eta aukera hauetako bat:

- **Lehenetsitako sargunea.** — Interneteko konexioa definitzeko sarbide-puntua hautatzeko.
- **Bilatu URL zerbitzaria** —bilaketetan erabiliko den podcast-en bilaketa-zerbitzuaren URLa definitzeko.

## Deskargatzeko doikuntzak

Deskarga-doikuntzak editatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Deskargatu** eta aukera hauetako bat:

- **Hemen gorde** — Definitu zer kokapenetan gorde nahi dituzun podcast-ak.
- **Eguneratzeen tartea** — Definitu podcast-ak eguneratzeko maiztasuna.
- **Hurrengo eguner. ordua.** — Definitu hurrengo eguneraketa automatikoaren data.
- **Hurrengo eguner. ordua.** — Definitu hurrengo eguneraketa automatikoaren ordua.

  Eguneraketa automatikoak aurrez zehaztutako sarbide bat hautatu bada eta Nokia Podcasting martxan badago soilik erreproduzituko dira. Nokia Podcasting martxan ez badago, eguneraketa automatikoak ez dira aktibatuko.
- **Deskarga-muga (%)** — podcast-en deskargetarako erabiliko den memoria-portzentajea definitzeko.
- **Muga gainditzuz gero** — Definitu zer gertatuko den deskargek deskarga-muga gainditzen badute.

Podcast-ak automatikoki berreskuratzeko aplikazioaren konfigurazioa dela eta, baliteke datu-kantitate handiak transmititzea zure zerbitzu-hornitzailearen saretik. Datu-transmisioen karguei buruzko informazioa izateko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

Aurrez zehaztutako doikuntzak berrezartzeko, hautatu **Aukerak** > **Berrez. Lehenets.** doikuntzen ikuspegian.

# Deskargak

Podcast batean harpidetu ondoren, direktorioetatik, bilaketa eginda edo URL helbide bat idatzita, **Podcastak**-en zatiak kudeatu, deskargatu eta erreproduzitu ditzakezu.

Zer podcast-etan harpidetu zaren ikusteko, hautatu **Podcasting** > **Podcastak**.

Atalen banakako izenburuak ikusteko (podcast baten multimedia-fitxategi zehatz bat da atal bat), hautatu podcast-aren izenburua.

Atal bat deskargatzen hasteko, hautatu atalaren izenburua. Hautatutako edo markatutako atalak deskargatzeko edo deskargatzen jarraitzeko, hautatu **Deskargatu.** Hainbat atal deskarga ditzakezu aldi berean.

Deskarga batean edo zati bat deskargatu ondoren podcast baten zati bat erreproduzitzeko, hautatu podcast-a eta **Aukerak** > **Erreproduzitu lagina.**

Erabat deskargatutako podcast-ak **Podcastak** karpetan daude, baina ez dira bistaratzen liburutegia eguneratu arte.

# Irratia

## Irratia entzutea

Hautatu **Menua** > **Musika** > **Irratia**.

FM irratiari dagokion antena ez da haririk gabeko gailuaren antena berbera. FM irratiak ongi funtziona dezan, gailuarekin bat datorren gehigarri bat edo entzungailu bateragarriak konektatu behar zaizkio.

Aplikazioa lehen aldiz irekitzean, tokiko kateak automatikoki sintonizatzeko defini dezakezu.

Hurrengo edo aurreko katea entzuteko, hautatu ⏭ edo ⏮.

Irratia isilarazteko, hautatu 🔇.

Hautatu **Aukerak** eta aukera hauetako bat:

- **Kateak** – gordetako kateak ikusteko.
- **Sintonizatu kateak** – irrati-kateak bilatzeko.
- **Gorde** – katea gordetzeko.
- **Aktibatu bozgorailua** o **Desaktibatu bozgorailua** – bozgorailua aktibatzeko edo desaktibatzeko.
- **Frekuentz. alternatiboak** – hautatu frekuentzia-maila jaistean irratiak automatikoki RDS frekuentzia hobea bila dezan nahi baduzu.
- **Erreproduzitu atzeald.** – hasierako pantailara itzultzeko, irratia atzealdean erreproduzitzen ari den bitartean..

## Irrati-kateak kudeatzea

Hautatu **Menua** > **Musika** > **Irratia**.

Gordetako kateak entzuteko, hautatu **Aukerak** > **Kateak** eta hautatu zerrendako kate bat.

Kate bat ezabatzeko edo izena aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Kateak** > **Aukerak** > **Ezabatu** edo **Berrizendatu.**

Nahi duzun frekuentzia eskuz definitzeko, hautatu **Aukerak** > **Sintonizatu kateak** > **Aukerak** > **Eskuzko sintonizazioa.**

# 10. Galeria

Irudiak, bideoklipak, soinuklipak eta streaming-estekak gordetzeko eta antolatzeko, hautatu **Menua** > **Galeria**.

**Iradokizuna:** Irudien eta bideoklipen ikuspegira bizkor sartzeko, sakatu multimedia-tekla ( ), multimedia-barra irekitzeko, eta, ondoren, hautatu .

## Fitxategiak ikustea eta antolatzea

Hautatu **Menua** > **Galeria** eta aukera hauetako bat:

- **Irudiak, bideoak** — irudiak bideo-zentroan, argazkien eta irudien bisorean, ikusteko.
- **Abestiak** — musika-erreproduzitzailea irekitzeko.
- **Soinu klipak** —soinuklipak entzuteko.
- **Beste multi. fitx.** — aurkezpenak ikusteko.

Karpetak ustiatu, ireki eta sor ditzakezu, baita karpetatako elementuak markatu, kopiatu eta mugitu ere.

Memoria-txartel bateragarrian (sartuta badago) gordetako fitxategiek ikurra dute.

Fitxategi bat irekitzeko, hautatu fitxategia zerrendan. .ram luzapena duten bideoklipak eta fitxategiak bideoen zentroan irekitzen eta erreproduzitzen dira; musika eta soinuklipak, berriz, musika-erreproduzitzailean.

Fitxategiak memoria-txartel batean (sartu bada) edo gailuko memorian kopiatzeko edo txartelera edo memoriara eramateko, hautatu fitxategi bat eta **Aukerak** > **Antolatu** > **Kopiatu** edo **Mugitu** eta aukeretako bat.

## Argazkiak eta bideoak ikustea

Hautatu **Menua** > **Galeria** eta **Irudiak, bideoak**.

Irudiak, bideoklipak eta karpetak begizta batean bistaratzen dira, eta orduaren eta dataren arabera ordenatzen dira. Fitxategiak banan-banan aztertzeko, lerratu ezkerrera edo eskuinera. Fitxategiak taldeka aztertzeko, joan gora edo behera.

Fitxategi bat irekitzeko, hautatu fitxategia zerrendan. Irudiak handitzeko edo txikitzeko, erabili gailuko bolumen-tekla.

Hautatu **Aukerak** eta aukera hauetako bat:

- **Editatu** — Bideoklip bat edo irudi bat editatzeko.
- **Erabili fitxategia** — Irudi bat hasierako pantailako horma-irudi gisa erabiltzeko, hautatu **Ezarri horm.-pa. gisa**.

  Argazki bat dei orokorren irudi gisa jarri nahi izanez gero, hautatu **Ezarri dei-irudi gisa**.

  Irudi bat kontaktu baten deien irudi gisa ezartzeko, hautatu **Esleitu kontaktuari**.

Bideoklip bat dei-seinale gisa ezartzeko, hautatu **Dei-seinale gisa.**

Bideoklip bat kontaktu baten dei-seinale gisa ezartzeko, hautatu **Esleitu kontaktuari.**

Irudiekin, bideoklipekin eta karpetekin gehien erabiltzen diren funtzioak hautatzen lagunduko dizu tresna-barrak.

Tresna-barran, hautatu aukera hauetako bat:

- **Bidali** – Hautatutako irudia edo bideoklipa bidaltzeko.
- **Editatu** – Hautatutako irudia edo bideoklipa editatzeko.
- **Ezabatu** – Hautatutako irudia edo bideoklipa ezabatzeko.

## Irudiak eta bideoklipak antolatzea

Hautatu **Menua** > **Galeria** eta **Irudiak, bideoak** > **Aukerak** eta aukera hauetako bat:

- **Karpeta-aukerak** – Fitxategiak eta karpetak mugitzeko, hautatu **Mugitu karpetara.** Karpeta berri bat sortzeko, hautatu **Karpeta berria**.
- **Antolatu** – Fitxategiak karpetetan kopiatzeko, hautatu **Kopiatu.** Fitxategiak eta karpetak mugitzeko, hautatu **Mugitu.**
- **Ikusi honela** – Fitxategiak dataren, izenburuaren edo neurriaren arabera ikusteko.

## Telebistaren irteera-modua

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak.**

Ateratako irudiak eta bideoklipak telebista bateragarri batean ikusteko, erabili Nokiaren bideo-irteerako kable bat.

Argazkiak eta bideoklipak telebistan ikusi aurretik, baliteke telebistaren irteerako ezarpenak konfiguratu behar izatea, formatu-ratioari eta telebista-sistemari dagozkionak ezartzeko. Hautatu **Telefonoa** > **Osagarriak** > **TB-irteera.**

TBren irteera-modu gisa jarriz gero, ezin duzu telebista erabili kamerako bisore gisa.

Irudiak eta bideoklipak telebista batean ikusteko, egin hau:

1. Konektatu bideo-irteerako kable bat telebista bateragarri baten bideo-sarreran.
2. Konektatu kablearen beste aldea Nokiaren AV konektorera.
3. Litekeena da kablearen modua hautatu behar izatea.
4. Hautatu **Menua** > **Galeria** eta bilatu ikusi nahi duzun fitxategia.



Irudiak irudien bisorean bistaratuko dira, eta bideoklipak RealPlayer-en erreproduzituko dira.

Bideoaren irteerako kablea gailura konektatuta dagoenean, audio guztia (deiak barne), bideoklipen soinu estereoa, teklen tonuak eta dei-seinaleak telebistan erreproduzitzen dira.

Gailuko mikrofonoa beti bezala erabil daiteke.

Irekitako irudia telebistaren pantaila osoan bistaratuko da. Miniaturazko irudi bat irekitzen bada telebistan ikusten denean, zoomaren aukera ez da erabilgarri egongo.

Nabarmendutako bideoklip bat irekitzen bada, **RealPlayer** aplikazioa erreproduzitzen hasiko da gailuaren pantailan eta telebistan.

Zure irudiak diapositiba-aurkezpen gisa ikus ditzakezu telebistan. Bilduman edo argazkien artean markatutako elementu guztia telebistan ikusten dira, pantaila osoan.

Telebistako irudiaren kalitatea aldatu egin daiteke, gailuaren bereizmenaren arabera.

Haririk gabeko irratiaren seinaleek (esate baterako, jasotako deiek) interferentziak sor ditzakete telebistaren irudian.

# 11. Kamera

Nokia 5800 XpressMusic-ek bi kamera ditu: bata, kamera nagusia, bereizmen handikoa, gailuaren atzeko aldean, eta bestea, bereizmen txikiagokoa, aurreko aldean. Bi kamerak erabil daitezke argazkiak ateratzeko eta bideoak grabatzeko.

Zure telefonoak 2048 x 1536 pixeleko argazkiak ateratzeko bereizmena du. Irudiaren bereizmena aldatu egin daiteke gidaren arabera.

## Kamera aktibatzea

Kamera aktibatzeko, sakatu argazkiak ateratzeko tekla.

Bigarren kamera aktibatzeko, aktibatu kamera nagusia eta hautatu **Aukerak** > **Erabili bigarren mailako kamera.**

## Argazkiak ateratzea

### Irudi finkoak ateratzeko pantailako adierazleak eta kontrolak.

Irudi finkoen bisorean, hauek azaltzen dira:




1 — Argazkia ateratzeko moduaren adierazlea

2 — Zoomaren kontrol lerragarria. Zoomaren kontrol lerragarria aktibatzeko eta desaktibatzeko, ukitu pantaila.

3 – Argazkiak ateratzeko moduaren ikonoa. Ukitu ikonoa, argazkiak ateratzeko.

4 – Flash modua. Ukitu, ezarpenak aldatzeko.

5 – Argazkiak ateratzeko moduaren ezarpenak. Ukitu, ezarpenak aldatzeko.

6 – Bateriaren karga-mailaren adierazlea

7 – Irudiaren bereizmenaren adierazlea

8 – Irudien kontagailua (irudiaren kalitateari lotuta hautatutako ezarpenak eta hautatutako memorian libre dagoen tokiaren arabera atera daitekeen argazki-kopurua, gutxi gorabehera).

9 – Erabiltzen ari den memoria. Gailuaren konfigurazioaren arabera, aukera hauek daude: gailuaren memoria ( ), memoria-txartela ( ) edo memoria masiboa ( ).

10 – GPS seinalearen adierazlea

## Argazkiak ateratzeko eta bideoak grabatzeko ezarpenak

Argazkiak atera aurretik edo bideoa grabatu aurretik, argazkiak ateratzeko eta grabazioak egiteko ezarpenak ikusteko, hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Kamera** eta .

Argazkiak ateratzeko eta bideoak grabatzeko ezarpenen ikuspegiak erraztu egiten du elementuetarako eta ezarpenetarako sarbidea, argazkiak egin aurretik edo bideoklipak grabatzen hasi aurretik.

Kamera ixten denean, hasierako ezarpenak berrezartzen dira.

Hauta ezazu aukera hauetako bat: A – Eszena bat aukeratzeko.

 edo  Bideoaren modutik argazkien modura aldatzeko, eta alderantziz.

 edo  Bisorearen koadroa bistaratzeko edo ezkutatzeko (irudien kasuan baino ez).

 – Tenporizadorea aktibatzeko (irudien kasuan baino ez).

 – Galeria irekitzeko.

Irudien ezarpenak:

 – Kolore-efektua hautatzeko.

 – Zurien balantzea doitzeko. Uneko argiztapen-kondizioak hautatzeko. Kamerak koloreak zehatzago erreproduzitzeko aukera ematen du.

 – Esposizioaren konpentsazioa doitzeko (irudien kasuan baino ez). Argazkiko objektua iluna badago eta atzeko aldea argia badu (adibidez, elurra), jarri esposizioa +1 edo +2an, atzeko distira konpentsatzeko. Aitzitik, objektua argia bada eta atzeko aldea iluna badu, erabili -1 edo -2.

ISO A Argiarekiko sentikortasuna doitzeko (irudien kasuan baino ez). Argi gutxi dagoenean, handitu argiarekiko sentsibilitatea, argazkiak ilunegiak eta lausoegiak atera ez daitezen. Argiarekiko sentsibilitatea handitzen baduzu, irudiaren zarata ere handituko duzu.

 Kontrastea ezartzeko (irudien kasuan baino ez). Argazkiko alde argien eta ilunen arteko desberdintasuna doitzeko.

 Garbitasuna doitzeko (irudien kasuan baino ez).

Pantaila aldatu egiten da egindako ezarpenen arabera.

Argazkiak ateratzeko ezarpenak kliskatzeko moduak berariazkoak dituenak dira. Modu batetik bestera aldatuz gero, zehaztutako ezarpenak ez dira berrezarriko.

Eszena berri bat hautatzen baduzu, hautatutako eszena horren ezarpenak ezarriko dira lehenetsitakoen ordez. Beharrezkoa bada, argazkiak ateratzeko ezarpenak alda ditzakezu eszena bat hautatutakoan.

Ateratako irudia gordetzen pasatzen den denbora luzeagoa izan daiteke, zoomaren, argiaren eta kolorearen doikuntzak aldatzen badira.

## Argazkiak ateratzea

Argazki bat ateratzen denean, hauxe eduki behar da kontuan:

- Eutsi kamerari bi eskuekin, mugi ez dadin.
- Zoom digitala aplikatu zaion irudiaren kalitatea txikiagoa da zoomik gabe ateratako irudiarena baino.

• Kamera bateria aurrezteko moduan jartzen da, minutu batean ekintzarik egin ez bada. Argazkiak ateratzen segitzeko, lerratu gailuaren alde bateko blokeatze-etengailua.

Argazkia egiteko:

1. Bideoaren modutik irudiaren modura aldatzeko, hautatu ☰ > 📷.
2. Objektu bat fokatzeko, sakatu argazkiak ateratzeko tekla erdiraino (ez du eszena horizontalak eta kirol-ekintzak hartzeko aukerarik). Fokatzea blokeatzeko adierazle berde bat bistaratuko da. Fokatzea blokeatu ez bada, fokuaren adierazle horia bistaratuko da. Askatu argazkia ateratzeko tekla, eta sakatu berriro beherantz erdiraino.

   Fokatzea blokeatu gabe ere atera ditzakezu argazkiak.
3. Argazki bat ateratzeko, sakatu kameraren tekla. Ez mugitu gailua argazkia gorde eta azken irudia bistaratu arte.

Ateratako argazkia handitzeko edo txikitzeko, erabili gailuaren zoomaren tekla.

Bigarren mailan irekitako kameratik ateratzeko, eta beste zenbait aplikazio erabiltzeko, sakatu menuko tekla. Kamerara itzultzeko, luze sakatu argazkiak ateratzeko tekla.

## Argazki bat egin ondoren

Argazkia atera ondoren, hautatu aukera hauetako bat (**Aukerak** > **Ezarpenak** > **Erakutsi harturiko irudia** > **Bai** hautatu baduzu bakarrik):

- ✉ **Bidali** — argazkia multimedia-mezu bidez, mezu elektroniko bidez edo beste konexio-mota baten bidez (adibidez, Bluetooth konektagarritasuna) bidaltzeko.

  Zurekin hitz egiten ari den pertsonari argazkia bidaltzeko, hautatu ✉ **Bidali dei-egileari** hitz egiten ari zarela.
- 🗑 **Ezabatu** — Argazkia ezabatzeko.
- 🖼 — Galeria irekitzeko.

Irudi bat hasierako pantailako horma-irudi gisa erabiltzeko, hautatu **Aukerak** > **Erabili fitxategia** > **Ezarri horm.-pa. gisa.**

Irudia dei guztietan erabiliko den dei-irudi lehenetsi gisa ezartzeko, hautatu **Aukerak** > **Erabili fitxategia** > **Ezarri dei-irudi gisa.**

Irudia kontaktu bati esleitzeko, hautatu **Aukerak** > **Erabili fitxategia** > **Esleitu kontaktuari.**

Beste argazki bat ateratzeko bisorera itzultzeko, sakatu argazkiak ateratzeko tekla.

## Flasha eta bideoaren argiztapena

Flasha erabiltzean, utzi segurtasun-tartea. Ez erabili flasha oso hurbil dauden pertsona eta animaliekin. Ez estali flasha argazki bat ateratzean.

Gailuaren kamerak LED flasha du argi gutxi dagoenerako.

Nahi duzun flash-modua hautatzeko, ukitu uneko flash-moduaren adierazlea. Hauetakoren bat izango da: **Automatikoa**, **Murr. beg. gor.**, **Aktibatua** edo **Desaktibatua.**

Ez ukitu LED flashak, atzeko karkasa kendua baduzu. Litekeena da LEDak berotzea, etengabe erabiltzen badira.

### Bideoaren argiztapena

Bideo bat argi gutxirekin grabatzean argiztapen-maila handitzeko, hautatu .

## Eszenak

Ingurunearen araberako kolore- eta argi-doikuntzak bilatzen laguntzen dute eszenek. Estiloaren eta ingurunearen arabera doitzen dira eszena bakoitzeko parametroak.

Irudi-moduaren eszena lehenetsia **Automatikoa** da bideo-moduan (adierazlea **A** da).

Eszena aldatzeko, hautatu > **Eszena mod.** eta eszena bat.

Ingurune jakin batean zure eszena egokia izan dadin, zoaz **Erabiltzaileak zehazt.** **M** aukerara, eta hautatu **Aldatu.** Erabiltzaileak definitutako eszenetan, argi- eta kolore-doikuntzak konfigura ditzakezu. Beste eszena bateko ezarpenak kopiatzeko, hautatu **Eszena mod. oinarritua** eta nahi duzun eszena. Aldaketak gordetzeko eta eszenen zerrendara itzultzeko, hautatu **Atzera.** Zeure eszena aktibatzeko, hautatu **Erabiltzaileak zehaztua** > **Hautatu.**

## Kokapenaren informazioa

Ateratako argazkien kokapenari buruzko informazioa automatikoki erants dezakezu hartutako irudien xehetasunetan.

Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Kamera.**

Kokapenari buruzko informazioa ateratako argazki guztiei eransteko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Erakutsi GPS-datuak** > **Aktibatu.**

Kokapenaren informazioaren adierazleak:

- — Kokapenaren informazioa ez dago erabilgarri. GPSa bigarren mailan egoten da minutu batzuetan. Satelite bidezko konexio bat baldin badago, eta adierazlea aldatu eta ikurra jartzen bada denbora horretan, jasotzen den GPS-kokapenaren informazioan oinarrituta markatzen dira denbora horretan hartutako irudiak eta grabatutako bideoak.
- — Kokapenaren informazioa ez dago erabilgarri. Kokapenaren informazioa fitxategiaren xehetasunei eransten zaie.

## Argazkiak automatikoki ateratzea: tenporizadorea

Tenporizadorearen bidez, atzeratu egin daiteke kamerak argazkia ateratzeko unea, zu argazkietan ager zaitezen.

Tenporizadorearen atzeratzea ezartzeko, hautatu > eta argazkia atera arte zenbat denbora igaro dadin nahi duzun.

Tenporizadorea aktibatzeko, hautatu **Aktibatu.** Pantailako kronometroaren ikonoak keinu egiten du, eta geratzen den denbora bistaratzen du. Kamerak argazkia ateratzen du, hautatutako denbora amaitzen denean.

Tenporizadorea desaktibatzeko, hautatu > > .

**Iradokizuna:** hautatu **2 segundo**, argazkiak ateratzen dituzunean eskua mugitu gabe mantentzeko.

## Sekuentzia batean argazkiak ateratzea

Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Kamera.**

Segidako argazkien modua kamera nagusian bakarrik dago erabilgarri.

Argazkiak sekuentzia bizkor batean ateratzeko, hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Kamera** eta > **Sekuentzia.** Doikuntzen leihoa ixteko, ukitu pantaila leihoaren gainean. Luze sakatu argazkiak ateratzeko tekla. Gailuak argazkiak aterako ditu tekla askatu arte edo memoria agortu arte. Argazkiak ateratzeko tekla labur sakatzen baduzu, gailuak sei argazki aterako ditu sekuentzia batean.

Bi argazki edo gehiago zehaztutako tarteetan ateratzeko, hautatu zuk nahi duzun denbora-tartea. Argazkiak ateratzeko, sakatu argazkiak ateratzeko tekla. Argazkiak ateratzeko prozesua geldiarazteko, hautatu **Cancelar.** Erabilgarri dagoen memoriaren araberakoa da atera daitezkeen argazkien kopurua.

Ateratako argazkiak lauki batean agertzen dira. Denbora-tartea erabili baduzu, ateratako azken argazkia bakarrik erakusten du. Gainerako argazkiak ikusteko, jo Galería atalera.

Tenporizadorearekin ere atera ditzakezu segidako argazkiak.

Segidako moduaren bisorera itzultzeko, sakatu argazkiak ateratzeko tekla.

Segidako modua desaktibatzeko, hautatu > **Sekuentzia-modua** > **Desaktibatu.**

# Bideo-grabazioa

## Bideoak grabatzea

1. Irudi-modutik bideo-modura pasatzeko, hautatu ☰ eta bideo-modua 🎥.
2. Grabatzen hasteko, sakatu argazkiak ateratzeko tekla, edo ukitu ●. Grabazioaren ikono gorri bat bistaratuko da, eta seinale bat entzungo da.
3. Grabazioa edozein unetan eteteko, sakatu **Pausa.** Jarraitzeko, hautatu **Jarraitu.** Grabazioa eteten baduzu eta minutu bat igaro aurretik teklarik sakatzen ez baduzu, grabazioa gelditu egingo da.

Irudia hurbiltzeko edo urruntzeko, erabili gailuko zoom-tekla.

4. Grabazioa geratzeko, sakatu hartzeko tekla. Bideoklipa Galerian gordetzen da automatikoki. Bideoklipak 30 segundo irauten du, gehienez, partekatzeko kalitatearekin, eta 90 minutu, beste kalitate-doikuntza batzuekin.

## Bideoa grabatzeko pantailako adierazleak eta kontrolak

Bideoaren bisorean, hauek azaltzen dira:




1 — Argazkia ateratzeko moduaren adierazlea

2 — Soinu-adierazlea isilik

3 — Hartzeko moduaren ikonoa. Ukitu bideoa grabatzeko.

4 —Bideoaren argiztapena aktibatua/desaktibatua

5 — Grabazio-doikuntzak. Ukitu doikuntzak aldatzeko.

6 — Bateriaren karga-mailaren adierazlea

7 — Bideoaren kalitatearen adierazlea. Doikuntzak aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Bideoaren kalitatea.**

8 — Bideokliparen formatua

9 — Grabatzeko denbora. Grabatu bitartean, bideoaren iraupen-adierazleak pasatako denbora eta gelditzen dena adierazten ditu.

10 — Bideoklipa gordetzeko kokalekua.

## Bideo bat grabatu ondoren

Bideoklip bat grabatu ondoren, hautatu aukera hauetako bat (**Aukerak** > **Ezarpenak** > **Erakutsi harturiko bideoa** > **Bai** hautatu baduzu bakarrik):

- **Erreproduzitu** — Grabatu berri duzun bideoklipa erreproduzitzeko.
- **Ezabatu** — Bideoklipa ezabatzeko.
- **Bidali** edo sakatu deitzeko tekla — Bideoklipa multimedia-mezu bidez, mezu elektroniko bidez edo beste konexio-mota baten bidez (adibidez, Bluetooth konektagarritasuna) bidaltzeko. MPEG4 fitxategi-formatuarekin gordeta dauden bideoklipak ezin dira bidali multimedia-mezuetan.

  Zurekin hitz egiten ari den pertsonari bideoklipa bidaltzeko, hautatu ***(Bidali dei-egileari)*** hitz egiten ari zarela.

Beste bideo bat grabatzeko bisorera itzultzeko, sakatu argazkiak ateratzeko tekla.

# 12. Kokapena (GPS)

Mapak eta GPS Datuak aplikazioak erabil ditzakezu zure kokapena jakiteko edo distantziak eta koordenatuak neurtzeko. Aplikazio horiek erabiltzeko GPS konexioa behar da.

## GPSri buruz

GPSaren koordenatuak gradutan eta gradu hamartarretan adierazten dira, nazioarteko WGS-84 koordenatu-sistemaren arabera.

Kokapen Sistema Globala (GPS) AEBko gobernuaren mendekoa da, eta hura da zehaztasunaren eta mantentze-lanen arduradun bakarra. Kokapen-datuen zehaztasuna aldatu egin daiteke AEBko gobernuak GPS sateliteetan egiten dituen doikuntzen arabera. Irrati-nabigazioko Plan Federalaren eta AEBko Defentsa Zibilaren Sailaren GPS politikaren aldaketen mende dago. Halaber, sateliteen geometria okerraren ondorioz ere alda daiteke zehaztasuna. GPS seinaleen erabilgarritasuna eta kalitatea posizioaren, eraikin eta oztopo naturalen, eta eguraldiaren araberakoak izan daitezke. GPS seinaleak jaso ahal izateko, GPS hargailua aire zabalean baino ezin da erabili.

GPSak ez litzateke erabili behar kokapen bat zehazteko erabili behar, ezta GPS hargailuak nabigatzeko edo kokapena zehazteko ematen dituen kokapen-datuekin soilik fidatu ere.

Kokapen-metodoak aktibatzeko edo desaktibatzeko, hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Kokapena** eta **Posizionamend.** > **Posizion.-metodoak.**

## GPS lagundua (A-GPS)

GPS lagunduarekin ere bateragarria da gailua (A-GPS). A-GPS sare-zerbitzu bat da.

GPS lagundua (A-GPS) erabiltzen da, laguntza-datuak datu-paketeen konexioen bidez berreskuratzeko; gailua sateliteen seinaleak jasotzen ari denean, uneko kokapenaren koordenatuak kalkulatzen laguntzen du.

A-GPS aktibatzean, satelitearen informazio erabilgarria jasotzen du gailuak, sare zelularraren barruko datu-asistentziako zerbitzari baten bidez. Laguntza-datuekin, gailuak azkarrago lor dezake GPS-kokapena.

A-GPS zerbitzua erabiltzeko konfiguratuta dago gailua, A-GPS hornitzaile espezifiko baten zerbitzuak erabiltzeko konfiguraziorik erabili ezin bada. Behar denean bakarrik lortzen da laguntza-informazioa Nokia A-GPS zerbitzuaren zerbitzariaren bidez.

Definitutako Interneteko sarbide-puntu bat izan behar duzu gailuan, datu-paketeen konexio batekiko Nokia A-GPS zerbitzuaren laguntza-informazioa lortzeko. A-GPSrako sarbide-puntu bat definitzeko, hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Kokapena** eta **Posizionamend.** > **Posizion.-zerbitzaria** > **Sarbidea.** Ezin da erabili haririk gabeko sare lokalerako (WLAN) sarbide-punturik zerbitzu honetarako. Datu-paketeen Interneteko sarbide-puntu bakarra erabil daiteke. Gailuak Interneteko sarbide-puntu bat eskatuko dizu GPS lehenengo aldiz erabiltzen duzunean.

# Gailua ondo ipini

GPS-hargailua erabiltzean, ziurtatu eskuekin ez duzula antena estaltzen.



GPS-konexio bat ezartzeko, pare bat segundo edota hainbat minutu behar izango dira. Autoan GPS-konexio bat ezartzeko, denbora gehiago behar izan dezake.

GPS hargailua gailuaren bateriaz elikatzen da. GPS hargailua erabiliz gero, baliteke bateria azkarrago agortzea.

# GPS konexio bat sortzeko iradokizunak

## Begiratu satelitearen seinalearen egoera

Gailuak zenbat satelite aurkitu dituen eta satelite-seinaleak jasotzen ari den jakiteko, hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Kokapena** eta **GPS datuak** > **Posizionam.** > **Aukerak** > **Satelitearen egoera.**



Gailuak sateliteak aurkitu baditu, satelite-informazioaren ikuspegian barra bat agertuko da satelite bakoitzeko. Barra zenbat eta handiagoa izan, orduan eta indartsuagoa izango da satelitearen seinalea. Gailuak kokapenaren koordenatuak neurtzeko behar beste datu jaso dituenean satelitearen seinaletik, barra urdin bihurtuko da.

Sateliteak aurkitutako posizioak ikusteko, hautatu **Aldatu**

**ikuspegia.**

Hasieran, gailuak lau satelitetako seinalea jaso behar du gutxienez posizioaren koordenatuak kalkulatzeko. Hasierako zenbatespena egin ondoren, posizioaren koordenatuak kalkulatzen jarraitu ahal izango da hiru sateliterekin. Dena den, zehaztasun handiagoa izaten da, normalean, satelite gehiago baldin badaude.

Gailuak satelitearen seinalerik aurkitzen ez badu, kontuan izan hauek:

- Barrualdean bazaude, joan kanpora seinale hobea jasotzeko.
- Kanpoaldean bazaude, joan leku irekiago batera.
- Ziurtatu ez duzula gailuaren GPS-antena estaltzen eskuarekin.
- Baldintza meteorologiko txarrek seinale-intentsitatean eragin dezakete.
- Zenbait ibilgailuk tindatutako leihoak dituzte (termikoak), eta hauek satelitearen seinalea blokea dezakete.

## Kokapen-eskaerak

Sareko zerbitzu baten eskaera jaso dezakezu zure kokapenaren informazioa jasotzeko. Zerbitzu-hornitzaileek tokiko gaiei buruzko informazioa eman dezakete (esaterako, eguraldiari eta zirkulazioari buruzkoa), gailuaren posizio zehatzaren arabera.

Kokapen-eskaera bat jasotzen duzunean, eskaera egiten duen zerbitzua bistaratzen duen mezua azaltzen da. Hautatu **Ados**, zure posizioaren informazioa bidal dadin, edo **Errefusatu**, eskaera errefusatzeko.

## Mugarriak

Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Kokapena** eta **Mugarriak.**

Mugarriak aplikazioak gailuko toki espezifikoen kokapenari buruzko informazioa gordetzeko aukera emango dizu. Gordetako kokapenak kategorien arabera (hala nola lanaren arabera) ordenatu ditzakezu, eta beste informazio-mota batzuk erantsi (hala nola helbideak). Gordetako mugarrien aplikazio bateragarrietan (hala nola GPS-datuetan) erabil ditzakezu.

GPS-koordenatuak gradutan eta gradu hamartarretan adierazten dira, nazioarteko WGS-84 koordenatu-sistemaren arabera.

Hautatu **Aukerak** eta aukera hauetako bat:

- **Mugarri berria** — mugarri berria sortzeko. Uneko kokapenaren posizioa eskatzeko, hautatu **Uneko posizion.** Kokapenari buruzko informazioa eskuz sartzeko, hautatu **Sartu eskuz**.
- **Editatu** — lehendik zegoen mugarri baten informazioa (adibidez, kalea) aldatzeko edo mugarri hari informazioa gehitzeko.
- **Gehitu kategoria bati** — Mugarriak kategoria bati mugarri bat gehitzeko. Hautatu zer kategoriari gehitu nahi diozun mugarria.

- **Enviar** – mugarri bat edo batzuk gailu bateragarri batera bidaltzeko. Jasotako mugarriak **Mezularitza** karpetako **Postontzia** karpetan gordetzen dira.

Mugarriak kategoria lehenetsien arabera ordenatu ditzake, baita kategoria berriak sortu ere. Mugarri berrien kategoriak aldatzeko eta sortzeko, ireki kategorien fitxa, eta hautatu **Aukerak** > **Editatu kategoriak.**

## GPS datuak

**GPS datuak** aukera helburu jakin batera joateko bideari buruzko orientazioa emateko diseinatuta dago, baita uneko kokapenari eta ibilbideari buruzko informazioa emateko ere –hala nola gutxi gorabehera zenbat bide dagoen egiteko eta ibilbidearen batez besteko iraupena–.

Hautatu **Menua** > **GPS-aplikazioak** > **Kokapena** eta **Datuak.**

## Kokapen-doikuntzak

Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Kokapena eta Posizionamend.**

### Kokapen-metodoak

- **GPS integratua** –: gailuko GPS hargailu integratua erabiltzen du.
- **Lagunduriko GPSa** – Erabili GPS lagundua (A-GPS), laguntza-informazioaren zerbitzaritik laguntza-informazioa jasotzeko.
- **Bluetooth GPS** –: Erabili kanpoko GPS hargailu bateragarri bat Bluetooth konektagarritasunarekin.
- **Sarean oinarritua** – Erabili sare zelularreko informazioa (sare-zerbitzua).

### Kokapen-zerbitzaria

A-GPSrako sarbide-puntu bat eta kokapen-zerbitzari bat definitzeko, hautatu **Posizionam.-zerbitzaria** Litekeena da zerbitzu-hornitzaileak kokapen-zerbitzaria aurretik ezarri izana eta, beraz, doikuntzak ezin aldatzea.

### Notazio-doikuntzak

Abiadurarako eta distantzietarako erabili nahi duzun neurri-sistema hautatzeko, sakatu **Neurketa-sistema** > **Metrikoa** edo **Inperiala.**

Gailuan koordenatuen informazioa bistaratzeko formatua definitzeko, hautatu **Koordenatu-formatua** eta nahi duzun formatua.

# 13. Mapak

## Mapak

Hautatu **Menua** > **Mapak.**

**Mapak** aplikazioarekin, hainbat aukera dituzu: mapan non zauden ikusi; mapetan hiri eta herrialdeak bilatu; helbideak eta toki interesgarriak bilatu; toki batetik besterako ibilbideak planifikatu; eta posizioak gorde, eta gailu bateragarrietara bidali.

Halaber, beste zerbitzu batzuen lizentziak eskuratu ditzakezu: bidaia-gidak, zirkulazioari buruzko informazioa eta ahots bidez argibideak ematen dituen nabigazio-zerbitzua. Zerbitzu horiek ez daude erabilgarri herrialde edo eskualde guztietarako.

**Mapak** aplikazioa lehen aldiz erabiltzean, baliteke Interneteko sarbide-puntu bat hautatu behar izatea mapak deskargatzeko.

Gailuan deskargatutako mapek estaltzen ez duten guneren batera joaten bazara, hango mapa automatikoki deskargatuko da Interneten bidez. Litekeena da mapa batzuk zure gailuan edo memoria-txartelean erabilgarri egotea. Halaber, PCko Nokia Map Loader softwarea erabil dezakezu mapak deskargatzeko. PC bateragarri batean Nokia Map Loader instalatzeko, ikus www.nokia.com/maps.

**Iradokizuna:** datu-transferentziaren tarifak ordaindu beharrik ez izateko, Interneteko konexiorik gabe ere erabil dezakezu Mapak, eta gailuan edo memoria-txartelean gordetako mapak aztertu.

Mapa digital gehienak ez dira oso zehatzak, eta, nola edo hala, ez daude erabat osatuta. Ez baliatu gailu honetan erabiltzeko deskargatutako kartografiaz soilik.

Mapak deskargatzeko eta zerbitzu osagarriak erabiltzeko, litekeena da datu-bolumen handia transmititzea zerbitzu-hornitzailearen sarearen bidez. Galdetu zerbitzu-hornitzaileari datu-transmisioaren kostua zenbatekoa den.

# Sare-kokapena

Sare mugikorra erabil dezakezu uneko posizioa aurkitzeko, baita barruan bazaude ere. GPSa baino azkarragoa da, baina zehaztasun gutxiago du, eta posizioa ezin da erabili nabigaziorako irteera-puntu gisa.

Kokapena sare mugikorraren bidez erabiltzeko, abiarazi Mapak aplikazioa, eta hautatu **Sarean oinarritua** kokapen-metodo gisa. GPS-konexioa prest dagoenean, sare mugikorraren ordez ezarriko da kokapen-metodo gisa.

# Mapa batean mugitzea

Hautatu **Menua** > **Mapak.**

GPS-posizioaren edo azken kokapen ezagunaren zooma handitzeko, hautatu **Aukerak** > **Nire kokapena.**

GPS-konexio bat aktibo dagoenean, ikurraren bidez adierazten da uneko posizioa.

Mapan barrena mugitzeko, arrastatu mapa. Mapa iparralderantz orientatzen da lehenespenez.

Konexio bat aktibo duzunean eta pantailako mapan alde batetik bestera mugitzean, beste mapa bat deskargatzen da automatikoki, dagoeneko deskargatuta dauden mapek hartzen ez duten mapako eremu batera joaten bazara. Mapak automatikoki gordetzen dira gailuaren memorian edo memoria-txartel bateragarri batean (sartuta badago).

Mapa handitzeko eta txikitzeko, hautatu + eta -.

## Pantailako adierazleak

GPS-adierazleak satelitearen seinalearen erabilgarritasuna eta potentzia erakusten ditu. Barra batek satelite bat adierazten du. Gailua satelite baten bila ari denean, barra horrek kolore horia hartzen du. Gailuak satelitetik nahikoa datu jasotzen dituenean GPS konexioa ezartzeko, barra berde kolorekoa bihurtzen da. Zenbat eta barra berde gehiago egon, orduan eta indartsuagoa da GPS-konexioa.

Gailuak lau satelitetako seinalea jaso behar du gutxienez kokapenaren koordenatuak kalkulatzeko. Hasierako kalkuluaren ondoren, hiru sateliteren seinaleak nahikoa izango dira agian.

Erabiltzen ari den Interneteko konexioa eta aplikazioa hasten denetik transferitu den datu-kopurua erakusten ditu datu-transferentziaren adierazleak ⇌ 21.5 kb.

## Kokapenak bilatzea

Hautatu **Menua** > **Mapak**.

Mapan agertzen den hirian edo eremuan kokapen bat bilatzeko, sartu kokapenaren helbide osoa edo helbidearen zati bat bilaketa-eremuan. Ukitu gezi berdea, eta hautatu **Bilatu**. Beste hiri bateko kokapen bat bilatzeko, sartu hiria eta helbide osoa edo helbidearen zati bat (adibidez, **Oviedo Calle del Rosal**). Emaitza hobeak lortzeko, tokiko hizkuntza sartu hiriaren izena.

**Iradokizuna:** kokapenaren izena nola idazten den ziur ez badakizu, bilaketa-terminoaren lehen karaktereak bakarrik sartu. Bilaketaren emaitza onenak lortu, sartu gutxienez hiru karaktere.

Helbide jakin bat bilatzeko, edo beste herrialde bateko helbide bat bilatzeko, hautatu **Aukerak** > **Bilatu** > **Helbideak**. **Estatua Eskualdea*** eta **Udalerria/PK*** derrigorrezkoak dira.

**Iradokizuna:** Bilaketa-eremuaren bidez beste herrialde bateko kokapen bat bilatzeko, herrialdearen izena ere idatzi bilaketa-eremuan: **Roma Italy**. Ingelesez sartu herrialdearen izena, edo, bestela, erabili hiru letrako ISO kodea (ITA, Italia; GBR, Britainia Handia; CHN, Txina).

Kontaktuak aplikaziotik kokapenaren helbide bat inportatzeko, hautatu **Aukerak** > **Bilatu** > **Helbideak** > **Aukerak** > **Aukeratu kontaktuetatik**.

Interneteko konexiorik gabe kokapenak bilatzen badituzu, bilaketaren emaitzak 50 km-ko erradiora mugatuko dira (31 milia).

### Kategorien araberako bilaketa

Bilaketaren emaitzak mailatan taldekatzen dira. Bilaketa maila bakarrean egiteko, hautatu **Aukerak** > **Bilatu** > **Tokiak** eta kategoria.

**Adibidea:** Kokapenetik hurbil dauden jatetxeak bilatzeko, hautatu **Aukerak** > **Bilatu** > **Tokiak** > **Jan & Edan** > **Jatetxea**.

**Adibidea:** hotel bat bilatzeko, hautatu **Aukerak** > **Bilatu** > **Tokiak** > **Ostatuak**. Sartu hotelaren izena bilaketa-eremuan, eta hautatu **Bilatu dena**.

# Ibilbideak planifikatzea

Hautatu **Menua** > **Mapak.**

Ibilbide bat planifikatzeko, hautatu mapan irteera-puntua, ukitu maparen goiko aldeko areako informazioa, eta hautatu **Gehitu ibilbidera.**

Helmuga definitzeko eta ibilbideari kokapen gehiago eransteko, bilatu tokia eta hautatu **Aukerak** > **Gehitu ibilbide-puntua.**

Ibilbideko kokapenen ordena aldatzeko, ukitu kokapena eta hautatu **Mugitu.** Zoaz kokapena eraman nahi duzun tokiraino, eta hautatu **Hautatu.**

Ibilbidea aldatzeko, ukitu ibilbidea, eta hautatu **Aldatu ibilbidea.**

Ibilbidearen doikuntzak aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak**.

Ibilbidea mapan ikusteko, hautatu **Aukerak** > **Erakutsi ibilbidea**.

Autoz edo oinez joan nahi duzun tokira nabigatzeko, zerbitzu osagarri horietarako lizentzia eskuratu baduzu, hautatu **Aukerak** > **Hasi gidatzen** edo **Hasi oinez ibiltzen.**

Ibilbidea gordetzeko, hautatu **Aukerak** > **Gorde ibilbidea.**

# Kokapenak gordetzea eta bidaltzea

Kokapen bat gailuan gordetzeko, hautatu kokapena, ukitu maparen goiko aldeko informazioa, eta hautatu **Gehitu Nire tokietara.** Kokapena hemen gordetzen da: **Gogokoak** > **Nire tokiak.**

Kokapen bat gailu bateragarri batera bidaltzeko, ukitu kokapena eta hautatu **Bidali**. Kokapena testu-mezu batean bidaltzen bada, informazioa formaturik gabeko testu bihurtuko da.

# Gordetako elementuak ikustea

Gailuan gordeta dauden elementuak ikusteko, hautatu **Aukerak** > **Gogokoak.**

## Tokiak

Gailuan gordeta dauden kokapenak ikusteko, hautatu **Nire tokiak.**

Gordetako kokapenak antolatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ordenatu**.

Mapan hautatutako kokapena bistaratzeko, hautatu **Erakutsi mapan.**

Ibilbide bati kokapena gehitzeko, ukitu kokapena eta hautatu **Gehitu** > **Gehitu ibilbideari.**

## Historia

Mapan bilatu dituzun kokapenak kontsultatzeko, hautatu **Historia.**

Mapan hautatutako kokapena bistaratzeko, hautatu **Erakutsi mapan.**

Kokapena gailu bateragarri batera bidaltzeko, ukitu kokapena eta hautatu **Bidali**.

### Bildumak

Zure leku gogokoenekin (hala nola jatetxeekin eta museoekin) bilduma bat osatzeko, hautatu **Bildumak** > **Aukerak** > **Bilduma berria.**

Bildumari kokapenak gehitzeko, ireki **Nire tokiak,** ukitu kokapena eta hautatu **Gehitu** > **Gehitu bildumara.**

Mapan hautatutako kokapena bistaratzeko, hautatu **Erakutsi mapan.**

### Ibilbideak

Gordetako ibilbideak ikusteko, hautatu **Rutas.**

Hautautako ibilbidea irekitzeko, hautatu **Aukerak** > **Ireki.**

## Helbururaino nabigatzea

Hautatu **Menua** > **Mapak.**

Helmugaraino nabigatzeko, nabigazio-zerbitzurako lizentzia eskuratu behar duzu.

Ahots-gidari bidez oinez eta autoz nabigatzeko lizentzia eskuratzeko, hautatu **Gidatu eta oinez.** Soilik oinez nabigatzeko lizentzia eskuratzeko, hautatu **Oinez.** Lizentzia eskualdekoa da, eta hautatutako eremuan bakarri erabil daiteke. Lizentzia kreditu-txartel batekin edo zure telefonoaren fakturan ordaindu ditzakezu, zerbitzu-hornitzaileak azken aukera hori onartzen badu. Lizentzia zure gailutik edo beste gailu bateragarri batetik transferi dezakezu, baina lizentzia ezin da erabili aldi berean bi gailutan.

Nabigazioa lehen aldiz erabiltzean, ahots-gidaren hizkuntza aukeratzeko eta hizkuntza horri dagokion ahots-gidako fitxategiak deskargatzeko eskatuko zaizu. Geroago hizkuntza aldatzeko, ikuspegi nagusian, hautatu **Aukerak** > **Tresnak** > **Ezarpenak** > **Nabigazioa** > **Ahots bidezko gidaritza.** Ahots-gida ez dago erabilgarri oinezko nabigazioan.

Nabigatzen hasteko, hautatu kokapena eta **Autoz** edo **Oinez**

Nabigazioa geldiarazteko, hautatu **Aukerak** > **Geratu nabigazioa.**

## Mapak eguneratzea

Gailuko mapak eguneratzeko, hautatu **Opciones** > **Herramientas** > **Ajustes** > **Mapa** > **Opciones** > **Buscar actualizac. mapas**, edo erabili Nokia Map Loader.

Mapak aplikazioa eguneratzeko, zoaz http://maps.nokia.com webgunera.

## Nokia Map Loader

Nokia Map Loader aplikazioarekin, Internetetik ahots-gidaren mapak eta fitxategiak deskarga ditzakezu gailuaren memorian edo memoria-txartel bateragarri batean. Mapak aplikazioa erabili behar duzu, Nokia Map Loader erabili aurretik mapak behin, behintzat, aztertzeko. Izan ere, Mapak aplikazioko informazioa erabiltzen du mapen zer bertsio deskargatu jakiteko.

Nokia Map Loader PC edo Mac bateragarri batean instalatzeko, ikus http://maps.nokia.com eta jarraitu pantailan ageri diren jarraibideei.

# 14. Konektagarritasuna

Gailuak aukera bat baino gehiago ematen ditu Internetera, beste gailu bateragarri batera edo PC batera konektatzeko.

## Datu-konexioak eta sarbide-puntuak

Gailuak datu-paketeen konexioak onartzen ditu (sare-zerbitzua), adibidez GPRS, GSM sarean. Gailua GSM eta UMTS sareekin erabiltzen baduzu, hainbat datu-konexio izan ditzakezu aktibo aldi berean eta sarbide-puntuek datu-konexio bat parteka dezakete. UMTS sarean, datu-konexioak aktibatuta egoten dira ahots-deietan.

Haririk gabeko sare lokalaren datu-konexioa ere erabil dezakezu. Haririk gabeko sare lokalean, aldi berean konexio bakarra eduki daiteke aktibatuta; baina hainbat aplikaziok Interneteko sarbide-puntu berbera erabil dezakete.

Datu-konexio bat ezartzeko, sarbide-puntu bat behar da. Hainbat sarbide-puntu mota defini daitezke; adibidez, hauek:

- MMS sarbide-puntua, multimedia-mezuak bidaltzeko eta jasotzeko.
- Interneterako sarbide-puntua (IAP) posta elektronikoa bidaltzeko eta jasotzeko eta Internetera konektatzeko.

Galdetu hornitzaileari nahi duzun zerbitzurako zer motatako sarbide-puntua behar duzun. Datu-paketeen konexioen erabilgarritasuna ikusteko edo haietara harpidetzeko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

## Sareko doikuntzak

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Konektagarritas.** > **Sarea.**

Gailua automatikoki alda daiteke GSM saretik UMTS sarera, eta alderantziz. GSM sareak Ψ ikurraz adierazten dira; UMTS sareak, berriz, **3G** ikurraz. Hauta ezazu aukera hauetako bat:

- **Sare modua** — Hautatu zer sare erabili behar duzun. **Modu duala** hautatzen baduzu, gailuak GSM edo UMTS sarea erabiliko du automatikoki, sare parametroen eta haririk gabeko zerbitzuaren hornitzailearen arteko desplazamendu-akordioen (roaming) arabera. Jar zaitez harremanetan sare-zerbitzuen hornitzailearekin desplazamenduri buruzko informazioa izateko eta tarifak jakiteko. Haririk gabeko zerbitzuaren hornitzaileak eskaintzen badizu bakarrik bistaratuko da funtzio hau.

Desplazamendu-akordio bat zerbitzu-hornitzaile biren edo gehiagoren arteko akordio bat da, zerbitzu-hornitzaile baten erabiltzaileek besteen zerbitzuak erabil ditzaten.

- **Operadorea hautatzea** – hautatu **Automatikoa** gailuak sare erabilgarri bat bilatu eta hauta dezan, edo **Eskuzkoa** sarea sare-zerrenda batetik eskuz hautatzeko. Eskuz hautatutako sarearen konexioa galduz gero, gailuak errore-seinale bat egingo du eta berriro sare bat aukeratzeko eskatuko dizu. Aukeratutako sareak desplazamendu-akordioa izan behar du zure sarearekin.
- **Inform.-zerb. pantaila** – Ezarri aukera hori, gailuak jakinaraz dezan noiz dagoen sare mikrozelularren teknologian (MCN) oinarritutako sare zelular batean eta sare zelularrari buruzko informazioa jasotzea aktibatzeko.

# Haririk gabeko sare lokala

Gailu honek haririk gabeko sare lokalak (WLAN) detektatu ditzake, eta horietara konekta daiteke. WLAN baten bidez, gailua Internetera konekta dezakezu, WLAN sarea onartzen duten gailu bateragarriekin.

## WLANi buruz

WLAN haririk gabeko sare lokalaren konexio bat erabiltzeko, tokian WLAN bat izan behar da erabilgarri, eta gailuak sare horretara konektatuta egon behar du. WLAN batzuk babestuta daude, eta pasahitz bat behar da haietara sartzeko (zerbitzu-hornitzaileak emango dizu).

Toki batzuetan, Frantzian esate baterako, haririk gabeko sare lokalaren erabilerari buruzko mugak daude. Eskatu tokiko agintariei informazio gehiago.

Haririk gabeko sare lokala erabiltzen duten funtzioak edo beste funtzio batzuk erabiltzen diren bitartean bigarren mailan teknologia horiek aktibatzen direnean, bateria gehiago behar izaten da, eta bateriak gutxiago irauten du.

Gailu hau haririk gabeko sare lokalaren funtzio hauekin da bateragarria:

- IEEE 802.11b/g estandarra
- 2,4 GHz-tan funtzionatzea
- WEP (Wired Equivalent Privacy), 128 bit bitarteko gakoekin, WiFi-ko sarbide babestuarekin (WPA) eta 802.1x egiaztapen-metodoekin. Sareak onartzen badu bakarrik erabil daitezke funtzio horiek.

**Garrantzitsua:** Aktibatu beti eskura duzun enkriptazio-metodoetako bat haririk gabeko sare lokalaren konexioaren segurtasuna areagotzeko. Enkriptazioa erabiltzeak murriztu egiten du inor zure datuetara baimenik gabe sartzeko arriskua.

## WLAN konexioak

WLAN haririk gabeko sare lokalerako konexio bat erabiltzeko, WLANerako Interneteko sarbide-puntu bat (IAP) sortu behar duzu. Internetera konektatu behar duten aplikazioetarako erabili sarbide-puntua.

Interneteko sarbide-puntu batetik haririk gabeko sare lokal batera datu-konexio bat sortzen denean, haririk gabeko sare

lokalaren konexioa ezartzen da. Datu-konexioa etetean amaitzen da haririk gabeko sare lokalaren konexio aktiboa.

Ahots-dei batean edo datu-pakete bat aktibo dagoenean, haririk gabeko sare lokala erabil dezakezu. Haririk gabeko sare lokaleko sarbide-puntu bakarrera konektatuta egon zaitezke aldi bakoitzean, baina aplikazio batek baino gehiagok Interneterako sarbide-puntu berbera erabil dezakete.

Gailua deskonektatuta dagoenean, haririk gabeko sare lokala erabiltzen jarraitu ahal izango duzu (erabilgarri baldin badago). Ez ahaztu beharrezkoa dela segurtasun-baldintzak betetzea haririk gabeko sare lokalera konektatzeko eta sarea erabiltzeko.

**Iradokizuna:** Bitartekora sartzeko kontrol bakarraren helbidea, zure gailua identifikatzen duena, zein den jakiteko (MAC helbidea), ireki markagailua, eta idatzi ***#62209526**.

## WLANen laguntzailea

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Konektagarritas.** > **Haririk gabek. LANa.**

WLANen laguntzaileak haririk gabeko sare lokal batera (WLAN) konektatzen eta WLAN-konexioak kudeatzen lagunduko dizu.

Bilaketak WLAN sareak aurkitzen baditu, Interneteko sarbide-puntu bat (IAP) sortzeko, IAP horrekin konektatzeko eta web-nabigatzailea abiarazteko, hautatu konexioa eta **Hasi nabigatzen.**

Babestutako WLAN bat hautatu baduzu, pasahitza sartzeko eskatuko zaizu. Ezkutuko sare batera konektatzeko, sarearen izen zuzena sartu behar duzu (SSID).

Web-nabigatzailea dagoeneko WLAN aktibo batekin exekutatzen ari bada eta web-nabigatzailera itzuli nahi baduzu, hautatu **Jarraitu nabigatzen.** Konexio aktiboa amaitzeko, hautatu konexioa eta, ondoren, **Deskonektatu WLANa.**

## Interneteko sarbide-puntuak (WLAN)

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Konektagarritas.** > **Haririk gabek. LANa** > **Aukerak.**

Hauta ezazu aukera hauetako bat:

- **Irazi WLAN sareak** — aurkitutako sareen zerrendako haririk gabeko sare lokalak (WLAN) iragazteko. Aplikazioak WLAN sareak bilatzen dituen hurrengo aldian, ez dira bistaratzen hautatutako sareak.
- **Xehetasunak** — zerrendako sare baten informazioa ikusteko. Aktibo dagoen konexio bat hautatzen baduzu, konexio horren informazioa bistaratzen du.

## Funtzionatzeko moduak

Haririk gabeko sare lokalek funtzionatzeko bi modu dituzte: azpiegitura eta ad-hoc.

“Azpiegitura” funtzionatzeko erak bi komunikazio-mota izateko aukera ematen du: haririk gabeko gailuak sarbide-puntuaren gailu baten bidez haririk gabeko sare lokalera konektatzea elkarren artean, edo haririk gabeko gailuak sarbide-puntuaren gailu baten bidez sare lokal batera konektatzea kablearekin.

Ad-hoc funtzionamenduari dagokionez, gailuek batetik bestera bidali eta jaso ditzakete zuzenean datuak.

## Haririk gabeko sare lokala

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Konektagarritas.** > **Haririk gabek. LANa** > **Aukerak** > **Ezarpenak.**

Hauta ezazu aukera hauetako bat:

- **Erakutsi WLAN eskurag.** — Haririk gabeko sare lokal bat (WLAN) erabilgarri dagoenean azaltzeko.

  **Iradokizuna:** WLANen laguntzailearen aplikaziora sartu eta erabilgarri dauden aukerak ikusteko, hautatu WLANen ikonoa eta, irekitako leihoan, hautatu WLANen ikonoaren ondoan dagoen testua.

- **Bilatu sareak** — **Erakutsi WLAN eskurag.** aukeran **Bai** ezarriz gero, erabilgarri dauden WLAN sareak bilatzeko eta adierazlea eguneratzeko maiztasuna aukeratu dezakezu.
- **Intern. konektag. proba** — Gailuak automatikoki hautatutako WLAN baten Interneteko gaitasuna azter dezan, bakoitzean baimena eska dezan edo gailuak konektagarritasun-proba inoiz egin ez dezan. **Automatik. abiarazi** hautatzen baduzu edo gailuak eskatzen dizunean hori egiteko aukera ematen badiozu, eta proba behar bezala egiten bada, Interneteko helmugetan gordetzen da sarbide-puntua.

Aurreratutako doikuntzak ikusteko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpen aurreratuak.** Ez da gomendagarria WLAN doikuntza aurreratuak adlatzea.

# Sarbide-puntuak

## Sarbide-puntu berri bat sortzea

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Konektagarritas.** > **Helburuak.**

Sarbide-puntuko doikuntzak zerbitzu-hornitzaileak bidalitako mezu batean jaso ditzakezu. Litekeena da zerbitzu-hornitzaileak gailuko sarbide-puntu batzuk edo guztiak aurrez definitzea, eta, agian, zuk ezin dituzu aldatu, sortu, editatu edo ezabatu.

Sarbide-puntuen multzo bat irekitzen baduzu (, , , ), sarbide-puntu motak ikusi ahal izango dituzu:

ikurrak adierazten du sarbide-puntu hori babestuta dagoela.

ikurrak datu-paketeen sarbide-puntu bat adierazten du.

ikurrak haririk gabeko sare lokalaren (WLAN) sarbide-puntu bat adierazten du.

**Iradokizuna:** WLANen laguntzailearekin, WLAN batean Interneteko sarbide-puntuak sor daitezke.

Sarbide-puntu berri bat sortzeko, hautatu **Sarbidea.** Erabilgarri dauden konexioak begiratzeko eskatzen du gailuak. Bilaketa egin ondoren, erabilgarri dauden konexioak bistaratuko dira, eta sarbide-puntu berri batean partekatu ahal izango dira. Urrats hori egiten ez baduzu, konektatzeko metodo bat hautatu eta beharrezko konfigurazioa definitu beharko duzu.

Sarbide-puntu baten konfigurazioa aldatzeko, ireki sarbide-puntuen multzo bat, eta hautatu sarbide-puntu bat. Jarraitu zerbitzu-hornitzailearen jarraibideei.

- **Sarbide-izena** – Sartu konexiorako izena.
- **Datu-eramailea** –: hautatu datu-konexio mota bat:

Hautatzen duzun datu-konexioaren arabera, doikuntza-eremu jakin batzuk bakarrik egongo dira erabilgarri. Bete **Zehaztu egin behar da** eremua edo izartxo gorria duten eremu guztiak. Gainerako eremuak hutsik utzi behar dira, zerbitzu-hornitzaileak bestelakoa esaten ez badizu, behintzat.

Datu-konexioak erabiltzeko, zerbitzu-hornitzaileak funtzio hori onartu behar du, eta, beharrezkoa bada, SIM txartelean aktibatu.

## Sarbide-puntuen taldeak sortzea

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Konektagarritas.** > **Helburuak.**

Sare-konexiotarako sarbide-puntuen multzoak erabiltzeko aukera ematen dizute aplikazio batzuek.

Gailua sarera konektatzen den bakoitzean sarbide-puntu bat hautatzen ibili beharrik ez izateko, sarbide-multzoak sor ditzakezu, sare jakin horretara konektatzeko eta puntu horiek erabiltzeko ordena definitzeko.

Adibidez, haririk gabeko sare lokal bat (WLAN) eta datu-paketeen sarbide-puntuak gehitu diezazkiokezu Interneteko sarbide puntuen multzo bati, eta Interneten nabigatzeko erabili multzoa. Lehentasuna WLAN bati ematen badiozu, haren bidez konektatzen da gailua Internetera, baldin eta WLAN hori erabilgarri badago; bestela, datu-pakete baten konexioaren bidez konektatzen da.

Sarbide-puntuen multzo bat sortzeko, hautatu **Aukerak** > **Kudeatu** > **Norako berria.**

Multzoari sarbide-puntuak gehitzeko, hautatu multzoa eta **Aukerak** > **Sarbide berria.** Beste multzo bateko sarbide-puntu bat kopiatzeko, hautatu multzoa, ukitu kopiatu nahi duzun sarbide-puntua (hautatuta ez badago), eta **Aukerak** > **Antolatu** > **Kopiatu beste hartz..**

Multzo baten sarbide-puntu baten lehentasuna aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Antolatu** > **Aldatu lehentasuna.**

## Datu-paketeen sarbide-puntuak

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Konektagarritas.** > **Helburuak** > **Sarbidea**, eta jarraitu pantailako argibideei.

Datuen sarbide-puntu bat aldatzeko, ireki sarbide-puntuen multzo bat, eta hautatu ⇄ ikurra duen sarbide-puntu bat.

Segi zerbitzu-hornitzailearen jarraibideak. Hauta ezazu aukera hauetako bat:

- **Sarbidearen izena** – Sarbide-puntuaren izena zerbitzu-hornitzaileak ematen du.
- **Erabiltzaile-izena** – Erabiltzaile-izena beharrezkoa izan daiteke datu-konexioa ezartzeko. Normalean zerbitzu-hornitzaileak ematen du.
- **Pasahitza eskatzea** – Zerbitzari batera konektatzen zaren bakoiztean pasahitza idatzi behar baduzu edo gailuan zure pasahitza gorde nahi ez baduzu, hautatu **Bai.**

- **Pasahitza** – Pasahitza beharrezkoa izan daiteke datu-konexioa ezartzeko. Normalean zerbitzu-hornitzaileak ematen du.
- **Kautotzea**– Hautatu Segurua, beti pasahitz zifratua bidaltzeko, edo **Normala**, ahal denean pasahitz zifratua bidaltzeko.
- **Hasierako orria** – Konfiguratzen ari zaren sarbide-puntuaren arabera, idatzi multimedia-mezuen zentroaren helbidea edo web-helbidea.
- **Erabili** – Hautatu **Berretsi ostean**, sarbide-puntu horrek erabiltzen duen konexioa sortu aurretik berrestea eska diezazun nahi baduzu, edo, bestela, **Automatikoki**, gailua sarbide-puntu horrekin automatikoki konekta dadin nahi baduzu.

Hautatu **Aukerak** > **Ezarpen aurreratuak** eta aukera hauetako bat:

- **Sare-mota** – Hautatu gailutik eta gailura datuak transferitzeko Interneteko protokolo-mota. Beste doikuntzak hautatutako sare-motaren araberakoak dira.
- **Telefonoaren IP helbidea** (IPV4rako bakarrik) –: idatzi gailuaren IP helbidea.
- **DNS helbideak** – Sartu lehen eta bigarren mailako DNS zerbitzarien IP helbideak, zerbitzu-hornitzaileak eskatuz gero. Helbide horiek lortzeko, jarri harremanetan Interneteko zerbitzuen hornitzailearekin.
- **Proxy zerbitzariaren helbidea** – Sartu proxy zerbitzariaren helbidea.
- **Proxyaren ataka-zk.** –: sartu proxy zerbitzariaren atakaren zenbakia.

## Interneteko sarbide-puntuak (WLAN)

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Konektagarritas.** > **Helburuak** > **Sarbidea**, eta jarraitu pantailako argibideei.

Haririk gabeko sare lokalerako (WLAN) sarbide-puntu bat aldatzeko, ireki sarbide-puntuen multzo bat, eta hautatu ikurra duen sarbide-puntu bat.

Jarraitu zerbitzu-hornitzailearen jarraibideei.

- **WLAN sarearen izena** – Hautatu **Eskuz sartu** edo **Bilatu sareak.** Lehendik dagoen sare bat hautatzen baduzu, WLANen sare-modua eta WLANen segurtasun-modua zure gailuko sarbide-puntuaren doikuntzekin zehaztuta izango dituzu.
- **Sarearen egoera** –: definitu sarearen izena bistaratzea nahi duzun.
- **WLAN sarearen modua** – Hautatu **Ad-hoc**, ad-hoc sare bat sortu nahi baduzu, eta gailuek datuak zuzenean bidal eta jaso ditzaten. Ez da beharrezkoa haririk gabeko sare lokalera sarbide-puntua duen gailu bat izatea. Ad-hoc sareetan, gailuek WLAN sare bera erabili behar dute.
- **WLANen segurtasun-modua** – Hautatu erabili nahi duzun enkriptatzea: **WEP, 802.1x** (ad-hoc sareetarako ez) edo **WPA/WPA**2. **Sare irekia** hautatzen baduzu, ez da enkriptatzea erabiltzen. WEP, 802.1x eta WPA funtzioak sareak onartzen baditu bakarrik erabil daitezke.
- **Hasierako orria** – Sartu hasierako orriaren web-helbidea.
- **Erabili sarbidea** – Hautatu **Berretsi ostean**, sarbide-puntu horrek erabiltzen duen konexioa sortu aurretik berrestea eska

diezazun nahi baduzu, edo, bestela, **Automatikoki**, gailua sarbide-puntu horrekin automatikoki konekta dadin nahi baduzu.

Hautatutako segurtasun-moduaren doikuntzak sartzeko, hautatu **WLAN seguratsun-ezarpenak.**

### WEPen segurtasun-doikuntzak

- Erabiltzen ari den WEP gakoa – Hautatu WEP (Wired Equivalent Privacy) zifratze-metodoaren gako-zenbakia . Lau WEP gako sor ditzakezu. Haririk gabeko sare lokalaren sarbide-puntuaren gailuan doikuntza horiexek sartu behar dira nahitaez.
- **Kautotze-mota** – Hautatu **Irekia** edo **Partekatua** zure gailuaren eta haririk gabeko sare lokaleko sarbide-puntuaren gailuaren arteko autentifikatze-mota hautatzeko.
- WEP gakoaren ezarpenak – Sartu WEP enkriptatzea (gakoaren luzera), Formato clave WEP (ASCII edo Hexadecimal) eta Clave WEP (WEP gako-datuak, hautatutako formatuan).

### 802.1x eta WPA/WPA2 aukeretarako segurtasun-doikuntzak

- WPA/WPA2 –Hautatu kautotze-sistema: EAP, EAP (kautotze-protokolo hedagarria) plug-in bat erabiltzeko, edo Aurrez partekatutako gakoa, pasahitz bat erabiltzeko.

  Osatu dagozkion doikuntzak:

  - **EAP plug-inen ezarpenak** – sartu doikuntzak zerbitzu-hornitzailearen argibideen arabera.
  - **Aurrez partekatutako gakoa** – sartu pasahitz bat. Haririk gabeko sare lokalaren sarbide-puntuaren gailuan pasahitz horixe sartu behar da nahitaez.
- **WPA2 modua bakarrik** – WPA2rako prestatutako gailuek bakarrik ezar dezakete konexioa modu horretan.

### WLANen ezarpen aurreratuak

Hautatu **Aukerak** > **Ezarpen aurreratuak** eta aukera hauetako bat:

- **IPv4ren ezarpenak** – Sartu zure gailuaren IP helbidea, azpisarearen IP helbidea, pasabide lehenetsia eta lehen eta bigarren mailako DNS zerbitzarien IP helbideak. Helbide horiek eskuratzeko, jarri harremanetan Interneteko zerbitzu-hornitzailearekin.
- **IPv6ren ezarpenak** –: zehaztu DNS helbidearen mota.
- **Ad-hoc kanalak** (**Ad-hoc**-en kasuan bakarrik)–: kanalaren zenbakia (1-11) eskuz idazteko, hautatu **Erabiltzaileak definitua.**
- Proxy zerbitzariaren helbidea –: idatzi proxy zerbitzariaren helbidea.
- **Proxyaren ataka-zk.** –: idatzi proxyaren atakaren zenbakia.

## Datu-konexio aktiboak

Hautatu Menua > Ezarpenak eta Konektagarritas. > Konexio-kudtzl.

Aktibo dauden konexioen ikuspegian irekita dauden datu-konexioak agertzen dira:

Ⓓ datu-deia

datu-paketeen doikuntzak

haririk gabeko sare lokalaren (WLAN) konexioak

**Oharra:** Zerbitzu-hornitzailearen deien eta zerbitzuen benetako faktura aldatu egin daiteke sarearen ezaugarrien, fakturazioen biribiltzeen, zergen eta abarren ondorioz.

Konexioa amaitzeko, hautatu **Aukerak** > **Deskonektatu.**

Irekitako konexio guztiak ixteko, hautatu **Aukerak** > **Deskonektatu denak.**

Konexio baten xehetasunak ikusteko, hautatu **Aukerak** > **Xehetasunak.**

# Sinkronizazioa

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Konektagarritas.** > **Datu-transfer.**> **Sinkronizazioa.**

Sinkronizazioa aplikazioari esker, zure oharrak, telefono-aurkibideko sarrerak, testu- eta multimedia-mezuak, nabigatzaileko gogokoak eta hainbat aplikazio bateragarritako kontaktuak ordenagailu bateragarri batean edo Interneten sinkroniza ditzakezu.

Baliteke zure zerbitzu-hornitzaileak mezu berezi baten bidez zenbait sinkronizazio-doikuntza bidaltzea.

Sinkronizazio-profilak sinkronizatzeko behar diren doikuntzak ditu.

Aplikazioa irekitzean, sinkronizazio-profil lehenetsia edo azkena erabilia bistaratzen da. Profila aldatzeko, zoaz sinkronizazio-elementu bateraino, profilean sartu edo kanpoan uzteko.

Sinkronizazio-profilak kudeatzeko, hautatu **Aukerak** eta nahi duzun aukera.

Datuak sinkronizatzeko, hautatu **Aukerak** > **Sinkronizatu.** Sinkronizazioa bertan behera utzi nahi baduzu amaitu aurretik, sakatu **Utzi.**

# Bluetooth konektagarritasuna

## Bluetooth konexioari buruz

Bluetooth konexioaren bidez, haririk gabeko konexioa ezar daiteke beste gailu bateragarri batzuekin; adibidez, hauekin: telefono mugikorrak, ordenagailuak, entzungailuak eta ibilgailuko kitak.

Irudiak, bideoklipak, musika eta soinuklipak eta oharrak bidaltzeko erabil dezakezu konexioa, baita PC bateragarri batetik fitxategiak transferitzeko eta inprimagailu bateragarri batekin irudiak inprimatzeko ere.

Haririk gabeko Bluetooth teknologia erabiltzen duten gailuak irrati-uhin bidez komunikatzen direnez, ez da beharrezkoa gailuak elkarren bistan egotea. Dena den, 10 metro (33 oin) baino gutxiagoko distantziara egon behar dute gailuek; eta, hala ere, konexioan oztopoek (adibidez, paretak) edo beste gailu elektroniko batzuek interferentziak eragin ditzakete.

Gailu hau Bluetooth 2.0 + EDR zehaztapenarekin batera daiteke, eta profil hauek onartzen ditu: audio aurreratuaren banaketa, oinarrizko irudien prozesamendua, gailuen identifikazioa,

markatze-sarea, fitxategien transferentzia, sarbide generikoa, audio-/bideo-banaketa generikoa, objektu-aldaketa generikoa, esku-librekoa, entzungailuak, push objektua, telefono-aurkibiderako sarbidea, serieko ataka eta SIMerako sarbidea.

Bluetooth teknologia onartzen duten beste gailu batzuekin erabil daitekeela bermatzeko, erabili modelo honetarako Nokiak onartutako osagarriak bakarrik. Egiaztatu fabrikatzaileekin ekipo honekin zein gailu erabil daitekeen.

Bluetooth teknologia erabiltzen duten funtzioek bateria gehiago behar izaten dute, eta bateriak gutxiago irauten du.

Gailua blokeatuta dagoenean, ezin da erabili Bluetooth konektagarritasuna.

## Ezarpenak

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** > **Konektagarritas.** > **Bluetootha.**

Aplikazioa lehenbizikoz irekitzen duzunean, gailuari izen bat jartzeko eskatuko dizu. Izena edozein unetan alda daiteke.

Hauta ezazu aukera hauetako bat:

- **Bluetootha** –Bluetooth konexioa aktibatu edo desaktibatu.
- **Nire telef. ikusgaitasuna** – Beste gailu batzuk zure gailua aurkitu dezaten Bluetooth hari gabeko teknologiaren bidez, hautatu **Erakutsi guztiei**. Ikusgarritasuna ezkutuko izatera pasatzeko denbora-tartea zehazteko, hautatu **Zehaztu ikusgait. ald**. Zure gailua besteek ez detektatzeko moduan jartzeko, hautatu **Ezkutatuta.**
- **Nire telefonoaren izena** – editatu Bluetooth haririk gabeko teknologia erabiltzen duten beste gailuen izena.
- **Urrutiko SIM modua** – Aktibatu edo desaktibatu beste gailu bat (adibidez, ibilgailuko kit bateragarri bat) zure gailuko SIM txartela sarera konektatzeko erabiltzeko.

## Segurtasun-aholkuak

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** > **Konektagarritas.** > **Bluetootha.**

Ez baduzu Bluetooth konexioa erabiltzen, gailua zeinek aurkitu dezakeen jakiteko eta zein konekta daitekeen jakiteko, hautatu **Bluetootha** > **Desaktibatu** edo **Nire telef. ikusgaitasuna** > **Ezkutatuta.**

Ez onartu gailu ezezagunen eskaerarik eta ez itzazu lotu. Horrela, gailua eduki arriskutsuengandik babestuko duzu.

## Bluetooth konexioarekin datuak bidaltzea

Aldi berean hainbat Bluetooth konexio egon daitezke aktibatuta. Adibidez, entzungailu bateragarri batzuetara konektatuta bazaude, aldi berean beste gailu bateragarri batera transferi ditzakezu fitxategiak.

1. Ireki bidali nahi duzun elementua gordeta dagoen aplikazioa. Adibidez, irudi bat beste gailu bateragarri batera bidaltzeko, hautatu **Galeria** > **Irudiak, bideoak.**

2. Ukitu elementu bat eta hautatu **Aukerak** > **Bidali** > **Bluetooth bidez.**

   Pantailan ageri dira Bluetooth haririk gabeko teknologia duten eta irismen-eremuaren barruan dauden gailuak. Hauek dira gailuaren ikonoak:

   ordenagailua

   telefonoa

   audioaren eta bideoaren gailua

   beste gailu bat

   Bilaketa eteteko, sakatu **Gelditu.**

3. Hautatu konektatu nahi duzun gailua.

4. Datuak transmititzeko beste gailuak lotura ezarri behar badu, tonua jotzen du eta kode bat sartzeko eskatzen da. Kode bera sartu behar da bi gailuetan.

   Konexioa ezarri denean, hau ageri da: **Datuak bidaltzen.**

**Iradokizuna:** Gailuak bilatzerakoan, baliteke gailu batzuetan helbide bakarra agertzea (gailuaren helbidea). Gailuaren helbide bakarra ikusteko, sartu ***#2820#.**

## Gailuen arteko loturak ezartzea

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** > **Konektagarritas.** > **Bluetootha.**

Bateragarriak diren gailuak lotzeko eta lotutako gailuak ikusteko, ireki **Partekaturiko gailuak** fitxa.

Gailuak lotu aurretik, sartzeko kode propioa sortu behar duzu (1-16 digitukoa), eta beste gailuaren jabearekin ados jarri behar duzu kode bera erabiltzeko. Erabiltzailearen interfazerik gabeko gailuek fabrikan ezarritako sarbide-kodea dute. Sarbide-kodea behin bakarrik erabiltzen da.

1. Kontaktu bat lotzeko, hautatu **Aukerak** > **Partekaturiko gailu berria.** Irismen-eremuaren barruan aurkitzen diren gailuak erakusten dira.

2. Hautatu gailua eta sartu kodea. Kode bera sartu behar da beste gailuan.

3. Lotu direnean, zenbait audio-osagarri automatikoki konektatzen dira gailuarekin. Ez bada hori gertatzen, osagarri bat konektatzeko, hautatu **Aukerak** > **Audioko gailura konektatu.**

Lotura duten gailuak ikurrarekin adierazten dira.

Zerbitzu batek baimena duen edo ez zehazteko, hautatu aukera hauetako bat:

- **Baimendutzat ezarri** — Zure gailuaren eta baimendutako gailuaren arteko konexioak zure onespenik gabe ezar daitezke. Ez zaizu inolako baimen edo onespen zehatzik eskatuko. Aukera hori zure gailuekin soilik erabili (esaterako, EL eramangarri batekin edo PC batekin) edo konfiantzazko norbaiten gailuekin. ikurrarekin gailu baimenduak adierazten dira, lotutako gailuen ikuspegian.

- **Baimnd. Gabetzat ezarri** — gailu honetatik egiten diren konexio-eskaerak banaka onartu behar dira.

Gailu batekin dagoen lotura bertan behera uzteko, hautatu **Aukerak** > **Ezabatu**.

Lotura guztiak bertan behera uzteko, hautatu **Aukerak**> **Ezabatu guztiak**.

## Bluetooth konexioarekin datuak jasotzea

Datuak Bluetooth konexioaren bidez jasotzen direnean, seinale bat egiten du eta mezua onartzen duzun galdetzen dizu. Onartzen baduzu mezua agertzen da eta elementua mezuen sarrerako postontzian gordetzen da. Bluetooth konexio baten bidez jasotako mezuek ikonoa dute.

## Gailuak blokeatzea

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** > **Konektagarritas.** > **Bluetootha**.

Gailu bat blokeatzeko eta zure gailuarekin Bluetooth konexioak saihesteko, ireki **Partekaturiko gailuak** Fitxa. Hautatu blokeatu nahi duzun gailua (ez badago hautatua) eta hautatu **Aukerak** > **Blokeatu**.

Gailu bat desblokeatzeko ireki **Blokeatutako gailuak** fitxa, hautatu gailu bat (ez badago hautatua) eta hautatu **Aukerak** > **Ezabatu**.

Blokeatutako gailu guztiak desblokeatzeko, hautatu **Aukerak**> **Ezabatu guztiak**.

Beste gailu batek eginiko lotura-eskaera bat ukatzen duzunean, etorkizunean gailu horrek eginiko konexio-eskaera guztiak blokeatu nahi dituzun galdetuko zaizu. Eskaera onartzen baduzu, gailua blokeatutako gailuen zerrendara erantsiko da.

## Urruneko SIM modua

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** > **Konektagarritas.** > **Bluetootha**.

Urruneko SIM modua aktibatzeko, bi gailuak eta beste gailutik hasitako lotura lotu behar dira. Gailuak lotzeko, erabili 16 digituko kodea eta konfiguratu beste gailua baimendu gisa.

Autorako kit bateragarriarekin urruneko SIM modua erabiltzeko, aktibatu Bluetooth konexioa eta urruneko SIM modua erabiltzeko aukera gailuan. Aktibatu urruneko SIM modua beste gailuan.

Urruneko SIM modua aktibatuta dagoenean, **Urrutiko SIM modua** ageri da hasierako pantailan. Ezin dituzu SIM txartelaren zerbitzuak erabili, ez eta sare zelularreko estaldura behar duten funtzioak ere, haririk gabeko sareko konexioa desaktibatuta dago, irudiak adierazten duen moduan.

Haririk gabeko gailua urruneko SIM moduan dagoenean, konektatutako ekipo bateragarri bat besterik ezingo duzu erabili (adibidez, autorako kita) deiak egiteko edo jasotzeko. Gailuan programatuta dauden larrialdiko zenbakietarako deiak soilik egin ahal izango ditu zure haririk gabeko gailuak modu honetan. Zure gailutik deitzeko, urruneko SIM modutik irten behar duzu lehendabizi. Gailua blokeatuta badago, markatu blokeatze-kodea desblokeatzeko.

Urruneko SIM modutik irteteko, sakatu pizteko tekla eta hautatu **Urrutiko SIM modutik irten.**

## USB

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** > **Konektagarritas.** > **USB.**




Kable bateragarri bat konektatzen duzun bakoitzean gailuak konexioaren helburua galde dezan, hautatu **Konektatzean gald.** > **Bai.**

**Konektatzean gald.** aukera desaktibatuta badago edo konexio batean modua aldatu nahi baduzu, hautatu **USB konexio-modua** eta jarraian dauden aukeretako bat:

- **PC Suite**—erabili Nokiaren PCrako aplikazio bat (esaterako, Nokia Ovi suite eta Nokia Software Updater).
- **Memoria masiboa** – zure gailuaren eta PC bateragarri baten artean datuak transferitzeko.
- **Irudi-transferentzia** –bateragarria den inprimagailu batekin irudiak inprimatzeko.
- **Multim.-transferentz** –: Windows Media-ren erreproduzitzailearekin musika transferitzen du.

# PCarekin konektatzea

Datu-komunikazioko aplikazio ugarirekin eta PC erabilgarrietara konektatzeko aplikazioekin erabil daiteke mugikorra. Nokia Ovi Suite aplikazioarekin, adibidez, gailuaren eta bateragarri den PC baten artean fitxategiak eta irudiak transferitu daitezke.

Nokia Ovi Suite USB konexioarekin erabiltzeko, hautatu **PC Suite modua.**

Nokia Ovi Suite aplikaziori buruzko eta Nokiaren webguneko laguntza-orria deskargatzeko loturari buruzko informazio gehiago lortzeko, kontsultatu www.ovi.nokia.com.

# Administrazio-doikuntzak

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** > **Konektagarritas.** > **Admin. ezarp.**

Datu-deien konexioa egiterakoan, ordua linean zehazteko, hautatu **Datu-deia.** Datu-deien doikuntzek, GSM datu-deietan erabiliko den sarbide-puntuari eragiten diete,

## SIP doikuntzak

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** > **Konektagarritas.** > **Admin. ezarp.** > **SIP ezarpenak.**

SIP ezarpenak (Session Initiation Protocol) beharrezkoak dira SIP erabiltzen duten zenbait zerbitzu jakinetarako. Zure zerbitzu-hornitzaileak testu-mezu berezi batean bidal diezazkizuke ezarpenak. SIP ezarpenetan ezarpen-modu horiek ikusi, ezabatu edo sortu ditzakezu.

## Sarbide-puntuko izenen kontrola

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** > **Konektagarritas.** > **Admin. ezarp.** > **APN kontrola.**

Sarbide-puntuko izenen kontrol-zerbitzuarekin, datu-paketeen konexioak mugatu ditzakezu eta baimena eman dezakezu gailuak datu-paketeen sarbide-puntu batzuk soilik erabiltzeko.

Doikuntza hori bakar-bakarrik erabil daiteke SIM txartelak sarbide-puntuen kontrol-zerbitzua onartzen badu.

Kontrol-zerbitzua aktibatzeko edo desaktibatzeko edo onartutako sarbide-puntuak aldatzeko, hautatu  eta dagokion aukera. Aukera horiek aldatzeko, PIN2 kodea beharko duzu. Kode hori lortzeko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

## Datu-paketeen doikuntzak

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** > **Konektagarritas.** > **Admin. ezarp.** > **Pakete-datuak.**

Datu-paketeen doikuntzek datu-paketeen konexioa erabiltzen duten sarbide-puntu guztiei eragiten diete.

Hauta ezazu aukera hauetako bat:

- **Pakete-datuen konexioa** — **Eskuragarri denean** hautatzen baduzu eta datu-paketeak onartzen dituen sare batean bazaude, gailua datu-paketeen sarera erregistratzen da. Datu-paketeen konexioak aktibatuta izatea (esaterako, mezu elektronikoak bidaltzeko eta jasotzeko) ,beharrezkoa den bakoitzean datu-paketeen konexioa ezartzea baino azkarragoa da. Datu-paketeen estaldurarik ez badago, gailua datu-paketeen konexioa ezartzen saiatuko da aldizka. **Behar denean** hautatzen baduzu, gailuak behar duen aplikazio edo funtzio bat abiaraztean erabiliko du soilik datu-paketeen konexioa.
- **Sarbidea** —: sarbide-puntuaren izena nahitaezkoa da, gailua ordenagailurako datu-paketeen modem gisa erabiltzeko.
- **Abiad. hand. pak. sarbid.** —: UMTS sareetan HSDPA erabiltzea aktibatzen edo desaktibatzen du (sare-zerbitzua).

# 15. Linean partekatzea

## Linean partekatzea

Hautatu **Menua** > **Internet** > **Par. on-line.**

Linean partekatzeko zerbitzuarekin irudiak, bideo-klipak eta audio-klipak argitaratu ditzakezu zure gailutik linea bateragarrietako erabilera partekatuko zerbitzuetan. Esaterako, albumak eta blogak. Zerbitzu horietako artikuluak ikus ditzakezu eta iruzkinak bidal ditzakezu, eta edukiak deskargatu ditzakezu bateragarria den Nokia gailuan.

Onartutako eduki-motak zerbitzu-hornitzailearen arabera alda daitezke.

Linean partekatzeko zerbitzuaren erabilgarritasuna aldatu egin daiteke herrialdearen edo salmenta-gunearekin.

## Zerbitzuetan harpidetza egitea

Hautatu **Menua** > **Internet** > **Par. on-line.**

Linean erabilera partekatua izateko zerbitzu batean harpidetza egin nahi baduzu, zoaz zerbitzu-hornitzailearen webgunera eta begiratu Nokia zerbitzuarekin bateragarria ote den. Sortu kontu bat webguneko argibideei jarraituz. Gailua kontuarekin konfiguratzeko behar dituzun erabiltzaile-izena et pasahitza jasoko dituzu.

1. Zerbitzu bat aktibatzeko, ireki linean partekatzeko aplikazioa, hautatu zerbitzu bat eta hautatu **Aukerak** > **Aktibatu.**
2. Utz iezaiozu gailuari sare-konexio bat sortzen. Internetera sarbide-puntu bat eskatzen badizu, hautatu zerrendatik.
3. Hasi saioa zure kontuarekin, zerbitzu-hornitzailearen webguneko oharrei jarraituz.

Nokiaren linean partekatzeko erabilera duten zerbitzuak doakoak dira. Sarearen bidez transferitutako datuak zerbitzu-hornitzailearen tarifak izan ditzakete. Erabilgarritasunari, hirugarrenen zerbitzuen kostuari eta datu-transferentzien kostuari buruzko informazioa lortzeko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin edo dagokienekin.

## Kontuak kudeatzea

Zure kontuak ikusteko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Nire kontuak.**

Kontu berri bat sortzeko, hautatu **Aukerak** > **Gehitu kontu berria**.

Kontu baten erabiltzaile-izena edo pasahitza aldatzeko, hautatu kontua eta hautatu **Aukerak** > **Ireki.**

Gailutik artikuluak bidaltzerakoan, kontua lehenetsi moduan zehaztu nahi baduzu, hautatu **Aukerak** > **Lehenets. ezarri.**

Kontu bat ezabatzeko, hautatu kontua eta sakatu **Aukerak** > **Ezabatu.**

## Artikulu bat sortzea

Hautatu **Menua** > **Internet** > **Par. on-line.**

Zerbitzu batean multimedia fitxategiak argitaratzeko, hautatu zerbitzu bat eta sakatu **Aukerak** > **Karga berria.** Linean partekatzeko zerbitzuak fitxategiak argitaratzeko kanalak eskaintzen baditu, hautatu nahi duzun kanala.

Irudi bat, bideo-klip bat edo audio-klip bat eransteko artikuluan, hautatu **Aukerak** > **Txertatu.**

Izenburu bat edo deskribapen bat eransteko, sartu testua zuzenean eremuetan (erabilgarri baldin badaude).

Artikuluari etiketak eransteko, hautatu **Etiketak:.**

Fitxategian erantsitako kokapen-informazioa argitaratu edo ez hautatzeko, hautatu **Kokapena:.**

Fitxategi baten pribatutasun-maila zehazteko, hautatu **Pribatut:.** Denek fitxategia ikus dezaten baimentzeko, hautatu **Publikoa.** Besteek zure fitxategiak ikustea saihesteko, hautatu **Pribatua. Lehenets.** doikuntza ezarri dezakezu zerbitzu-hornitzailearen webgunean.

Artikulua zerbitzura bidaltzeko, hautatu **Aukerak** > **Webera kargatu.**

## Galeriako fitxategiak argitaratzea

Linean partekatzeko zerbitzu batean argitaratu ditzakezu Galeriako fitxategiak.

1. Ireki Galeria eta hautatu argitaratu nahi dituzun fitxategiak.
2. Hautatu **Aukerak** > **Bidali** > **Kargatu** eta nahi duzun kontua.
3. Aldatu artikulua beharrezkoa baldin bada.
4. Hautatu **Aukerak** > **Webera kargatu.**

# 16. Nokia bideo-zentroa

Nokiaren bideo-zentroarekin (sare-zerbitzua), bideo-klipak aire bidez deskarga eta transmiti ditzakezu Interneteko bideo-zerbitzu bateragarrietatik, datu-paketeen bidez edo WLAN baten bidez. Gailuarekin bateragarria den ordenagailu batetik ere transferi ditzakezu bideo-klipak, eta Bideo-zentro batean ikusi.

Bideoak deskargatzeko datu-paketeen sarbide-puntuak erabiltzeak zerbitzu-hornitzailearen sarearen bidez datu-kantitate handiak transmititzea eragin dezake. Datu-transmisioen karguei buruzko informazioa izateko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

Baliteke zure gailuak aurrez zehaztutako zerbitzuak izatea.

Zerbitzu-hornitzaileek doan eskain ditzakete zenbait eduki, edo tarifa bat kobratu. Egiaztatu zerbitzuaren prezioa, edo kontsultatu hornitzaileari.

## Bideo-klipak ikustea eta deskargatzea

### Bideo-zerbitzariarekin konektatzea

1. Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Bid.zentr.**
2. Zerbitzu batera konektatzeko eta bideo-zerbitzuak instalatzeko, hautatu **Bideo direktorioa** eta hautatu nahi duzun bideo-zerbitzua zerbitzu-katalogotik.

### Bideo-klip bat ikustea

Instalatutako bideo-zerbitzuen edukiak aztertzeko, hautatu **Bideo jarioak.**

Zenbait bideo-zerbitzuren edukia kategoriatan banatzen da. Bideo-klipak aztertzeko, hautatu kategoria bat. Zerbitzuaren bideo-klip bat bilatzeko, hautatu **Bideo bilaketa.** Baliteke bilaketa zenbait zerbitzutan erabilgarri ez egotea.

Hautatutako bideo-klipari buruzko informazioa ikusteko, hautatu **Aukerak** > **Bideo xehetasunak.**

Zenbait bideo-klipek aire bidez transmiti dezakete edukia; beste batzuk, berriz, gailura deskargatu behar dira lehendabizi. Bideo-klip bat deskargatzeko, hautatu **Aukerak** > **Deskargatu.** Deskargek bigarren mailan egoten jarraitzen dute, aplikaziotik ateraz gero. Deskargatutako bideo-klipak Nire bideoak karpetan gordetzen dira. Bideo-klip baten edukia transmititzeko edo deskargatutako bideo-klip bat ikusteko, hautatu **Aukerak** > **Erreproduzitu.** Bideoklip bat erreproduzitzean erreproduzitzaileko kontrol-teklak erabiltzeko, ukitu pantaila. Bolumena doitzeko, sakatu bolumen-tekla.

**Oharra:** Neurrizko bolumenean entzun musika. Bolumena etengabe oso ozen izateak entzumenari kalte egin diezaioke.

## Deskargak programatzea

Bideo-klipak automatikoki deskargatzeko moduan konfiguratzen bada aplikazioa, baliteke datu-bolumen handiak transmititzea zerbitzu-hornitzailearen sarearen bidez. Galdetu zerbitzu-hornitzaileari datu-transmisioaren kostua zenbatekoa den. Zerbitzu baten bideo-klipak automatikoki deskargatzea programatzeko, hautatu kategoria bat eta hautatu **Aukerak** > **Deskargak taulan jarri.** Bideo-zentroak automatikoki deskargatzen ditu bideo-klip berriak, egunero eta zehaztutako orduan.

Kategoria baterako programatutako deskargak deuseztatzeko, hautatu **Eskuzko deskarga** deskarga-metodoarekin.

# Bideo-iturriak

Instalatutako bideo-zerbitzuen edukia Atom edo RSS iturrien bidez banatzen da. Iturri horiek ikusteko eta kudeatzeko, hautatu **Bideo jarioak.**

Hautatu **Aukerak** eta aukera hauetako bat:

- **Jarioen harpidetzak** — Iturriek dituzten harpidetzak konstultatzeko.
- **Eguneratu jarioak** — Iturri guztieb edukiak eguneratzeko.
- **Gehitu jarioa**— Iturri berrietara harpidetza egiteko. Hautatu **Bideo deirektor. bidez** bideo-direktorioen zerbitzuetatik iturri bat hautatzeko edo **Gehitu eskuz** bideo-iturrien helbide bat eransteko.
- **Xehetasunak** — Bideo bati buruzko informazioa ikusteko.
- **Kudeatu kontua** — Iturri jakin baterako kontuko aukerak kudeatzeko (erabilgarri baldin badago).
- **Ezabatu jarioa** — Harpidetzetako iturri bat ezabatzeko. Baliteke aurrez instalatutako zenbait iturri ezin ezabatu ahal izatea.

Iturri batean erabilgarri dauden bideoak ikusteko, hautatu zerrendatik.

# Nire bideoak

Bideo zentroa aplikazioko bideo guztiak gordetzeko tokia da Nire Bideoak. Deskargatutako bideoen eta gailuko kamerarekin grabatutako bideoklipen zerrenda aparteko ikuspegitan egin dezakezu.

1. Karpeta irekitzeko eta bideoklipak ikusteko, hautatu karpeta. Bideoklip bat erreproduzitzean erreproduzitzaileko kontrol-teklak erabiltzeko, ukitu pantaila.
2. Bolumena doitzeko, sakatu bolumen-teklak.

Hautatu **Aukerak** eta aukera hauetako bat:

- **Isilik** edo **Desmututu** — Soinua aktibatzeko edo desaktibatzeko.
- **Deskargatu** — Gelditutako edo huts egindako deskarga batekin jarraitzeko.
- **Deskarga ezeztatu** — Deskarga bat bertan behera uzteko.
- **Bideo xehetasunak** — Fitxategiaren xehetasunak.
- **Aldatu aspektu-erlazioa —**Bideokliparen itxura aldatzea hautatzeko. Hautatu **Naturala, Luzatu** edo **Zooma.**
- **Memoria egoera** — Erabilita duzun memoria eta libre dagoen memoria ikusteko.

Memoria-txartel bateragarri batera bideoklipak eramateko edo han kopiatzeko, hautatu **Aukerak** > **Mugitu eta kopiatu** > **Kopiatu** edo **Mugitu** eta memoria-txartela.

# PCtik bideoak transferitzea

Transferitu zeure bideoklipak Bideo zentrora gailu bateragarrietatik, USB datu-kable bateragarri batekin. Gailuak onartzen duen formatudun bideoklipak bakarrik bistaratuko ditu Bideo zentroak.

1. Zure gailua mota guztietako datu-fitxategiak transferi ditzakeen memoria masiboko gailu gisa ikusteko PC batean, konektatu USB datu-kable batekin.
2. Hautatu **Memoria masiboa** konexio-modu gisa. Gailuarekin bateragarria den memoria-txartel bat sartu bat da.
3. Hautatu PCtik kopiatu nahi dituzun bideoklipak.
4. Transferitu bideoklipak memoria-txarteleko **E:\Nire bideoak** atalera.

   Transferitutako bideoklipak Bideo zentroa ataleko Nire bideoak karpetan agertuko dira. Ez dira bistaratuko bide-fitxategiak, ezta gailuko beste karpetak ere.

# Bideo-zentroaren doikuntzak

Bideo zentroko ikuspegi nagusian, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** eta aukera hauetako bat:

- **Bideo zerb- auk** — Hautatu Bideo-zentroan ager daitezen nahi duzun bideo-zerbitzuak. Halaber, bideo-zerbitzuaren xehetasunak gehitu, ezabatu, aldatu edo ikus ditzakezu. Ezin dituzu aldatu aurrez instalatutako bideo-zerbitzuak.
- **Konexio ezarpenak** — Sare-konexiorako erabiltzeko sare-helmuga definitzeko, hautatu **Sare konexioa.** Centro de vídeosek sare-konexio bat zabaltzen duen bakoitzean konexioa eskuz hautatzeko, hautatu **Beti galdetu.**

GPRS konexioa aktibatzeko edo desaktibatzeko, hautatu **Baiezatatu GPRS erabilera.**

Desplazamendua aktibatzeko edo desaktibatzeko, hautatu **Baieztatu ibiltaritza.**

- **Gurasoen kontrola**– Ezarri adin-muga bat bideoetarako. Gailuaren blokeatze-kodearen berdina da pasahitza. Hasieran, blokeatze-kodea hau da: **12345.** Eskaera-bideoaren zerbitzuetan, ezarritako adin-muga bera edo hortik gorakoa duten bideoak ezkutuan geratuko dira.
- **Hobetsitako memoria** – Hautatu deskargatutako bideoak gailuaren memorian edo memoria-txartel bateragarri batean gordeko diren.
- **Koadro txikiak** – Hautatu irudiak deskargatzeko eta bideo-informazioetan irudiak miniaturan ikusteko.

# 17. Web-nabigatzailea

Web-nabigatzailearekin, hipertestua markatzeko lengoaian (HTML) ikus ditzakezu web-orriak Interneten, hasieran diseinatu ziren bezala, alegia. Halaber, gailu mugikorrentzat espezifikoki diseinatutako web orrietan nabiga dezakezu, eta hipertestua markatzeko lengoaia hedagarria (XHTML) edo haririk gabeko markaketa-lengoaia (WML) erabili.

Webean nabigatzeko, Interneteko sarbide-puntu bat definituta eduki beharko duzu gailuan.

**Iradokizuna:** nabigatzailera bizkor sartzeko, ukitu multimedia-tekla (). Hori eginez gero, multimedia-barra irekiko da. Ondoren, aukeratu .

## Web-ean nabigatzea

Hautatu **Menua** > **Internet** > **Weba.**

**Garrantzitsua:** Kalte egin dezaketen programen aurkako babes eta segurtasun egokia eskaintzen dizuten konfiantzako zerbitzuak bakarrik erabili.

**Garrantzitsua:** konfiantzako iturrietako aplikazioak eta softwareak bakarrik erabili eta instalatu, adibidez, Symbian Signed duten edo Java VerifiedTM probak gainditu dituzten aplikazioak.

Web orri batean nabigatzeko, gogokoen zerrendan, hautatu gogoko bat edo idatzi helbidea () eremuan. Eta hautatu **Joan hona:**.

Baliteke web-orri batzuetako materialak –hala nola grafikoek edo soinuek– memoria asko behar izatea ikusteko. Era horretako web-orriren bat kargatzean memoriarik gabe geratzen bada zure gailua, ez dira bistaratuko orri horretako grafikoak.

Grafikorik ez duten web orrietan nabigatuz memoria aurrezteko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Orria** > **Kargatu edukia** > **testua soilik.**

Ikusi nahi duzun web-helbide bat sartzeko, hautatu **Aukerak** > **Joan hona** > **Web-orri berria.**

Web-orri bateko edukia eguneratzeko, hautatu **Aukerak** > **Web-orriaren aukerak** > **Birkargatu.**

Uneko web-orria gogokoetan gordetzeko, hautatu **Aukerak** > **Web-orriaren aukerak** > **Gorde laster-mrk. gisa.**

Uneko nabigazio-saioan ikusi dituzun orrien argazkiak bistaratzeko, hautatu **Atzera** (erabilgarri egongo da, baldin eta **Historia-zerrenda** aukera nabigatzailearen konfigurazioan gaitu baduzu eta uneko web-orria ez bada ikusten duzun lehen orria). Hautatu nahi duzun web-orria.

Uneko web-orrirako bigarren mailako komando-zerrenda edo ekintzak irekitzeko, hautatu **Aukerak** > **Zerbitzu-aukerak** (web-orriak aukera hori onartzen badu).

Leiho bat baino gehiago automatikoki batera ireki ez daitezen, hautatu **Aukerak** > **Web-orriaren aukerak** > **Blokeatu pop-up-ak** edo **Baimendu pop-up-ak.**

**Iradokizuna:** nabigatzailea bigarren mailan jartzeko, sakatu behin esekitzeko tekla. Konexioa amaitzeko, luze sakatu amaitzeko tekla.

# Nabigatzailearen tresna-barra

Nabigatzailearen tresna-barrak nabigatzailearekin maiz erabiltzen dituzun funtzioak hautatzen lagunduko dizu.

Tresna-barra aktiboan, hautatu aukera hauetako bat:

- **Zabaldu tresna-barra.** — Tresna-barra handitzeko, funtzio gehiagotara sartu ahal izateko.
- **Joan web-helbidera** — Web-helbide berriak idazteko.
- **Erakutsi zooma** — Web-orriak handitzeko eta txikitzeko.

Tresna-barra hedatua erabiltzeko, hautatu **Zabaldu tresna-barra** eta aukera hauetako bat:

- **Joan jarioetara** —infoetako uneko harpidetzak ikusteko.
- **Pant. osoa** — Pantaila osoko ikuspegira aldatzeko.
- **Harp. jario** — Uneko web-orrian dauden web-infoen zerrenda ikusteko, eta horietara harpidetzeko.
- **Ezarpenak** — Ezarpenak editatzeko.
- **Gord. Ist.-m.** — Uneko web-orria gogoko gisa gordetzeko.
- **Birkargatu** — Web-orria eguneratzeko.
- **Ikusp. orok.** — Uneko web-orriaren laburpena ikusteko.
- **Abiaorria** — Hasierako orrira joateko (ezarpenetan definituta badago).
- **Las.-markak** — Gogokoen ikuspegia irekitzeko.
- **Bil. gak.-htz..** — Uneko web-orrian bilaketa egiteko.

## Orrialdeetan nabigatzea

Informazio-kantitate handia duen web orri batean ari bazara nabigatzen, **Orriaren ikuspegi orokorra** funtzioa erabil dezakezu orriak duen informazio-mota ikusteko.

Uneko web-orriaren laburpena ikusteko, ireki tresna-barra eta hautatu  > .

## Web informazio-zerbitzariak eta blogak

Web-infoak web-orrietako XML fitxategiak dira, eta, besteak beste, azken albisteen titularrak edo blogak partekatzeko erabiltzen dira. Blogak edo Interneteko blogak web-egunkariak dira. Web-infoak Internetek, blogetan eta wiki-orrietan egoten dira.

**Web** aplikazioak automatikoki detektatzen du web orri batek web informazio-zerbitzariak dituen ala ez.

Web-info batean harpidetzeko, hautatu infoa eta **Aukerak** > **Harpidetu web-jarioetara.**

Web-infoa eguneratzeko, hautatu web-info bat, eta sakatu **Aukerak** > **Eguneratu**.

Web-infoak nola eguneratu definitzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Web-jarioak.**.

## Widget-ak

Zure gailuak onartzen ditu widget-ak. Widget-ak deskarga daitezkeen web aplikazio txikiak dira, eta zure gailuari multimedia-datuak, albisteei buruzko informazioa eta bestelako informazioa, esaterako meteorologia-txostenak, ematen dizkio. Instalatutako widget-ak aplikazio bereizi gisa agertzen dira **Aplikazioak** karpetan.

Deskargatu aplikazioa erabiliz edo web orritik deskarga ditzakezu.

Memoria-txartel bateragarrian ere instala ditzakezu widget-ak (erabilgarri badago).

Widget-etarako sarbide-puntu lehenetsia web nabigatzaileko bera da. Bigarren planoan aktibo daudenean, widget batzuek automatikoki egunera dezakete gailuko informazioa.

Widget-ak erabiltzean datu-bolumen handia transmiti daiteke zerbitzu-hornitzailearen sarearen bidez. Galdetu zerbitzu-hornitzaileari datu-transmisioaren kostua zenbatekoa den.

## Edukia bilatzea

Uneko orrian testua, telefono-zenbakiak edo helbide elektronikoak bilatzeko, hautatu **Aukerak** > **Bilatu gako-hitza** eta nahi duzun aukera. Aurreko bilaketara joateko, hautatu **Aukerak** > **Bilatu aurrekoa.** Hurrengo bilaketara joateko, hautatu **Aukerak** > **Bilatu hurrengoa.**

**Iradokizuna:** Uneko web-orrian testua bilatzeko, ireki tresna-barra eta hautatu > .

# Edukiak deskargatzea eta eskuratzea

Dei-seinaleak, irudiak, operadoreen logotipoak, softwareak, bideoklipak eta antzeko elementuak deskarga ditzakezu. Elementu horiek doan edo ordainduta lor daitezke. Dagokion aplikazioak gailuan deskargatutako elementuak kudeatuko ditu. Adibidez, argazki bat deskargatzen baduzu, **Galerian** gordeko da.

**Garrantzitsua:** konfiantzako iturrietako aplikazioak eta softwareak bakarrik erabili eta instalatu, adibidez, Symbian Signed duten edo Java Verified probak gainditu dituzten aplikazioak.

Elementua deskargatzeko:

1. Hautatu esteka.
2. Hautatu elementua eskuratzeko dagokion aukera, adibidez, **Erosi**.
3. Irakurri arretaz ematen zaizun informazio guztia.
4. Deskargatzen segitzeko edo bertan behera uzteko, hautatu aukeretako bat (adibidez, **Ados** edo **Utzi**).

Deskargatzen hastean, nabigazio-saioan uneko eta amaitutako deskargen zerrenda bistaratzen da.

Zerrenda ere aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Deskargak**. Zerrendan, hautatu elementu bat, eta hautatu **Aukerak**, uneko deskargak bertan behera uzteko edo amaitutako deskargak ireki, gorde edo ezabatzeko.

# Gogokoak

Gogokoen ikuspegia web aplikaziotik irekitzean irekitzen da. Zerrenda batean edo, **Berriki bisitatur. orriak** aukeran, gogokoen bilduma batean hauta ditzakezu web-helbideak **Berriki bisitatur. orriak.**

Tresna-barrak nabigatzailearekin maiz erabiltzen dituzun funtzioak hautatzen lagunduko dizu.

Tresna-barra aktiboan, hautatu aukera hauetako bat:

- **Gehitu laster-marka** – Gogoko berri bat eransteko.
- **Joan web-helbidera** – Web-helbide berria idazteko.
- **Ezabatu** – Gogoko bat ezabatzeko.

Hautatu **Aukerak** eta aukera hauetako bat:

- **Joan hona** –Web-helbide berri bat eransteko, aurreko web-orrira joateko edo web-infoetan edo blogetan gordetako estekak ikusteko.
- **laster-mark. aukerak** –Gogokoak bidaltzeko edo eransteko eta gogokoak hasierako orri gisa ezartzeko.
- **Laster-marka kudeatz.** –Gogokoak editatzeko, mugitzeko edo ezabatzeko.

Web aplikazioak nabigatzen ari zaren bitartean ikusten dituzun web orrien segimendua ere egiten du. **Berriki bisitatur. orriak** karpetan, ikusi dituzun web-orrien zerrenda ikus dezakezu.

## Cachea hustea

Sartu zareneko informazioa edo zerbitzuak gailuaren cache memorian jasotzen dira.

Cachea tarteko memoria da, datuak aldi baterako gordetzeko erabiltzen dena. Pasahitza eskatzen duen informazio konfidentzialera sartzen saiatzen bazara edo sartzen bazara, hustu telefonoaren cachea erabiltzen duzun bakoitzean.

**Cachea husteko, hautatu Aukerak** > **Garbitu datu pribatuak** > **Cachea**.

## Konexio-segurtasuna

Konexio batean ( ) segurtasun-adierazlea agertzen bada, gailuaren eta pasabidearen edo Interneteko zerbitzariaren arteko datu-transmisioa zifratu egingo da.

Segurtasun-ikonoak ez du esan nahi pasabidearen eta eduki-zerbitzariaren (eskatutako baliabidea biltegiratzen duen lekua) arteko datuen transmisioa ziurra denik. Zerbitzu-hornitzaileak pasabidearen eta edukien zerbitzariaren arteko datu-transmisioa ziurtatzen du.

Baliteke zerbitzari batzuek (banku-zerbitzuak, adibidez), segurtasun-ziurtagiriak behar izatea. Zerbitzarien identitatea benetakoa ez bada edo gailuan segurtasun-ziurtagiri egokia ez baduzu, abisatu egingo dizu. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

**Garrantzitsua:** ziurtagiriak erabiltzeak murriztu egiten ditu urruneko konexioei eta software instalazioei lotutako arriskuak, baina behar bezala erabili behar dira segurtasun gehigarri hori benetan aprobetxatzeko. Ziurtagiri bat egoteak, berez, ez du babesik ematen. Segurtasun hori erabili ahal izateko, ziurtagirien administratzailearen ziurtagiriek zuzenak, benetakoak edo fidagarriak izan behar dute. Ziurtagiriek iraupen mugatua dute. “Ziurtagiri iraungia” edo “Ziurtagiri ez-baliozkoa” testua agertzen bada baliozkoa izan behar lukeen arren, egiaztatu telefonoaren uneko ordua eta data zuzenak direla.

Ziurtagiriaren edozein balio aldatu aurretik, ziurtatu haren jabea konfiantza osokoa dela eta benetan zerrendan agertzen den jabearena dela.

# 18. Bilatzea

## Bilaketa funtzioari buruz

Hautatu **Menua** > **Internet** > **Bilaketa.**

Buscar funtzioaren bidez Interneten oinarritutako bilaketa-zerbitzuak erabil ditzakezu, adibidez, web-orriak edo irudiak aurkitzeko. Zerbitzuen edukia edo erabilgarritasuna aldakorra izan daiteke.

## Bilaketa bat hastea

Hautatu **Menua** > **Internet** > **Bilaketa.**

Gailu mugikorreko edukiak bilatzeko, sartu bilaketako terminoak bilaketaren eremuan, edo berrikusi edukiaren mailak. Emaitzak mailatan antolatuko dira, bilaketa-terminoak sartu ahala. Bilaketa-terminoak aurrez lortutako emaitzekin bat badatoz, emaitzen zerrendaren goiko partean bistaratzen dira.

Interneten web-orriak bilatzeko, hautatu **Bilaketa,** bilaketa-hornitzaile bat eta, ondoren, idatzi bilaketa-terminoa bilaketa-eremuan. Hautatu duzun bilaketa-hornitzailea ezarriko da Interneteko bilaketa-hornitzaile lehenetsi gisa.

Bilaketa-hornitzaile lehenetsi bat badago, hautatu bilaketa egiten hasteko, eta hautatu **Aukeratu zerbitzua** Interneteko beste hornitzaile bat erabiltzeko.

Zerbitzu-hornitzaile lehenetsi bat aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Aukeratu zerbitzua.**

Herrialdeko edo eskualdeko ezarpenak aldatzeko eta bilaketa-hornitzaile gehiago bilatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Herrial. edo eskuald..**

# 19. Deskargatu

Baliteke funtzio batzuk erabilgarri ez egotea eskualde batzuetan. Elementuen erabilgarritasunari buruzko informazio gehiago behar izanez gero, galdetu tokiko operadoreari.

## Desgargar aukerari buruz

Hautatu **Menua** > **Deskargatu!**.

Deskargatu! aplikazioarekin, edukia, zerbitzuak eta aplikazioak aurkitu, aurrez bistaratu, erosi, deskargatu eta eguneratu ditzakezu. Jokoetara, dei-seinaleetara, horma-paperetara, aplikazioetara eta beste aukera askotara erraz sar zaitezke. Elementuak zerbitzu-hornitzaileen arabera mailakatzen dira katalogoetan eta karpetetan. Eskura dagoen edukia zerbitzu-hornitzailearen araberakoa da.

**Deskargatu!** aplikazioak sare-zerbitzuak erabiltzen ditu edukirik eguneratuenetan sartzeko. **Deskargatu!** aplikazioaren bitartez dauden elementuei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin edo elementuen fabrikatzailearekin.

**Deskargatu!** aukerak etengabe jasotzen ditu eguneratzeak, eta zerbitzu-hornitzaileak zure gailurako eskaintzen duen eduki berriena eskaintzen dizu.

Elementuek tarifak dituzte, baina, normalean, doan ikus daitezke. Tarifei buruz informazio gehiago lortzeko, galdetu zerbitzu- edo elementu-hornitzaileari.

Deskargatu! aukerako edukia eskuz eguneratzeko, hautatu **Aukerak** > **Freskatu edukia.**

## Elementuak eskuratzea eta deskargatzea

Ikuspegi nagusian, karpeta batean edo katalogo batean hautatutako elementua erosteko, hautatu **Aukerak** > **Erosi.** Elementuaren bertsioa hautatzeko eta prezioari buruzko informazioa bistaratzeko azpimenua irekitzen da. Aukera horiek zerbitzu-hornitzailearen araberakoak dira.

Doako elementu bat deskargatzeko, hautatu **Aukerak** > **Eskuratu.**

# 20. Beste zenbait aplikazio

## Erlojua

Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Erlojua**.

### Iratzargailua

Alarma aktibatuak eta aktibatuta ez daudenak ikusteko, sakatu **Alarmak**. Alarma aktibatuta dagoenean, agertuko da. Alarma bat errepikatu egiten denean, bistaratzen da.

Alarma bat ezartzeko, hautatu **Alarma berria.** Alarma bat egun bererako edo egun jakin baterako finkatzeko edo errepikatzen den alarma bat finkatzeko, hautatu **Errepikatu.**

Alarma bat bertan behera uzteko, hautatu **Alarmak**, joan alarmara eta hautatu **Aukerak** > **Kendu alarma**.

Jotzen ari den alarma geldiarazteko, aukeratu **Gelditu**. Alarma denbora jakin baterako gerarazteko, aukeratu **Errepikatu**. Alarmak jo behar duenean gailua itzalita badago, piztu egingo da eta alarma jotzen hasiko da.

Alarma errepikatzeko denbora-tartea definitzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Alarma errepika. tartea.**

Ordua, data edo erloju-motaren ezarpenak aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak.** Gailuko datari, orduari eta ordu-eremuari buruzko informazioa automatikoki eguneratzeko (sare-zerbitzua), hautatu **Ordu-eguneratze autom.** > **Aktibatu.**

### Munduko erlojua

Munduko hainbat tokitako uneko ordua ikusteko, hautatu **Munduko ordua.** Zerrendan kokapenak gehitzeko, hautatu **Aukerak** > **Gehitu kokapena**.

Zure kokapena ezartzeko, joan kokapen batera eta hautatu **Aukerak** > **Uneko kokap. gisa ezarri**. Gailuko ordua aldatu egingo da hautatutako kokapenaren arabera. Ziurtatu ordua zuzena dela eta zure ordu-eremuarekin bat datorrela.

# Agenda

Agenda irekitzeko, hautatu **Menua** > **Egutegia.**

## Agendaren ikuspegiak

Hilabetearen, astearen, egunaren eta zereginen oharren ikuspegietan batetik bestera aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Aldatu ikuspegia** > **Hilabetea, Astea, Eguna** edo **Egitekoak.**

Astearen hasierako eguna, agenda irekitzen denean bistaratzen den ikuspegia edo egutegiko alarmaren ezarpenak aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak.**

Egun jakin batera joateko, hautatu **Aukerak** > **Datara joan.**

## Egutegiaren tresna-barra

Agendako tresna-barran, hautatu aukera hauetako bat:

- **Hurrengo ikuspegia** — hilabetearen ikuspegia hautatzeko.
- **Hurrengo ikuspegia** — astearen ikuspegia hautatzeko.
- **Hurrengo ikuspegia** — egunaren ikuspegia hautatzeko.
- **Hurrengo ikuspegia** — zereginen ikuspegia aldatzeko.
- **Bilera berria** — bilera bati dagokion gogorarazle berri bat eransteko.
- **Zeregin-ohar berria** — zeregin bati dagokion ohar bat eransteko.

# Fitxategien kudeatzailea

## Fitxategien kudeatzaileari buruz

Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Fitxat. kud...**

Fitxategi-kudeatzailearekin, gailuan, memoria-txartelean e do kanpoko unitate bateragarriren batean fitxategiak aztertu, kudeatu eta ireki ditzakezu.

Erabil ditzakezun aukerak hautatutako memoriaren araberakoak dira.

## Fitxategiak bilatzea eta antolatzea

Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Fitxat. kud...**

Fitxategi bat bilatzeko, hautatu **Aukerak** > **Bilatu.** Sartu fitxategiaren izenarekin bat datorren testu bat.

Memorian fitxategiak eta karpetak mugitzeko eta kopiatzeko, edo karpeta berriak sortzeko, hautatu **Aukerak** > **Antolatu** eta nahi duzun aukera.

Fitxategiak sailkatzeko, hautatu **Aukerak** > **Sailkatze-irizpidea** eta nahi duzun aukera.

## Memoria-txartela sartzea

Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Fitxat. kud...**

Aukera horiek eskuragarri izango dira soilik gailuan memoria-txartel bateragarri bat txertatzen denean.

Hautatu **Aukerak** eta aukera hauetako bat:

- **Memoria-txartelaren aukerak** —memoria-txartelari izen berria emateko edo formateatzeko.

- **Memoria-txartelaren pasahitza.** — memoria-txartel bat pasahitz bidez babesteko.
- **Desblokeatu memoria-txartela.** — memoria-txartel bat desblokeatzeko.

## Memoria-txartel baten fitxategien segurtasun-kopia

Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Fitxat. kud...**

Fitxategien segurtasun-kopiak egiteko, hautatu memoria-txartelean segurtasun-kopia egin nahi diezun fitxategi-motak eta **Aukerak** > **Segurtasun kopia orain.** Egiaztatu memoria-txartelak nahiko leku baduela fitxategi horien segurtasun-kopiak jasotzeko.

# Aplikazioen kudeatzailea

Aplikazioen kudeatzailearekin gailuan instalatutako software-paketeak eta instalatutako aplikazioei buruzko informazioa ikus ditzakezu, aplikazioak ken ditzakezu eta instalazioko ezarpenak defini ditzakezu.

Gailuan bi motatako aplikazioak eta softwarea instala daitezke:

- Java® teknologian oinarritutako JME aplikazioak; .jad o .jar luzapena dute.
- Symbian sistema eragilearekin bateragarriak diren beste aplikazio eta software batzuk; .sis edo .sisx luzapena dute.

Gailuarekin bateragarriak diren softwareak bakarrik instalatu.

## Aplikazioak instalatzea

Instalazio-fitxategiak transferi ditzakezu ordenagailu bateragarri batetik gailura; horrez gain, nabigazioan deskarga ditzakezu edo multimedia-mezu batean jaso (mezu elektronikoan atxikita) edo beste konexio-mota batzuk erabili (adibidez, Bluetooth konexioa).

Nokia Ovi Suite aplikazioen instalatzailea erabil dezakezu gailuan aplikazioak instalatzeko.

Aplikazioen kudeatzailearen ikonoek hauxe adierazten dute:

SIS edo SISX aplikazioak

Java aplikazioa

widget-ak

memoria-txartelean instalatutako aplikazioak

**Garrantzitsua:** konfiantzako iturrietako aplikazioak eta softwareak bakarrik erabili eta instalatu, adibidez, Symbian Signed duten edo Java VerifiedTM probak gainditu dituzten aplikazioak.

Instalatu aurretik kontuan hartzekoak:

- Aplikazio-mota, bertsio-zenbakia eta aplikazioaren hornitzailea edo fabrikatzailea ikusteko, hautatu **Aukerak** > **Ikusi xehetasunak.**

  Aplikazioaren segurtasun-ziurtagiriaren informazioa ikusteko, hautatu **Xehetasunak:** > **Ziurtagiriak:** > **Ikusi xehetasunak.**

**Ziurtagirien kudeaketa** aukeraren bidez ziurtagiri digitalen erabilera kontrola dezakezu.

- Lehendik dagoen aplikazio baten eguneratzea edo konponketa duen fitxategi bat instalatzen baduzu, jatorrizko aplikazioa berrezartzeko, nahitaezkoa da jatorrizko instalazio-fitxategia edo ezabatutako software-paketearen segurtasun-kopia osoa izatea. Jatorrizko aplikazioa berrezartzeko, ezabatu eta, gero, instalatu berriz jatorrizko instalazio-fitxategitik edo segurtasun-kopiatik.

  Java aplikazioak instalatzeko, JAR fitxategia behar duzu. Ez baduzu, gailuak deskargatzeko eskatuko dizu. Aplikazioarentzako sarbide-punturik definitu ez bada, bat hautatzeko eskatuko dizu.

Aplikazioak instalatzeko:

1. Instalatzeko fitxategi bat bilatzeko, sakatu ... eta hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Aplikazio-kudtzl.** Nahi izanez gero, instalazio-fitxategiak bila ditzakezu Fitxategien kudeatzailearen bidez, edo hautatu **Mezularitza** > **Sarr. erretilua** eta instalazio-fitxategi bat duen mezu bat ireki.
2. Aplikazioen kudeatzailean, hautatu **Aukerak** > **Instalatu.** Beste aplikazio batzuetan, instalazioa abiarazteko, hautatu instalazio-fitxategia.

   Instalatzen ari den bitartean, prozesua nola doan erakusten du gailuak. Instalatutako aplikazioak sinadura edo ziurtagiri digitalik ez badu, oharra agertzen da gailuan. Instalatzen jarraitu aurretik, ziurtatu aplikazioaren jatorria eta edukia seguruak direla.

Instalatutako aplikazio bat martxan jartzeko, bilatu menuan eta sakatu. Aplikazioak lehenetsitako karpetarik ez badu, menu nagusian **Aplics. instaladas** karpetan instalatzen da.

Zer software-pakete instalatu edo ezabatu den, eta noiz, jakiteko, hautatu **Aukerak** > **Ikusi erregistroa**.

**Garrantzitsua:** Zure gailuak antibirus aplikazio bakarra onartzen du. Antibirus funtzioak dituzten aplikazio bat baino gehiago edukitzeak eragina izan dezake gailuaren errendimenduan eta funtzionamenduan, eta, kasu batzuetan, litekeena da ez funtzionatzea.

Aplikazioak memoria-txartel bateragarrian instalatu ondoren, instalazio-fitxategiak (.sis, .sisx) gailuaren memorian geratzen dira. Litekeena da fitxategi horiek memoria-kantitate handia erabiltzea eta beste zenbait fitxategi gordetzen ez uztea. .sis fitxategia mezu baten eranskina bada, ezabatu mezua sarrerako ontzitik.

## Aplikazioak kentzea

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Aplikazio-kudtzl...**

Software-pakete bat kentzeko, hautatu **Apl. instalatuak** > **Aukerak** > **Ezabatu.** Ekintza berresteko, hautatu **Bai.**

Softwarea ezabatzen baduzu, jatorrizko instalazio-fitxategia edo ezabatutako software-paketearen segurtasun-kopia osoa beharko duzu berrezartzeko.

Software-pakete bat ezabatzen baduzu, gerta liteke software horrekin sortutako dokumentuak irekitzeko aukerarik ez izatea.

Beste software-pakete bat ezabatutakoaren menpe badago, litekeena da hark ere ez funtzionatzea. Informazio gehiago behar izanez gero, ikus instalatutako software-paketearen dokumentazioa.

## Aplikazioen kudeatzailearen doikuntzak

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Aplikazio-kudtzl.**.

Hautatu **Instalazio xehetasunak** eta aukera hauetako bat:

- **Softwarearen instalazioa** — hautatu Symbian-en softwarea sinadura digitala egiaztatu gabe instala daitekeen.
- **Ziurtagir. Sareko egiazt.** —hautatu aukera hau aplikazioak instalatu aurretik sarean ziurtagiriak egiaztatzeko.
- **Lehenets. web helbidea.** — Konfiguratu sarean ziurtagiriak egiaztatzeko erabiliko duzun web-helbide lehenetsia.

# Aplikazioak eguneratzea

Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Aplik. egun.**.

Aplikazioak eguneratzeko funtzioarekin, aplikazioen eguneratzeak bilatu ditzakezu, eta gailuan deskargatu.

Aplikazioak eguneratzeko funtzioarekin gailuko softwarea eguneratu ondoren, baliteke erabiltzailearen gidaliburuko funtzioen jarraibideak edo eguneratutako aplikazioen laguntzak eguneratuta ez egotea.

Erabilgarri dauden eguneratzeak deskargatzeko, hautatu **Aukerak** > **Hasi eguneratzen.**

Eguneratzeei marka kentzeko, hauta itzazu.

Eguneratze bati buruzko informazioa ikusteko, hautatu **Aukerak** > **Ikusi xehetasunak.**

Ezarpenak aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak**.

# RealPlayer

RealPlayer-ekin bideoklipak erreproduzi ditzakezu eta multimedia-fitxategiak airetik transmiti ditzakezu, gailuan gorde beharrik gabe.

RealPlayer-ek ez ditu onartzen fitxategi-formatu guztiak edo fitxategi-formatuen bariazio guztiak.

Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **RealPlayer.**

## RealPlayer-en tresna-barra

Bideoklipen, transmisioen esteken eta erreproduzitu berriak dituzunen ikuspegian, aukera hauek daude tresna-barran:

- **Bidali** — bideoklip bat edo transmisio-lotura bat bidaltzeko.
- **Erreproduzitu** — bideoklip bat edo transmititutako bideo bat erreproduzitzeko.
- **Ezabatu** — bideoklip bat edo transmisio-lotura bat ezabatzeko.
- **Kendu** — erreproduzitu berriak direnen zerrendako fitxategi bat ezabatzeko.

## Bideoklipak erreproduzitzea

Bideoklip bat erreproduzitzeko, hautatu **Bideoklipak** eta bideoklipa.

Erreproduzitu berriak diren fitxategien zerrenda ikusteko, hautatu **Azkena errepr..**

Zerrendan, joan bideoklip batera, hautatu **Aukerak** eta aukera hauetako bat:

- **Erabili bideoklipa** — kontaktu bati bideo bat esleitzeko edo dei-seinale gisa ezartzeko.
- **Markatu/Marka kendu** — aldi berean hainbat elementu bidaltzeko edo ezabatzeko, zerrendako elementuak markatzeko.
- **Ikusi xehetasunak** — hautatutako elementuaren xehetasunak ikusteko (adibidez, formatua, bereizmena eta iraupena).
- **Ezarpenak** — bideoak eta streaming-ak erreproduzitzeko konfirmazioa editatzeko.

## Edukia airetik transmititzea

RealPlayer-en, RTSP estekak baino ezin dira ireki. Hala ere, RealPlayer-ek RAM fitxategiak ere erreproduzitzen ditu, fitxategi horietako batera HTTP esteka nabigatzailean irekiz gero.

Edukia airetik transmititzeko (sare-zerbitzua), RealPlayer-en, hautatu **Streaming estekak** eta esteka bat. Streaming-esteka bat testu- edo multimedia-mezu batean ere jaso dezakezu, edo web-orri batean esteka ireki. Transmisioa abiarazi aurretik, gailua gunera konektatzen da, eta edukia kargatzen hasten da. Edukia ez da gailuan gordetzen.

# Grabagailua

Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Grabagailua.**

Grabagailua aplikazioarekin ahots-memorandumak eta telefonoko elkarrizketak graba ditzakezu.

Ezin da grabagailurik erabili datu-dei bat edo GPRS konexio bat aktibatuta daudenean.

Soinu-klip bat grabatzeko, hautatu ●.

Soinu-klip baten grabazioa geldiarazteko, hautatu ■.

Soinu-klip bat entzuteko, hautatu ▶.

Grabazioaren kalitatea edo soinu-klipak gordetzeko kokalekua aukeratzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak.**

Grabatutako soinu-klipak Galeriako Soinuklipak karpetan gordetzen dira.

Elkarrizketa bat grabatzeko, ireki grabagailua ahots-dei batean, eta hautatu ●. Grabazioan zehar, bi solaskideek tonu bat entzungo dute 5 segundoz behin.

# Oharrak idaztea

Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Oharrak.** Ohar bat idazteko, hautatu **Aukerak** > **Ohar berria.** Ukitu testua idazteko oharraren eremua, eta hautatu ✓.

Oharrak-en, jasotako testu-fitxategiak gorde ditzakezu (.txt formatua)

## Kalkulagailua

Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Kalkulag.**

Kalkulagailuak doitasun mugatua du, kalkulu errazak egiteko diseinatuta dago.

Kalkuluak egiteko, idatzi eragiketaren lehen zenbakia. Zenbaki bat ezabatzeko, hautatu C. Hautatu funtzio bat (adibidez, batuketa edo kenketa). Idatzi kalkuluko bigarren zenbakia eta hautatu =.

## Bihurgailua

Bihurgailuarekin, unitate batetik bestera alda ditzakezu neurriak.

Bihurgailuak zehaztasun mugatua du, eta biribiltzerakoan akatsak egin ditzake.

Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Bihurgailua.**

## Hiztegia

Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Hiztegia.**

Hitzak hizkuntza batetik bestera itzultzeko, idatzi testua bilaketa-eremuan. Testua idatzi ahala, itzuli nahi duzun hitzaren iradokizunak agertzen dira. Hitz bat itzultzeko, hautatu zerrendan.

Hautatu **Aukerak**
eta aukera hauetako bat:

- **Entzun** – Hautatutako hitza entzuten da.
- **Historia** –Uneko saioan lehenago itzuli diren hitzak bilatzen ditu.
- **Hizkuntzak** – Jatorrizko eta helburuko hizkuntzak aldatzen ditu.
- **Hizkuntzak** – Internetetik hizkuntzak deskargatzen ditu, edo hiztegiko hizkuntza bat ezabatzen du. Ingelesa ezin da hiztegitik ezabatu. Ingelesaz gain, beste hizkuntza batzuk ere izan ditzakezu instalatuak.
- **Ahotsa** – Ahots-funtzioaren doikuntzak aldatzen ditu. Ahotsaren abiadura eta bolumena doitu ditzakezu.

# 21. Ezarpenak

Litekeena da zerbitzuen hornitzaileak doikuntza batzuk aldez aurretik ezarriak izatea; hala bada, ezin izango dituzu editatu.

## Telefonoaren ezarpenak

### Dataren eta orduaren doikuntzak

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Data eta ordua.**

Hauta ezazu aukera hauetako bat:

- **Ordua** – uneko ordua sartzeko.
- **Ordu eremua** – kokapena aukeratzeko.
- **Data** – data sartzeko.
- **Data formatua** – data-formatua hautatzeko.
- **Data banatzailea** – egunak, hilabeteak eta urteak bereizteko ikurra hautatzeko.
- **Ordu formatua** –ordu-formatua hautatzeko.
- **Ordu banatzailea** – orduak eta minutuak bereizten dituen ikurra hautatzeko.
- **Erloju mota** – erloju-mota hautatzeko.
- **Erlojuaren alarma-tonua** – iratzargailuaren tonua hautatzeko.
- **Alarma errepika. tartea** – alarma errepikatzeko itxarote-denbora doitzeko.
- **Lanegunak** – lanegunak hautatzeko. Alarma bat defini dezakezu, adibidez, lanegunetan soilik jotzeko.
- **Ordu-eguneratze autom.** – Ordua, data eta ordu-eremua eguneratzeko, sakatu **Activada.** Litekeena da sare-zerbitzu hori sare guztietan ez erabilgarri egotea.

## Hizkuntzaren doikuntzak

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Hizkuntza.**

Gailuaren hizkuntza aldatzeko, hautatu **Telefonoaren hizkuntza.**

Idazketa-hizkuntza aldatzeko, hautatu **Idazteko hizkuntza.**

Testua modu prediktiboan sartzea aktibatzeko edo desaktibatzeko, hautatu **Testu iragarlea.**

## Ikuspenaren doikuntzak

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Pantaila.**

Hauta ezazu aukera hauetako bat:

- **Argi-sentsorea** – Gailuaren argi-sentsorearen sentikortasuna doitzeko. Inguruko argia ahula denean aktibatzen da sentsorearen argia, eta ingurua argi dagoenean desaktibatzen da.
- **Letra-tamaina** – pantailako testuaren eta ikonoen tamaina hautatzeko.
- **Ongietorri-oharra / logoa** –gailua aktibatzean ohar bat edo irudi bat agertzea nahi den aukeratzeko.
- **Argiaren iraupena** – gailua erabiltzeari uztean argiak zenbat denbora iraun behar duen definitzeko.

## Ahots-komandoak

Ahots-komando hobetuen bidez gailua kontrolatu ahal izango duzu.

Aplikazioak eta profilak abiarazteko ahots-komandoak aktibatzeko, luze sakatu hasierako pantailako eskuineko hautaketa-tekla.

Ahots-komando hobetuak erabiltzeko, luze sakatu hasierako pantailako deitzeko tekla, eta esan ahots-komando bat. Zerrendan bistaratzen den aplikazioaren edo moduaren izena da ahots-komandoa.

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Ahots-komand.**

Ahots-komandoa aldatzeko, hautatu **Profilak** > **Aukerak** > **Aldatu komandoa.**

Ahots sintetizatuzko etiketa entzuteko, aukeratu **Aukerak** > **Erreproduzitu**.

Eskuz erantsitako ahots-komando bat ezabatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezabatu ahots-komandoa.**

Hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** eta aukera hauetako bat:

- **Sintetizadorea** – grabazioak eta gailuaren hizkuntzan ezagutzen diren ahots-komandoak erreproduzitzen dituen sintetizadorea pizteko edo itzaltzeko
- **Erreprodukz. bolumena** – ahots-komandoen erreprodukzio-bolumena doitzeko
- **Ezagutze-sentsibilitatea** – sintetizadoreak hizketa ezagutzeko duen erraztasuna doitzeko. Sentsibilitate oso altua jartzen bazaio, litekeena da bigarren mailako hotsen eraginez komandoak ez onartzea.
- **Komando-egiaztapena** – ahots-komandoa eskuz, ahotsez ala automatikoki onartzen den hautatzeko
- **Berrezarri ahots-egokitz.** – ahotsa ezagutzeko funtzioa berrrezartzeko, adibidez, gailuaren erabiltzaile nagusia aldatu denean

## Osagarrien doikuntzak

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Osagarriak.**

Osagarrien konektore batzuek adierazten dute zer osagarri-mota dagoen gailura konektatuta.

Hautatu gailu bat eta aukera hauetako bat:

- **Profil lehenetsia** – definitu zein profil aktibatzea nahi duzun, gailuarekin bateragarria den osagarri jakin bat konektatzen duzun aldiro.
- **Erantzun automatikoa** – dei bat sartu eta bost segundora gailuak deiari automatikoki erantzutea nahi duzun hautatu. Dei-mota **Bip bat** edo **Isilik** bada, erantzun automatikoko funtzioa desaktibatu egingo da.
- **Argiak** – ezarri itxarote-denboraren ondoren argiak piztuta jarraitzea nahi duzun.

Doikuntzak osagarri-motaren araberakoak dira.

## Telebista-irteeraren doikuntzak

Telebistako irteera-konexio baten konfigurazioa aldatzeko, hautatu **TB-irteera** eta aukera hauetako bat:

- **Profil lehenetsia** –hautatu zer modu aktibatu nahi duzun, Nokiaren bideoaren konexio-kablea gailura konektatzen duzun bakoitzean.
- **TB pantailaren tamaina** – hautatu telebistaren formatu-ratioa: **4:3** edo **16:9** (TB panoramikoa).
- **TB-sistema** – hautatu telebistarekin bateragarria den bideo analogikoaren seinalearen sistema.
- **Keinukari-iragazkia** – telebistaren pantailaren irudiaren kalitatea hobetzeko, hautatu **Aktibatu.** Litekeena da dar-dar ez egiteko iragazkiak ez murriztea irudiaren dar-dar hori, telebistako pantaila guztietan.

## Aplikazioen doikuntzak

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Aplikazio-ezarp..**

Aplikazioen doikuntzetan, gailuaren aplikazio batzuen doikuntzak edita ditzakezu.

Doikuntzak editatzeko, aplikazio bakoitzean **Aukerak** > **Ezarpenak** ere hauta dezakezu.

## Gailuaren eguneraketak

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Telef. kudeaketa** > **Gailu egunerak..**

Erabili gailuaren eguneraketak software-eguneraketak bilatzeko, zerbitzari batera konektatu eta gailuaren konfigurazioaren doikuntzak jasotzeko, zerbitzari-profil berriak sortzeko, softwarearen bertsioak eta gailuari buruzko informazioa ikusteko, eta zerbitzari-profilak kudeatzeko.

Zerbitzu-hornitzaileak eta enpresako informazioa kudeatzeko sailak bidal diezazkizuke zerbitzariaren profilak eta konfigurazio-doikuntzak. Konfigurazio-doikuntzek konexio-doikuntzak eta gailuko aplikazioen beste doikuntza batzuk izan ditzakete, besteak beste.

Software-eguneraketarik badagoen ikusteko, hautatu **Aukerak** > **Bilatu eguneratzeak.**

Zerbitzarira konektatzeko eta gailuaren konfigurazio-doikuntzak jasotzeko, hautatu **Aukerak** > **Zerbitzari-profilak,** profil bat eta **Aukerak** > **Hasi konfigurazioa.**

Zerbitzariko profil bat sortzeko, hautatu **Aukerak** > **Zerbitzari-profilak**> **Aukerak** > **Zerbitzari-profil berria.**

Zerbitzariko profil bat ezabatzeko, hautatu profila eta **Aukerak** > **Ezabatu.**

## Segurtasun konfigurazioa

### Telefono y SIM

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Telef. kudeaketa** > **Segurtasuna** > **Telefonoa eta SIM txartela.**

Hauta ezazu aukera hauetako bat:

- **PIN kode eskaera**– aktibatuta dagoenean, gailua pizten den bakoitzean kodea sartu behar da. SIM txartel batzuek ez dute PIN kodearen eskaera desaktibatzen uzten.
- **PIN kodea** eta **PIN2 kodea** - Aldatu PIN eta PIN2 kodeak. Kode horiek zenbakiak soilik izan ditzakete. Ez erabili larrialdietarako zenbakien antzeko sarbide-kodeak; izan ere, ustekabean, larrialdietarako zenbakiak marka ditzakezu. PIN1 edo PIN2 kodea ahaztu egin baduzu, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin. Blokeatzeko kodea ahaztu baduzu, jarri harremanetan Nokia Care gunearekin edo zerbitzu-hornitzailearekin.
- **Blokeatzeko kodea** – Blokeatzeko kodea gailua desblokeatzeko erabiltzen da. Gailua baimenik gabe erabil ez dadin, aldatu blokeatzeko kodea. Aurrez ezarritako kodea 12345 da. Kode berriak 4-255 karaktere izan ditzake. Karaktere alfanumerikoak erabil daitezke, letra larri eta xeheekin.

Blokeoa behar bezala konfiguratu ez bada, gailuak jakinaraziko dizu. Gorde kode berria leku sekretuan eta gailutik urrun.

- **Telef. Blok. autom. tartea** –baimenik gabe inork erabil ez dezan, gailua automatikoki blokeatzeko denbora-tartea defini daiteke. Blokeatutako gailuak ezin dira erabili blokeatzeko kode zuzena sartzen ez bada. automatikoa desaktibatzeko, aukeratu **Bat ere ez.**
- **SIM txart. ald. Bada, blok.**–konfiguratu gailua SIM txartel ezezagun bat sartzean blokeatzeko kodea eska dezan. Jabearen txartel gisa ezagutzen dituen SIM txartelen zerrenda bat du gailuak.
- **Urruneko tel.-blokeoa** – Gaitu edo desgaitu urruneko blokeoa.
- **Erabiltzaile-talde itxia** – Zehaztu zuri deitzeko edo zuk deiak egiteko aukera duten pertsona-taldea (sare-zerbitzua).
- **Baieztatu SIM zerbitzuak**– Konfiguratu gailua, SIM txartelaren zerbitzuak erabiltzean baieztapen mezuak erakuts ditzan (sare-zerbitzua).

Telefonoa lineatik kanpoko moduan edo sarerako konexiorik gabeko moduan dagoenean, desblokeatu gailua eta aldatu deitzeko modura deitu aurretik.

Deiak erabiltzaile-talde itxi batentzat mugatuta badaude, gailuan programatutako larrialdietarako zenbaki ofizialera dei daiteke.

## Gestión de certificados

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Telef. Kudeaketa** > **Segurtasuna** > **Ziurtagirien kudeaketa.**

Erabili ziurtagiri digitalak Banku baten webgunera edo informazio konfidentziala transferitzea behar duten bestelako webguneetara sartzeko. Birusen edo bestelako software gaiztoen arriskua murrizteko ere erabili behar dira, baita softwarea benetakoa dela egiaztatzeko ere, gailuan deskargatzen edo instalatzen ari zarenean.

Hauta ezazu aukera hauetako bat:

- **Autoritate ziurtagiriak** –baimen-ziurtagiriak ikusi eta editatu.
- **Gune fidag. ziurtagiriak** – gune fidagarrien ziurtagiriak ikusi eta editatu.
- **Ziurtagiri pertsonalak** – ziurtagiri pertsonalak ikusi eta editatu.
- **Telefono ziurtagiriak** –gailuaren ziurtagiriak ikusi eta editatu.

Ziurtagiri digitalek ez dute erabateko segurtasuna bermatzen, baina softwarearen jatorria egiaztatzen laguntzen dute.

**Garrantzitsua:** ziurtagiriak erabiltzeak murriztu egiten ditu urruneko konexioei eta software instalazioei lotutako arriskuak, baina behar bezala erabili behar dira segurtasun gehigarri hori benetan aprobetxatzeko. Ziurtagiri bat egoteak, berez, ez du babesik ematen.

Segurtasun hori erabili ahal izateko, ziurtagirien administratzailearen ziurtagiriek zuzenak, benetakoak edo fidagarriak izan behar dute. Ziurtagiriek iraupen mugatua dute. “Ziurtagiri iraungia” edo “Ziurtagiri ez-baliozkoa” testua agertzen bada baliozkoa izan behar lukeen arren, egiaztatu telefonoaren uneko ordua eta data zuzenak direla.

## Ziurtagiriei buruzko informazioa ikustea eta benetakoak diren begiratzea

Zerbitzari baten identitatea zuzena dela jakin dezakezu, baldin eta zerbitzariaren ziurtagiri baten sinadura eta balio-epea egiaztatu badira.

Zerbitzarien identitatea benetakoa ez bada edo gailuan segurtasun-ziurtagiri egokia ez baduzu, abisatu egingo dizu.

Ziurtagiriari buruzko informazioa ikusteko, hautatu **Aukerak** > **Ziurtagiriaren xehetas.**. Ziurtagiriaren baliozkotasuna begiratzen da, eta ohar hauetako bat ager daiteke pantailan:

- **Ziurtagiri ez-ziurra** — ez da aplikaziorik definitu, ziurtagiria erabiltzeko.
- **Ziurtagiri iraungia** — ziurtagiriaren balio-epea amaitu egin da.
- **Ziurtagiria oraindik ez da ziurra** — ziurtagiriaren balio-epea ez da hasi oraindik.
- **Ziurtagiri kaltetua** — ezin da ziurtagiria erabili. Jarri harremanetan ziurtagiri-emailearekin.

## Fidagarritasun-doikuntzak aldatzea

Ziurtagiriaren edozein balio aldatu aurretik, ziurtatu haren jabea konfiantza osokoa dela eta benetan zerrendan agertzen den jabearena dela.

Baimen-ziurtagiri baten doikuntzak aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Segurt.-ezarpenak.** Ziurtagiriaren arabera, hautatutako ziurtagiria erabil dezaketen aplikazioen zerrenda bat agertzen da. Adibidez :

- **Symbian instalatu: Bai** — Symbian sistema eragilearen aplikazio berri baten jatorria bermatzen du ziurtagiriak.
- **Internet: Bai** — zerbitzariak bermatzen ditu ziurtagiriak.
- **Aplicaos. instalatu: Bai** — Java® aplikazio berri baten jatorria bermatzen du ziurtagiriak.

Balioak aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **.Segurt.-ezarpenak. aldatu.**

## Segurtasun-modulua

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Telef. kudeaketa** > **Segurtasuna** > **Segurtasun-modulua.**

Segurtasun modulu bat ikusteko edo editatzeko (erabilgarri badago), hautatu zerrendan.

Segurtasun-modulu bati buruzko informazio xehea ikusteko, hautatu **Aukerak** > **Segurt.-xehetasunak.**

## Berriro jatorriko doikuntzak jartzea

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Telef. kudeaketa** > **Fabrikako ezarp.**

Doikuntzen jatorriko balioak berrezar daitezke. Horretarako, blokeatze-kodea behar duzu.

Berrezarri ondoren, litekeena da aktibatzeko denbora pixka

behar izatea gailuak. Eragiketa horrek ez die dokumentuei eta fitxategiei eragiten.

## Eduki babestua

Eskubide digitalen lizentziak kudeatzeko, sakatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Telef. kudeaketa** > **Segurtasuna** > **Babestutako edukia.**

### Eskubide digitalen kudeaketa

Jabego intelektualeko eskubideak babesteko, copyrightak barne, edukiaren jabeek hainbat teknologia-mota erabil ditzakete eskubide digitalak kudeatzeko (DRM). Gailuak hainbat DRM software-mota erabiltzen ditu DRM bidez babestutako edukian sartzeko. Gailu honekin WMDRM10, OMA DRM 1.0 eta OMA DRM 2.0 bidez babestutako edukietara sar zaitezke. DRM softwareren batek edukia babestea lortzen ez badu, edukiaren jabeek eska dezakete DRM software horrek DRM bidez babestutako eduki berrira sartzeko duen gaitasuna ezeztatzeko. Zure gailuan dagoen eduki hori berritzea ere saihets dezake ezeztatze horrek. DRM softwarea berritzeak ez dio eragiten beste DRM-mota batzuekin babestutako edukiaren erabilerari edo DRM bidez babestu gabeko edukiaren erabilerari.

Eskubide digitalen kudeaketa (DRM) bidez babestutako edukia aktibatze-gako batekin batera ematen da, eta gako horrek zehazten ditu edukia erabiltzeko dituzun eskubideak.

Zure gailuak WMDRM bidez babestutako edukia badu (bai aktibatze-kodeak, bai edukia), galdu egingo dira gailuko memoria formateatzen bada. Gailuko fitxategiek kalteak jasaten badituzte, baliteke aktibatze-kodeak eta edukia ere galtzea. Aktibatze-kodeak edo edukia galtzeak mugatu egin dezake gailuan eduki hori berriro erabiltzeko aukera. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

Zenbait aktibatze-kode SIM txartel jakin batera konektatuak egon daitezke, eta babestutako edukia ezin da erabili SIM txartela gailuan sartu ezean.

## Jakinarazpen-argia

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Jakinarazp.-argia.**

Jakinarazpen-argia piztua dagoenean, Menu tekla aldizka pizten da galdutako gertaeren berri emateko, adibidez, dei galduen edo irakurri gabeko mezuen berri.

Jakinarazpen-argia aktibatzeko edo desaktibatzeko, hautatu **Jakinarazp.-argia.**

# Deiaren ezarpenak

## Deien doikuntzak

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak.** Hautatu **Deitzen** > **Deia** eta aukera hauetako bat:

- **Bidali nire zenbakia** — Hautatu **Bai** deitzen diozunari zure telefono-zenbakia erakusteko. Zerbitzu-hornitzailearekin adostutako ezarpenak erabiltzeko, hautatu **Sarearen arabera)** (sare-zerbitzua).

- **Deia zain** — dei batean zauden bitartean gailuak sarrerako deien berri emateko (sare-zerbitzua), edo funtzio bat aktibatua dagoen begiratzeko.
- **Ukatu mezudun deiak.** — dei bati testu-mezu batekin uko egiteko, eta deitzaileari deia ez onartzearen arrazoia azaltzeko.
- **Mezuaren testua** — deiak ukatzean bidaliko den testu-mezu estandarra idazteko.
- **Neure bideoa dei jas.etan** — bideo-deietan bideoa bidali nahi duzun ala ez hautatzeko.
- **Irudia bideo-deian** —Bideo-deian bideorik bidaltzen ez baduzu, irudi finko bat hauta dezakezu.
- **Birmarkatu automatikoki** — dei bat ezartzerik izan ez denean, gailua berriro saia dadin (gehienez hamar aldiz). Automatikoki berriro deitzeko funtzioa desaktibatzeko, sakatu amaitzeko tekla.
- **Erak. Deiaren iraupena** —deitu bitartean deiaren iraupean agertzea nahi duzun ezartzeko.
- **Laburpena deiaren ond.** —deia amaitu ondoren deiaren iraupena agertzea nahi duzun ezartzeko.
- **Markatze bizkorra** — markaketa bizkorrak aktibatzeko.
- **Edozein teklak erantzun** — edozein tekla erabiliz erantzuteko funtzioa aktibatzeko.
- **Linea erabiltzen** — SIM txartelak bi abonatu-zenbaki, hau da, bi telefono-linea, onartzean bakarrik agertzen da doikuntza hau (sare-zerbitzua). Hautatu zein linea erabili nahi duzun deiak egiteko eta testu-mezuak bidaltzeko. Edozein linea hautatuta ere, bi lineetako deiei erantzun diezaiekezu. **2 linea** aukeratzen baduzu, eta sare-zerbitzu horretara abonatuta ez bazaude, ezingo duzu deirik egin. Bigarren linea hautatzen baduzu, 2 azaltzen da hasierako pantailan.
- **Linea aldatu** — linea hautatzeko funtzioa ekiditeko (sare-zerbitzua), SIM txartelak aukera hori badu. Doikuntza hori aldatzeko, PIN2 kodea beharko duzu.

## Deiak desbideratzea

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Deitzen** > **Deien desbid.**

Deien desbideratzeak sarrerako deiak ahots-postontzira edo beste telefono-zenbaki batera desbideratzeko aukera ematen du. Xehetasun gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

Desbideratzea aktibatzeko, hautatu **Aktibatu.**

Aukera hori aktibatua dagoen egiaztatzeko, hautatu **Egiaztatu egoera.**

Desbideratzeko aukera bat baino gehiago aktibatu daitezke aldi berean. Dei guztiak desbideratu badira, hasierako pantailan agertzen da.

Deiak blokeatzeko eta desbideratzeko funtzioak ezin dira aldi berean aktibatuta egon.

## Deiak murriztu

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Deitzen** > **Dei-murrizketa.**

Deien murrizketak (sare-zerbitzua) gailuak egiten edo jasotzen dituen deiak mugatzeko aukera ematen du.

Adibidez, egiten diren nazioarteko dei guztiak mugatu daitezke, edo atzerrian zaudenean jasotzen diren dei guztiak. Ezarpenak aldatzeko, murrizketa-pasahitz bat behar da (zerbitzu-hornitzaileak emango dizu).

Deiak blokeatzeko eta desbideratzeko funtzioak ezin dira aldi berean aktibatuta egon.

Deiak blokeatuta daudenean, larrialdietarako zenbaki jakinetara dei daiteke.

### Ahots-deiak murriztu

Hautatu aldatu nahi duzun murrizketa-aukera, eta **Aktibatu**, **Desaktibatu** edo **Egiaztatu egoera**. Dei-murrizketak dei guztiei eragiten die, baita datu-deiei ere.

# 22. Arazoak konpontzea

Gailuari buruzko ohiko galderak ikusteko, ikus laguntza-orriak www.nokia.com/support webgunean.

### P: Zein da nire pasahitza PIN eta PUK blokeo-kodeetarako?

R: Telefonoa blokeatzeko aurrez zehaztutako kodea 12345 da. Kodea ahaztu egin baduzu, jarri harremanetan gailuaren hornitzailearekin. PIN edo PUK kodea ahaztu baduzu, edo ez badituzu jaso, jarri harremanetan sare-zerbitzuen hornitzailearekin. Pasahitzei buruzko informazioa jasotzeko, jarri harremanetan sarbide-puntuen hornitzailearekin; adibidez, Interneteko zerbitzuen hornitzailearekin (ISP), edo sareko zerbitzu-hornitzailearekin.

### P: Nola itxi daiteke erantzuten ez duen aplikazio bat?

R: Luze sakatu menu tekla, hautatu **Aukerak** > **Erakutsi aplik. irekiak** eta joan aplikaziora menu tekla erabilita. Luze sakatu menu tekla, eta hautatu **Irten**.

### P: Zergatik daude lauso irudiak?

R: Ziurtatu kameraren lentearen babes-leihoak garbi daudela.

### P: Zergatik falta dira puntuak edo zergatik agertzen dira kolorerik gabe edo distiratsu pantailan gailua piztutakoan?

R: Pantaila-mota honen ezaugarria da hori. Baliteke pantaila batzuetan pixel edo puntu batzuk beti aktibatuta edo desaktibatuta egotea. Normala da, ez da akats bat.

### P: Zergatik ezin du nire gailuak GPS konexio bat ezarri?

R: GPS-konexio bat ezartzeko, pare bat segundo edota hainbat minutu behar izango dira. Autoan GPS-konexio bat ezartzeko, denbora gehiago behar izan dezake.

Barrualdean bazaude, joan kanpora seinale hobea jasotzeko. Kanpoaldean bazaude, joan leku irekiago batera. Ziurtatu ez duzula gailuaren GPS-antena estaltzen eskuarekin. Baldintza meteorologiko txarrek seinale-intentsitatean eragin dezakete. Zenbait ibilgailuk tindatutako leihoak dituzte (termikoak), eta hauek satelitearen seinalea blokea dezakete.

### P: Zergatik ezin dut aurkitu lagun baten gailua Bluetooth konexioaren bidez?

R: Egiaztatu bi gailuak bateragarriak direla, Bluetooth konexioa aktibatuta dutela eta ez daudela modu ezkutuan 'Oculto' moduan. Egiaztatu, halaber, bi gailuen arteko distantzia ez dela 10 metrotik gorakoa eta ez dagoela hormarik ez trabarik bien artean.

### P: Zergatik ezin da Bluetooth konexioa amaitu?

R: Beste gailu bat badago zureari konektatuta, hura erabiliz edo Bluetooth konektagarritasuna desaktibatuz amaitu dezakezu konexioa gailuan. Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Konektagarritas.** > **Bluetootha** > **Bluetootha** > **Desaktibatu**.

### P: Zergatik ezin dut ikusko haririk gabeko sare lokaleko sarbide puntua (WLAN) onartutako distantziaren barruan egonda?

R: Litekeena da WLANerako sarbide-puntuak ezkutuko zerbitzu-identifikatzaile bat erabiltzea (SSID). Ezkutuko SSID erabiltzen duten sareetara sartzeko, SSID zuzena jakin behar duzu, eta zure Nokia telefonoan sarerako WLAN Interneteko sarbide-puntua sortu behar duzu.

### P: Nola desaktibatu behar dut haririk gabeko sare lokala (WLAN) nire Nokia telefonoan?

R: Zure Nokia gailuko WLAN desaktibatu egiten da konektatzen saiatzen ari ez bazara, beste sarbide-puntu batera konektatuta ez bazaude edo sare baten bila bazabiltza. Energia gutxiago kontsumitzeko, gailuari adieraz diezaiokezu bigarren mailako sareak ez bilatzeko edo maiztasun gutxiagorekin bilatzeko. WLAN desaktibatu egiten da bigarren mailako bilaketa-eragiketen artean.

Bigarren mailako bilaketen konfigurazioa aldatzeko:

1. Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Hari gabek. LANa.**
2. Bigarren mailan bilatzeko denbora igotzeko, doitu denbora **Buscar redes** aukeran. Bigarren mailako bilaketa eteteko, hautatu **WLAN erabilgar. erakutsi**> **Inoiz ez.**
3. Aldaketak gordetzeko, hautatu **Atrás.**

   **WLAN erabilgar. erakutsi** aukeran **Inoiz ez** hautatu denean, hasierako pantailan ez da agertuko haririk gabeko sare lokala erabilgarri dagoela adierazten duen ikonoa . Baina berdin-berdin bila daitezke eskuz haririk gabeko sare lokalak, eta ohi bezala horietara konektatu.

### P: Zer egin dezaket memoria beteta badago?

R: Ezabatu memoriako elementuak. **Ez dago nahikoa memoria eragiketa egiteko. Lehenago ezabatu datuak** edo **Memoria baxua. Ezabatu telefonoko memoriako datu batzuk** mezuak bistaratzen badura hainbat elementu aldi berean ezabatzen dituzunean, ezabatu banan-banan, txikienetik hasita.

## P: Zergatik ezin dut kontaktu bat aukeratu mezu batean eransteko?

R: Kontaktuaren txartelak telefono-zenbakirik edo helbide elektronikorik ez du. Hautatu **Menua** > **Kontaktuak,** kontaktua eta editatu kontaktuaren txartela.

## P: Nola amaitu dezaket datu-konexioa gailua behin eta berriz martxan jartzen bada?

R: Multimedia-mezuen zentrotik mezu bat jasotzeko ahalegina egiten ari da gailua. Datu-konexio bat eteteko, hautatu **Menua** > **Mezularitza** eta **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Multimedia mezua** > **Multimedia berreskuratz.** Hautatu **Eskuzkoa** multimedia-mezuen zentroko mezuak geroago berreskuratzeko edo **Desaktibatu** jasotako multimedia-mezuei kasurik ez egiteko. **Eskuzkoa** hautatuz gero, jakinarazpen bat jasoko duzu multimedia-mezuen zentroan mezu berri bat jasoz gero. **Desaktibatu** hautatzen baduzu, gailua ez da konektatuko multimedia-mezuekin lotutako sareetara. Aplikazio bat abiarazten denean edo datu-paketeen konexioa eskatzen duen ekintza bat abiarazten denean konexio hori erabil dadin konfiguratzeko, hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Aadmin. ezarp.** > **Pakete-datuak** > **Pakete-datuen konexioa** > **Behar denean.** Oraindik ere ez badabil, itzali gailua eta piztu berriro.

## P: Gailua fax-modem gisa erabil daiteke PC bateragarri batekin?

R: Ez, gailua ezin da fax-modem gisa erabili. Hala ere, deiak desbideratzeko aukeraren bidez (sare-zerbitzua), jasotako fax-deiak desbidera ditzakezu fax-zenbaki berri batera.

## P: Noka kalibra dezaket pantaila?

R: Pantaila saldu aurretik kalibratzen da. Berriro egin behar izanez gero, hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Ukipen-sarrera** > **Ukipen-pantail. kalibraz.** Segitu pantailan agertuko diren jarraibideei.

# Osagarriak

**Oharra:** Nokiak modelo honentzat onartutako bateriak, kargagailuak eta osagarriak soilik erabili. Beste edozein mota erabiliz gero, telefonoaren onarpen edo berme guztiak bertan behera geratu daitezke, eta arriskutsua izan daiteke.

Onartutako osagarriren bat badagoen jakiteko, jarri harremanetan banatzailearekin. Edozein osagarriren elikatze-haria deskonektatzeko, heldu entxufeari eta egin tira handik, ez egin tira haritik.

# Bateria

## Bateriari eta kargagailuari buruzko informazioa

Telefonoa elikatu egiten da, berriz kargatzen den bateria baten bidez. Gailu hau BL-5J bateriarekin erabiltzeko diseinatuta dago. Nokiak gailu honekin bateragarriak diren bateria-modelo gehiago sor ditzake. Gailu hau AC-8 eta AC-5 kargagailuak erabilita elikatzeko diseinatuta dago. Kargagailuaren modelo-zenbakia aldatu egin daiteke, entxufe-motaren arabera. Entxufe-mota honela adierazten da: E, EB, X, AR, U, A, C edo UB.

Bateria sarritan karga eta deskarga daiteke, baina denborarekin gastatu egingo da. Hitz egiteko denbora eta itxaroteko moduaren denbora normalean baino laburragoak badira, aldatu bateria. Erabili Nokiak onartutako bateriak soilik, eta kargatu bateriak Nokiak gailu honentzat onartutako kargagailuak erabiliz. Onartu gabeko kargagailua edo batera erabiliz gero, suteak, leherketak eta ihesak gertatzeko arriskua edo beste gertaera batzuk izateko dago.

Bateria bat erabiltzen duzun lehen aldian, edo bateria denbora luzez erabili gabe egon bada, baliteke kargagailua konektatu behar izatea, eta, gero, deskonektatu eta berriz konektatu behar izatea, bateria kargatzen has dadin. Bateria erabat deskargatuta badago, minutu batzuk pasatuko dira pantailan karga-adierazlea agertu arte edo deia egin ahal izan arte.

Bateria atera aurretik, telefonoa itzali beti eta deskonektatu kargagailua.

Deskonektatu kargagailua entxufetik eta telefonotik erabili behar ez baduzu. Bateria erabat kargatuta dagoenean, kendu kargagailutik, gehiegi kargatzeak iraupena murritz baitezake. Guztiz kargatuta dagoen bateria erabiltzen ez bada, bateria deskargatu egiten da denbora jakin baten ondoren.

Saiatu tenperatura-tarte honetan izaten beti: 15 - 25 °C (59 - 77 °F).

Muturreko tenperatuk bateriaren ahalmena eta iraupena murrizten dituzte. Bateria bero edo hotz badago, litekeena da gailuak aldi batean ez funtzionatzea. Izozte-puntuaren azpitik dauden tenperaturek bereziki mugatzen dute bateriaren errendimendua.

Ez egin zirkuitulaburrik bateriari. Zirkuitulaburra gerta liteke objektu metaliko batek –txanpon bat, klip bat edo boligrafo bat– zuzenean konektatzen baditu bateriaren terminal positiboa *(+)* eta negatiboa *(-)*. *(*Bateriaren banda metalikoak dira.*)* Hori gerta liteke, adibidez, patrikan edo poltsan beste bateria bat baduzu. Terminalen zirkuitulaburrak bateria edo horri konektaturiko objektua honda ditzake.

Ez bota bateriak sutara, balio ez dutenean, lehertu egin baitaitezke. Bestalde, bateriak lehertu egin daitezke, hondatuta badaude. Bete tokiko araudia, erabilitako bateriak botatzeko garaian. Mesedez, birziklatu ahal den guztietan. Ez bota bateriak etxeko zakarrontzira.

Ez desmuntatu, moztu, ireki, zapaldu, tolestu, deformatu, zulatu edo xehatu pilako elementuak eta bateriak. Bateriak likidoren bat galtzen badu, ez ukitu azala edo begiak likidoarekin. Ukitu baldin baduzu, garbitu begiak edo azala berehala urez, edo joan medikuarengana.

Ez aldaketarik egin baterian, ez egin berriro bateria eta ez sartu objekturik baterian; ez sartu edo utzi uretan edo beste likido batzuetan.

Bateria behar bezala ez erabiltzeak suteak, leherketak edo beste arrisku batzuk ekar ditzake. Gailua edo bateria erori egin bada, bereziki gainazal gogo batean, eta bateria hondatuta dagoela uste baduzu, eraman zerbitzu-zentro batera, erabiltzen segi aurretik azter dezaten.

Erabili bateria diseinatu zuten helburuarako bakarrik. Ez erabili inoiz kargagailua edo bateria hondatuta badaude. Ez utzi bateria haurren eskueran.

## Nokia bateriak autentifikatzeko arauak

Zure segurtasunerako, erabili beti jatorrizko Nokia bateriak. Bateria jatorrizkoa izan dadin, eros ezazu Nokiaren zerbitzu-zentroetan edo saltoki baimenduetan eta begiratu etiketari, urrats hauei jarraiki:

Urratsak behar bezala egin arren, bateria jatorrizkoa den berme osorik ez dugu. Eskuratutako Nokia bateria benetakoa eta jatorrizkoa ez dela susmatzen baduzu, ez duzu erabili behar. Hurbilen duzun Nokiaren banatzailearengana edo zerbitzu-zentrora eramatea eta laguntza eskatzea gomendatzen dizugu. Ezin bada frogatu bateria jatorrizkoa dela, eraman berriro eskuratu duzun tokira.

## Hologramaren egiazkotasuna

1. Ikus hologramaren etiketa: angelu batetik, elkartzen diren eskuen irudia ikusiko da (Nokiaren ikurra), eta, bestetik, Nokia Original Enhancements-en logotipoa (Nokiaren jatorrizko ekipamendua).
2. Okertu holograma logotipoaren ezkerrera, eskuinera, gora eta behera, eta 1, 2, 3 eta 4 puntuak ikusi behar dira alboetan.






## Zer gertatzen da bateria benetakoa ez bada?

Hologramaren etiketarekin ezin baduzu egiaztatu Nokia bateria benetakoa den, ez erabili, eta eraman hurbilen duzun Nokiaren banatzaile edo zerbitzu-zentro baimenduarengana, laguntza eskatzeko. Arriskutsua izan liteke Nokiak onartzen ez dituen bateriak erabiltzea, gailuaren errendimendua hondatu eta gailua eta osagarriak honda ditzakete. Halaber, gailuaren hainbat onarpen edo berme baliogabetu ditzake.

Nokiaren jatorrizko bateriei buruzko informazio gehiago behar baduzu, ikus www.nokia.com/battery.

# Zainketa eta mantentze-lana

Telefono hau diseinu eta fabrikazio bikaineko produktua da, eta arduraz zaindu behar da. Iradokizun hauekin, bermearen estaldura babestuko duzu.

- Ez busti telefonoa. Euriak, hezetasunak eta likidoek zirkuitu elektronikoak oxida ditzaketen mineralak dituzte. Telefonoa bustitzen bada, kendu bateria eta itxaron telefonoa erabat lehortu arte bateria berria jartzeko.
- Erabili zapi leun, garbi eta lehor bat lenteak garbitzeko (adibidez, kamera, hurbiltasun-sentsorea eta argi-sentsorea).
- Ez erabili eta ez gorde telefonoa leku zikinetan edo hautsez betetakoetan. Pieza mugikorrak eta osagai elektronikoak hondatu egin litezke.
- Ez gorde telefonoa leku beroetan.

- Tenperatura altuek gailu elektronikoen iraupena gutxitu dezakete, bateria kalte dezakete eta zenbait plastiko deformatu edo desegin egin ditzakete.
- Ez gorde telefonoa leku hotzetan. Telefonoak ohiko tenperatura berreskuratzen duenean, hezetasuna sor daiteke barrualdean, eta horrek zirkuitu elektronikoen plakak kalte ditzake.
- Ireki telefonoa beti gidaliburu honetako jarraibideen arabera.
- Ez utzi lurrera erortzen, ez kolperik eman eta ez mugitu zakarki telefonoa. Zakar erabiltzen baduzu, barne-zirkuituen plakak eta pieza mekaniko ahulenak puskatu egin litezke.
- Ez erabili produktu kimiko kaltegarririk, disolbagarririk edo garbigarri sendorik telefonoa garbitzeko.
- Ez pintatu telefonoa. Pinturak pieza mugikorrak oztopa ditzake eta behar bezala funtzionatzea galaraz dezake.
- Erabili telefonoak berez daukan antena edo onetsitako ordezko antena soilik. Baimenik gabeko antenek, aldaketek eta erantsitako elementuek kaltea eragin diezaiokete telefonoari eta irrati-aparatuei buruzko araudia urra dezakete.
- Ez erabili kargagailurik aire zabalean.
- Sortu beti gorde nahi dituzun datuen segurtasun-kopia bat; adibidez, aurkibideko kontaktuak edo oharrak.
- Errendimendua hobetzeko, noizean behin gailua berrabiarazi nahi baduzu, itzali gailua eta atera bateria.
- Segurtasunari buruzko informazio gehiago
- Gomendio horiek guztiak berdin-berdin aplikatzen zaizkie telefonoari, bateriari, kargagailuari eta gainerako osagarriei.

Gailuren bat behar bezala ez badabil, eraman hurbilen duzun baimendutako banatzaileari.

## Birziklatzea

Eraman beti bilgarri, bateria eta produktu elektroniko erabiliak gaikako bilketako puntu batera. Hori eginez gero, hondakinak kontrolik gabe ez botatzen eta materialak birziklatzen laguntzen da. Informazio zehatzagoa eskuratzeko, galdetu banatzaileari, herriko agintariei, hondakinak kudeatzeko enpresei edo Nokiak zure herrian duen ordezkariari. Ikasi Nokiaren produktuak birziklatzen www.nokia.com/werecycle gunean edo, zure gailu mugikorrean informazio bila bazabiltza, ikus www.nokia.mobi/werecycle.

Produktuan eta baterian ageri den gurpildun edukiontziaren irudiak, dokumentazioak eta salmenta-paketeak gogorarazten dute bereizita jaso behar direla produktu elektroniko eta elektriko guztiak, bateriak eta metagailuak, haien bizi-zikloaren amaieran. Europako Batasunean soilik aplikatzen da baldintza hori. Ez bota produktu hauek udal-hondakindegietara sailkatu gabe. Ingurumenari buruzko informazio gehiago behar izanez gero, ikus ingurumena errespetatzen duen produktua dela ziurtatzen duen agiria www.nokia.com/environment gunean.

# Segurtasunari buruzko informazio gehiago

## Haurrak

Gailuak eta haren osagarriek pieza txikiak izan ditzakete. Ez utzi haurren eskueran.

## Ingurune operatiboa

Produktu honek irrati-maiztasunaren energiarekiko esposizioa arautzen duten arauak betetzen ditu, bai belarriaren ondoan, bai gorputzetik gutxienez 1,5 cm-ra (5/8 hazbete) edukitzen denean ere. Gailua zorro babesle batekin, gerriko pintza batekin edo euskarri batekin gorputzetik gertu erabiltzen baduzu, komeni da zuk metalik gainean ez izatea; horrez gain, produktua gorputzetik lehen aipatutako distantziara izan behar duzu.

Mezuak edo datu-fitxategiak transmititzeko, gailu honek kalitateko sare-konexioa behar du. Kasu batzuetan, mezuen edo datu-fitxategien transmisioa atzeratu egin liteke konexio egokia erabilgarri egon arte. Ziurtatu transmisioa amaitu bitartean distantziei buruzko jarraibideak betetzen dituzula.

Telefonoaren zenbait osagarri magnetikoak dira. Telefonoak metalezko materialak erakar ditzake. Ez jarri kreditu-txartelik, ez bitarteko magnetikoak ere telefonotik gertu, horietan gordetako informazioa ezaba baitaiteke.

## Aparatu medikoak

Irrati-transmisioko ekipoek, telefono mugikorrak barne, interferentziak eragin ditzakete behar bezala babestuta ez dauden tresna medikoen funtzionamenduan. Kontsultatu mediku batekin edo aparatu medikoaren fabrikatzailearekin, irrati-maiztasunen kanpo-seinaleen aurka behar bezala babestuta dauden jakiteko edo edozein zalantza argitzeko. Itzali telefonoa hala adierazten dizuten erietxeetako leku berezietan. Litekeena da ospitale eta erietxeetan irrati maiztasunen kanpo-seinaleekiko sentikorrak diren ekipoak erabiltzea.

## Gorputzean ezarritako gailu medikoak

Gailu mugikorren eta pertsonak dituen gailu medikoen artean (adibidez, taupada-markagailuak edo kardiobertsio-desfibriladoreak) gutxienez 15,3 cm-ko (6 hazbeteko) distantzia izatea gomendatzen dute gailu medikoen fabrikatzaileek, gailu mediko horiekin interferentziarik ez sortzeko. Gailu horiek dituztenek alderdi hauek kontuan izan behar dituzte:

- Haririk gabeko gailua piztuta badago, beti utzi behar da 15,3 cm (6 hazbete) baino gehiago gailu mugikorraren eta gailu medikoaren artean.
- Haririk gabeko gailua ez dute eraman behar bularraren parean dagoen sakelan.

- Gailu medikoaren aurkako aldeko belarrian erabili behar dute haririk gabeko gailua, interferentzia-arriskua ahal bezainbat murrizteko.
- Haririk gabeko gailua berehala itzali behar dute baldin eta interferentziaren bat gertatzen ari dela konturatzen badira.
- Gorputzean ezarritako gailu medikoaren fabrikatzailearen jarraibideak irakurri eta haiei jarraitu behar zaie.

Haririk gabeko gailua gorputzean ezarritako gailuarekin erabiltzeari buruzko zalantzaren bat baduzu, galdetu zure medikuari.

### Entzuteko gailuak

Haririk gabeko zenbait terminal digitalek interferentziak eragin ditzakete audiofono jakin batzuekin. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

## Ibilgailuak

Behar bezala instalatuta edo babestuta ez dauden motordun ibilgailuetako sistema elektronikoei eragin diezaiekete IM seinaleek (esate baterako, injekziozko sistema elektronikoak, ibilgailuen balaztak blokeatzea eragozten duen balazta-sistema elektronikoak –ABS–, abiadura kontrolatzeko sistema elektronikoak eta airbag-sistemak). Informazio gehiago nahi izanez gero, egiaztatu zure autoaren edo zuk erantsitako ekipamenduaren alderdi horiek fabrikatzailearekin edo haren agente komertzialarekin.

Langile trebatuek soilik konpon dezakete telefonoa edo instala dezakete ibilgailu batean. Behar bezala instalatu edo konpondu ez bada, arriskutsua gerta daiteke eta telefonoari aplikatzen zaion bermea baliogabetu. Egiaztatu maiz zure ibilgailuko telefono mugikorraren ekipo osoa behar bezala muntatuta dagoela eta behar bezala dabilela. Ez biltegiratu eta garraiatu likido sukoirik, gasik eta material lehergarririk telefonoa eta haren piezak edo osagarriak dauden leku berean. Airbaga duen ibilgailua baduzu, gogoratu indar handiz puzten dela. Ez jarri objekturik (ez instalaturiko ekipoa, eta ez telefono mugikorraren pieza eramangarriak) airbagaren gainean edo hori zabalduko den gunearen gainean. Telefonia mugikorreko ekipoa ibilgailuaren barruan behar bezala instalatuta ez badago eta airbaga zabaldu egiten bada, zauri larriak eragin ditzake.

Debekatuta dago hegazkinetan telefonoa erabiltzea. Itzali telefonoa hegazkinean sartu aurretik. Haririk gabeko gailuak hegazkinean erabiltzea arriskutsua izan daiteke hegazkinaren beraren funtzionamenduarentzat, eta telefono mugikorraren sarearen konexioa eten egin dezake; gainera, legez kontrakoa da.

## Lehergaiak egon daitezkeen inguruak

Deskonektatu telefonoa leherketak gerta daitezkeen eremuetan, eta bete seinale eta argibide guztiak. Lehertzeko arriskua dagoen tokietan autoaren motorra itzaltzea gomendatzen dute normalean. Eremu horietan eztandak edo suteak izan litezke txinparten ondorioz, eta horiek kalte pertsonalak eragin ditzakete, baita heriotza ere. Itzali telefonoa gasolina-zerbitzuguneetan (adibidez, zerbitzuguneetako hornigailuen ondoan). Errespetatu erregai-depositetan, biltegiratzeko eta banatzeko eremuetan, instalazio kimikoetan eta leherketa-eremuetan irrati-ekipoak erabiltzeko dauden murrizketak.

Leherketak gerta daitezkeen guneak argi eta garbi adierazita daude sarritan, baina ez beti. Horietako batzuk hauek dira: itsasontzietako kubiertak, produktu kimikoak biltegiratu eta garraiatzeko instalazioak eta airean partikulak edo elementu kimikoak dauden eremuak (adibidez, pikorra, hautsa edo metalezko partikulak). Galdetu petrolio-gas likidotua (propanoa edo butanoa, adibidez) erabiltzen duten ibilgailuen fabrikatzaileei ibilgailutik gertu gailua erabiltzea segurua den.

# Larrialdi-deiak

**Garrantzitsua:** Gailu hau irrati-seinaleekin, haririk gabeko eta lurreko sareekin eta erabiltzaileak programatutako funtzioekin ibiltzen da. Zure gailuak Internet bidezko ahots-deiak (Internet bidezko deiak) onartzen baditu, aktibatu bai Internet bidezko deiak, bai zure telefono zelularra. Larrialdi-deiak bi bideetatik, sare zelularraren bidez eta Interneteko deien hornitzailearen bidez, egiten saiatuko da gailua, biak aktibatuta badaude. Horregatik, ezin daiteke bermatu konexioek egoera guztietan funtzionatuko dutenik. Ez egon inoiz gailu mugikor baten baitan komunikazio garrantzitsuetarako (larrialdi medikoetarako adibidez).

Larrialdi-deia egiteko:

1. Telefonoa piztuta ez badago, piztu. Egiaztatu seinale-intentsitatea egokia dela. Gailuaren arabera, litekeena da hau egin behar izatea::
   - Sartu SIM txartela, zure gailuak bat erabiltzen badu.
   - Kendu gailuan aktibatutako deien murrizketak.
   - Aldatu saretik kanpoko modua modu aktibo batera.
   - Pantaila eta teklak blokeatu egiten badira, mugitu gailuaren albo batean dagoen blokeoko etengailua desblokeatzeko.
2. Sakatu deiak amaitzeko tekla behar adina aldiz, pantaila ezabatu eta telefonoa deitzeko prest jarri arte.
3. Markatzailea irekitzeko, hautatu markatzailearen ikonoa ().
4. Markatu tokiko larrialdi-zenbakia. Larrialdi-zenbakiak aldatu egin daitezke herri batetik bestera.
5. Sakatu deitzeko tekla.

Larrialdi-dei bat egitean, eman beharrezkoa den informazio guztia ahalik eta zehatzen. Litekeena da zure telefono mugikorra izatea istripuaren lekuko. Ez eten deia horretarako baimena ematen dizuten arte.

# Absortzio Espezifikoaren Tasaren (SAR) ziurtagiriari buruzko informazioa

**Irrati-maiztasunaren eraginpean egoteari buruzko arauak betetzen ditu gailu mugikor honek.**

Zure telefono mugikorra irrati-transmisorea eta irrati-hargailua da. Nazioarteko arauek gomendaturiko irrati-maiztasunaren energiarako esposizio-mugak ez gainditzeko diseinatuta dago. Direktiba horiek ICNIRP zientzia-erakunde independenteak sortu ditu eta pertsona ororen –adina eta osasun-egoera gorabehera– segurtasuna bermatzeko diseinatutako babes-tarteak dituzte.

Telefono mugikorretarako esposizio estandarreko indizea Absortzio Espezifikoaren Tasa edo SAR izeneko unitatearekin neurtzen da. ICNIRP direktibetan ezarritako muga 2,0 watt/kilogramo (W/kg) da batez beste, giza ehunaren 10 gramoko. SAR probak funtzionamendu estandarreko posizioetan egiten dira, eta telefonoak berriz potentzia-maila ziurtatu handienera transmititzen du probaturiko frekuentzia-banda guzietan. Martxan dagoen gailu batean SAR unitatearen benetako maila gehienezko baliotik beherakoa izan daiteke; izan ere, gailua diseinatuta dago sarearekin konektatzeko behar adina indar izateko bakarrik. Zenbateko hori aldatu egin daiteke hainbat faktoreren arabera, adibidez, sarearen oinarrizko estazio batekiko hurbiltasuna. ICNIRP arauen arabera, hau da gailua belarrian erabiltzeko SAR unitatearen baliorik handiena: 0,99 W/kg.

Gailuarentzat osagarriak erabiltzen badira, beste SAR balio batzuk izan daitezke. Absortzio espezifikoaren tasaren balioak (SAR) estatu bakoitzeko proba-eskakizunen eta informazioaren eta sarearen bandaren araberakoak dira. SARi buruzko informazio gehiago lortzeko, ikus produktuari buruzko informazioa helbide honetan: www.nokia.com.

# Aurkibide alfabetikoa


## A

**abestiak 53**
**adierazleak eta ikonoak 23**
**ahots-aplikazioak 104**
**ahots-deiak**
  Ikus *deiak*
**ahots-komandoak 32, 104**
**alarma**
  agendaren oharrak 98
**albisteen infoak 93**
**antenak 26**
**aplikazioak 99**
  eguneratu 101
**aplikazioak instalatu 99**
**aplikazioak kendu 100**
**aplikazioen ezarpenak 106**
**aplikazioen kudeatzailea 99**
  ezarpenak 101
**arazoak konpontzea 111**
**argazkiak ateratzeko ezarpenak**
  kameran 61
**argazkiak**
  Ikus **kamera**
**arkatza 15**
**arrastatu 16**
**astearen ezarpenak**
  agendaren alarma 98
**audio-mezuak 45**
**aurkezpenak, multimedia 47**

## B

**bateria**
  energia aurreztu 20
**berehalako mezularitza 51**
**bidalitako mezuen karpetak 45**
**bideo partekatua 34**
**bideoaren erabilera partekatua**
  baldintzak 34
  bideoa zuzenean partekatu 35
  bideoklipak partekatu 35
  gonbita onartu 36
**bideo-deiak 33, 34**
  deian dituzun aukerak 33
**bideoklipak grabatu 65**
**bideoklipak**
  partekatua 34
**bideo-zentroa**
  bideoak transferitu 90
  bideo-iturriak 89
  deskargatu 88
  nire bideoak 90
  ikuspegia 88
**Bideo-zentroak 88**
**bilatu 95,96**
**bistaratze-ezarpenak 104**
**bitan ukitu 16**
**blogak 93**
**blokeatzeko etengailua 15**
**blokeatze-kodea 20**
**Bluetooth konektagarritasuna**
  aktibatu/desaktibatu 82
  datuak bidali 82
  datuak jaso 84
  ezarpenak 82
  gailuak blokeatu 84
  gailuak lotu 83
  gailuaren helbidea 83
  gailuaren ikuspena 82
  segurtasuna 82
**bolumenaren controla 25**
**bozgorailua 25**

## C

**caché memoria 95**
**copyright-en babesa 109**

## D

**data eta eguna automatikoki eguneratu 97**
**data eta ardua 97**
**dataren eta orduaren ezarpenak 103**
**datuak sinkronizatzea 81**
**datuen konexioa**
  gailuko eguneratzeak 106

kablea 85
PCrako konektagarritasuna 85
sinkronizazioa 81
**datu-paketeen ezarpenak**
ezarpenak 86
kontagailuak 37
sarbide-puntuen doikuntzak 78
**dei guztiak amaitzeko aukera 32**
**deia zain 32**
**deiak 29**
berriro deitu 109
bideo-deiak 33
deian dituzun aukerak 30
erantzun 30
ez onartu 30
ezarpenak 109
galdutakoak 37
Iraupena 37
jasotakoak 37
konferentzia 31
**deiak ez onartu 30**
**deiak ez onartu**
Ikus **Deiak ez onartu**
**deiei erantzun 30**
**deien erregistroa 37**
**deien iraupena 37**
**deskarga 94**
**Deskargatu! aplikazioa 96**
elementuak eskuratu eta deskargatu 97
**desplazamendua 74**
**DRM (eskubide digitalen kudeaketa) 109**

# E

**edukia transferitu 22**
**erantsiak 48**
**erlojua 97**
**esku libreko kit eramangarria 28**
**eskumuturreko uhala 29**
**eszenak**
irudiak eta bideoak 63
**ezarpenak 61, 103, 105**
aplikazioak 106
bideoaren erabilera partekatua 35
bideo-zentroak 90
Bluetooth konexioa 82
data eta ordua 103
datu-paketeak 86
datu-paketeen sarbide-puntuak 78
deiak 109
deiak murriztu 110
desbideratzea 110
hizkuntza 104
Interneteko sarbide-puntuak (WLAN) 79
kokapena 69
pantaila 104
podcast-ak 56
sarbide-puntuak 77,78
sarbide-puntuaren izenen controla 86
sarea 74
SIP 85
telebistako irteera 105
WLAN 77,80
ziurtagiriak 107

# F

**fitxategi erantsiak 47**
**fitxategien kudeatzailea 98**
fitxategiak antolatu 98
fitxategien segurtasun-kopia 99

# G

**gaiak 52**
**gailua blokeatu SMS bidez 29**
**gailuaren memoriaren segurtasun-kopia 98**
**gailuko eguneratzeak 106**
**galeria 58**
antolatu 58
bideoak ikusi 58
ikuspegia 58
irudiak ikusi 58
**gogokoak 94**
**GPS (Kokapen Sistema Globala) 66**
**GPSa**
kokapen-eskaerak 68
**grabatzeko ezarpenak**
kameran 61

# H

**haririk gabeko LAN (WLAN) 75**
**haririk gabeko sare lokalaren ezarpenak 77**
**hautatu 16**
**hizkuntzaren doikuntzak 104**

**hiztegia 103**
**horma-papera 52**
**hurbiltasun-sentsorea 29**

# I

**infoak, albisteak 93**
**informazio orokorra 18**
**informazio praktikoa 18**
**Interneteko konexioa 91**
Ikus, halaber, nabigatzailea
**Interneteko sarbide-puntuak *(IAP)* 76**
**iratzargailua 97**
**Irratia**
entzun 57
kateak 57
**irteerako postontzia, mezua 45**

# J

**jakinarazpen-argia 109**
**jatorrizko konfigurazioa**
berrezarri 108
**Java aplikazioak 99**
**JavaJME aplikazioekin bateragarritasunak 99**

# K

**kable bidezko konexioa 85**
**kalkulagailua 103**
**kamera**
adierazleak 60
aukerak 62
bideoaren modua 65
eszenak 63
flasha 63
grabatu 65
irudiaren modua 62
kokapenaren informazioa 63
segida modua 64
tenporizadorea 64
**kliskatzeko modua**
kamera 63
**kokapenaren informazioa 66**
**kokapenaren informazioa 66**
**kokapen-ezarpenak 69**
**Kontaktuak**
aurrez zehaztutako informazioa 43
bidali 43
dei-seinaleak 43
editatu 42
ezabatu 43
gordetzen 42
grabazioak 43
irudietan 42
izenak eta zenbakiak 43
kopiatu 44
sinkronizatu 81
**lagundutako GPSa *(A-GPS)* 66**
**laguntza aplikatu 18**
**lerratu 16**
**lineatik kanpo modua 27**
**lizentziak 109**

# M

**mapak 69**
**Mapak**
adierazleak 71
bilatu 70
eguneratu 73
gogokoak 72
gordetako elementuak 72
ibilbidea 72
kokapenak bidali 72
kokapenak bilatu 71
kokapenak gorde 72
nabigazioa 73
Nokia Map Loader 73
sare-kokapena 70
**markak 68**
**markaketa bizkorra 31**
**markatutako zenbakien aukibide alfabetikoa 37**
**memoria**
ezabatu 21
web-cachea 95
**memoria-txartela**
editatu 98
fitxategien segurtasun-kopia 99
**menua 16**
**mezu elektronikoak 47**
**mezuak**
ahotsa 30
ezarpenak 50
karpetak 45

multimedia 47
posta elektronikoa 47
sarrerakoen ikonoa 46
**mezuen urruneko postontzia 47**
**Minimapa 93**
**MMS (Multimedia-mezuen zerbitzua) 45, 47**
**multikonferentzia-deiak 31**
**multimedia**
musika-erreproduzitzailea 53
RealPlayer 101
**multimedia-barra 18**
**multimedia-mezuak 45, 47**
**multimedia-tekla 18**
**musika-erreproduzitzailea 53**
erreprodukzio-zerrenda 54
musika transferitu 55

## N

**Nabigatzailea**
caché memoria 95
deskarga 94
edukia bilatu 93
gogokoak 94
segurtasuna 95
tresna-barra 92
web orrietan nabigatu 91, 93
widget-ak 93
**nabigazio-tresnak 66**
**Nokia Care 18**
**Nokia Map Loader 73**
**Nokia musika-denda 55**

## O

**oharrak 102**
**Ongietorria 22**
**ordua eta data 97**
**orriaren ikuspegi orokorra 93**
**osagarriak 105**

## P

**pantailari bira eman 27**
**PCarekin konektatzea 85**
Ikus, halaber, datu-konexioa
**pertsonalizatu 52**
**PIN kodeak 20**
**PIN2 kodea 20**
**podcast-ak**
deskarga 56
ezarpenak 56
**postontzia**
ahotsa 30
posta elektronikoa 47
**profilak 52**
murrizketak lineaz kanpo 27
**proxy ezarpenak 79**
**PUK kodeak 20**

## R

**RealPlayer 101**

## S

**sarbide-kodeak 20**
**sarbide-puntuak 76,77**
taldeak 78
**sare zelularrari buruzko mezuak 49**
**Sarean partekatu 86**
argitaratu 88
artikuluak sortu 87
harpidetu 87
kontuak 87
zerbitzuak aktibatu 87
**sare-doikuntzak 74**
**sarrerako ontzia**
mezua 46
**sarrerako postontzia, mezua 46**
**segurtasuna**
web-nabigatzailea 95
WEP 80
WPA 80
ziurtagiriak 107
**segurtasun-kodea 20**
**segurtasun-modulua 108**
**sentsoreak 27**
**SIM txartela 28**
mezuak 49
sartu 13

**SIM txartela atera 28**
**SIM txartelaren segurtasuna 106**
**SIP 85**
**SMS *(mezu laburren zerbitzua)* 45**
**software aplikazioak 99**
**softwarea eguneratu 19**
**soinua isilarazi 30**
**Symbian aplikazioak 99**

## T

**TB konfigurazioa 105**
**teklak blokeatu 15**
**teklak eta piezak 12**
**teklatua, blokeatu 15**
**telebistaren irteera-modua 59**
**telefono-aurkibidea 98**
  tresna-barra 98
**tenporizadorea**
  kamera 64
**testu-mezuak**
  bidali 45
  erantzun 46
  ezarpenak 50
  jaso eta irakurri 46
  SIM mezuak 49
**tresna-barra aktibatuta 62**

## U

**ukitu 16**
**UPIN kodea 20**
**UPUK kodea 20**
**urruneko blokeoa**
  Ikus Gailua blokeatu SMS bidez
**urruneko SIM modua 84**
**USB kable bidezko konexioa 85**

## W

**web-erregistroak 93**
**web-konexioa 91**
**WEP 80**
**widget-ak 93**
**WPA 80**

## Z

**zerbitzu-komandoak 49**
**zerbitzu-mezuak 47**
**ziurtagiri pertsonalak 107**
**ziurtagiriak 107**
**zooma 62,65**

euskaltel

2008ko Kudeaketaren Kalitatearen Urrezko Q saria

Q Oro Premio a la Calidad de Gestión 2008